

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

5726

226/2011 DEKRETUA, urriaren 26koa; honen bidez, behin betiko onespena ematen zaio Enkarterriko Balmaseda-Zallako eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partzialari.

1.– Euskal Herriko Lurraldearen Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen babesean idatzi eta bideratu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onartu ziren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretu bidez, eta otsailaren 12an argitaratu ziren Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Gidalerro horietan ezartzen dira lurralde plan partzialak idazteko esparruak; horien artean, Enkarterriko Balmaseda-Zallako Eremu Funtzionalarena.

Aipatutako Legearen 2. eta 11. artikuluei jarraiki, lurralde plan partzialak derrigor landu beharreko lurralde antolamenduko tresnak dira. Alde horretatik, Gidalerroen 22. kapituluko 7. idatz-zatiak –Aplikatu beharreko Araudienak– adierazten du oso garrantzitsua dela lurralde plan partzialak lehenbailehen formulatzea, Gidalerro horien hirigintza eta lurralde irizpide osagarriak eskura izateko, eta horrenbestez, udalerrietako planak modu zehatzagoan garatu daitezzen ahalbidetzeko eta lurralde plan sektorialak lurralde koherentzia handiagoz lantzeko.

2.– Lurralde Plan Partzial hau Lurraldearen Antolamenduari buruzko Legearen 13. artikuluan aurreikusitako formulazio eta izapide prozesu luze baten ondorioa da, bere aurrerakinaren, hasierako onespeneren, behin-behineko onespeneren eta behin betiko onespeneren faseak izan dituen, eta herri administrazioen (tokikoa, foru-administrazioa eta erkidegoko administrazioa) eta aipatutako Eremu Funtzionalako jendarte-espektro zabalaren partaidetza izan duena.

3.– Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen 13.1 artikulua arabera, Enkarterriko Balmaseda-Zallako eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partziala formulatzeko ekimena Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari dagokie, maila berean; beraz, beharrezkoa da bi administrazioen arteko koordinazioa, ekintzak egitean disfuntzionaltasunak saihesteko. Xede horrekin, idatzi horren segimendua egiteko, koordinazio-mekanismoak ezarri dira Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza Sailaren eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren artean.

4.– Lurralde Plan Partzial honen hasierako eta behin behineko onespenak Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak eman ditu, 2009ko urriaren 15ean eta 2010eko azaroaren 3an, hurrenez hurren.

5.– Planaren edukiak Lurraldearen Antolamenduari buruzko Legeko 12. artikuluari erantzuten dio, eta lurralde plan partzialek izan behar dituzten zehaztapenak jasotzen ditu. Planak hainbat neurri ezarri eta proposamenak egiten ditu Eremu Funtzionalaren antolamendu osoa lortzeko helburu nagusiarekin.

6.– Enkarterriko Lurralde Plan Partzialak Artzentales, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Gueñes, Karrantza Harana, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz eta Zallako udalerriak hartzen ditu, eta helburu nagusiak dira lurraldearen muga fisikoa gaindituz tamaina funtzional nahikoa erdiestea eta Eremu Funtzionalaren garapen jasangarria bermatu ahal izateko 16 urteko behin-behineko etorkizunean sortzekoak diren eta lurraldean eragina duten ekintzak koordinatzea.

7.– Gune Naturala eta Kultura-ondarea babestu eta balioa ematea Eremu Funtzionalaren balio eta bereizgarritzat hartzen dira planean. Kultura– eta natura-ondareak esparru honetako paisaia berezia itxuratzen du, eta osotasunaren garapen ekonomiko eta jasangarriari begira garrantzi handiko baliabide gisa ulertu behar da. Hori dela eta, Eremu Funtzionalan natura-interes handiena duten espazioen arteko harreman ekologikoak erraztea proposatzen da: hala nola, Ordunteko GKLa, Armañongo natura-parkea eta Trianoko Mendietako Biotopo Babestuaren artekoak. Halaber, «zuhaitz apartekoak» adierazpena jasotzen duten zuhaitz-aleen kopurua areagotzea proposatzen du.

8.– Ekipamenduei eta espazio libreei dagokienez, egun daudenak indartu eta berriak garatzeko asmoa du Planak, Eremu Funtzionala hobekien definitzen edo ezaugarritzen duten alderdi kultural, turistiko eta naturalak indartzeko xedez.

9.– Biztanleriari dagokionez, Enkarterria biztanle gutxiko gunea da, eta izan dezakeen hazkundera aprobetxatu egin behar da. Etxebizitzari dagokionez, Eremu Funtzionalan udal plangintzarako bizitegirako diren etxebizitza-kopurua handitzea aurreikusten da, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen irizpideak jarraituz.

10.– Planak lurralde-ereduan jarduera ekonomikoak eta bizitokiak berriz orekatzea ahalbidetzen du, eta horrela, komunikazio-bide nagusiekin lotutako jarduera ekonomikoa mugatzearen aldeko apustua egiten du. Proposamen horiek OE-04 «Jarduera ekonomikoak Kadaguako ardatzean» eta OE-05 «Jarduera ekonomikoa mendebaldeko ardatzean» operazio estrategikoetan gauzatzen dira.

11.– Lurralde Antolamenduaren Gidalerroekin definitutako lurralde esparruaren barruan, Plan honek beste zeregin bat ere betetzen du: autonomia erkidegoko administrazio orokorraren sailek eta Bizkaiko Foru Aldundiko departamentuek sustatutako lurralde plan sektorialak integratzea. Lurralde plan sektorial hauek izan dira kontuan:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Nagusia.
- Bizkaiko Errepideen Plana.
- EAEko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Ibaien eta Errekastoen Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala. (Isurialde kantauriarra).
- EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Ekonomia Jardueretarako eta Merkataritza Horniduretarako Lurzoruaren Sorkuntza Publikoaren Lurralde Plan Sektoriala.

12.– Euskal Herriko Lurraldearen Antolamenduari buruzko 4/1990 Legearen 12.3 artikuluan ezarritako agirietan daude jasota planaren zehaztapenak. Agirien artean, zehazki, Antolamenduaren Arauak daude, besteak beste. Arau horietan biltzen dira Planeko xedapen eta proposamenak. Dekretu honi atxiki zaizkio I. eranskinean, argitara emateko.

13.– Era berean, Planarekin batera doa Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazio Bateratuko Azterlana ere. Bestalde, Ingurumen araudian xedatutakoa betez (apirilaren 28ko 9/2006 Legea, zenbait plan eta programak ingurumenean duten eragina ebaluatzeari buruzkoa; eta uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua, Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuaren prozedura

arautzen duena) Dekretu honen II. eranskin moduan doa Planean ingurumen alderdiak txertatzeari buruz hartutako erabakiaren derrigorrezko adierazpena.

14.– Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila da eskuduna, Planaren behin betiko onespina Gobernu Kontseiluari aurkezteko, Lurraldearen Antolamenduari buruzko legearen 13.9 artikuluan jasotakoaren arabera.

15.– Jaurlaritzaren Kontseilua da eskuduna, Enkarterriko Balmaseda-Zallako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala behin betiko onartzeko, Lurraldearen Antolamenduari buruzko 13.10 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Hori betez, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, eta alde zuzenetik 2011ko urriaren 26an egindako Gobernu Kontseiluaren bilkuran eztabaidatu eta onetsita,

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Enkarterriko Balmaseda-Zallako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala behin betiko onartzea. Antolamendurako arauak Dekretu honen I. eranskin gisa doaz, eta ingurumen alderdiak Planean txertatzeari buruz hartutako erabakiaren adierazpena II. eranskin gisa doa.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Lurralde Plan Partzial hau idaztean sartu den udal plangintza planaren lanketako egun jakin batean indarrean zegoena izan da, eta betiere informazio gisa sartu da; beraz, plana indarrean sartu arte egiten diren eguneratzeak edo aldaketak sartuzat joko dira.

Bigarrena.– Lurralde Plan Partziala, Lurraldearen Antolamenduari buruzko Legean ezarritakoa kontuan hartuz hierarkian gorago dagoen plangintza-tresna izanik, loteslea izango da indarrean dagoen eta aplikatzekoa den hirigintza-legeriak finkatzen dituen plangintza-tresna sektorialetan eta udal plangintzako tresnetan.

Ondorioz, lurralde eta udal plangintzak lotesten ditu Lurralde Plan Partzial honek: planaren edukiari egokitu beharko zaizkio, eta erreferentzia gisa balio beharko du, zehaztapenak interpretatu eta aplikatzeko.

Hirugarrena.– Lurralde Plan Partzial honetako Antolamendu Arauen eranskinak planaren zati dira, eta gainerako artikuluen arau-balio bera eta betebeharrak dituzte.

ALDI BATERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa.– Plan hau indarrean sartzean hasierako onespina jaso ez duten lurralde plan sektorialak formulatzeko eta aldatzeko prozedurak planean jasotako zehaztapenei egokitu beharko zaizkie, Enkarterriko Balmaseda-Zallako eremu funtzionalari eragiten dioten heinean.

Edonola ere, Lurralde Plan Partzial hau indarrean sartzean indarrean dauden lurralde plan sektorialak Plan Partzialak dioenaren arabera moldatuko dira; salbuespena da Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa.

2011ko azaroaren 25a, ostirala

Bigarrena.– Enkarterriko Balmaseda-Zallako eremu funtzionalari dagozkion udalerrietako hirigintza-agiriak Plan Orokorrak idatzi, berrikusi edo aldatzeko prozesuetan badaude eta Plan Partziala indarrean sartzean hasierako onespina jaso ez badute, agiritako zehaztapenak Plan Partzialeko aginduei egokitu beharko zaizkie, kasuan kasuko berrikuspen edo aldaketa prozeduren arabera.

Nolanahi ere, udalean indarrean dagoen hirigintza-plangintza orokorra Plan honetan xedatutakora egokituko da, berori indarrean jartzen denetik bi urteko epean.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hilabetera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko urriaren 26an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

I. ERANSKINA, URRIAREN 26KO 226/2011 DEKRETUARENA

ANTOLAMENDU ARAUAK

ESKUALDE EGITURAKO LURREALDEAREN ZATIKO
PLANA

BALMASEDA – ZALLA
(ENKARTERRIAK)

ATARIKO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea.

Ondoko Lurralde Plan Partzialaren (edo LPP) helburua, Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Alderdi Funtzionalaren (edo AF) antolaketa da, maiatzaren 31ko 4/1990 Euskal Herriko Lurraldearen Antolaketa (edo LAL) Legeak ezarritako zehaztasunak eta otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuan onartutako Lurralde Antolaketarako arauen (LAD) edukiak, aipatu Legearen arabera eremu honetan aplikatu daitezkeenak, garatuz.

2. artikulua.- Aplikazio-esparrua.

Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Alderdi Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala indarrean sartu bezain pronto, horretarako Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko arauak mugatutako eremuan eta zehazki udalerrri hauetan aplikatuko da:

- Artzentales.
- Balmaseda.
- Galdames.
- Gordexola.
- Gueñes.
- Karrantza Harana.
- Lanestosa.
- Sopuerta.
- Trucios-Turtzioz.
- Zalla.

3. artikulua.-Aldaketa eta berrikuspena.

1.- Aldaketa, Planaren Ebazpenetan edo dokumentazioan egiten den edozein modifikazio edo adizio da. Modifikazio honek, ez du dokumentazio honen berrazterketa orokorra egingo, zehatza edo puntuala baizik, proposamenaren osotasunean eraginik izan ez dezan.

Aldaketak, interes orokorreko arrazoietan oinarrituko dira eta beren eduki eta garrantzia mailaren deskripzio zehatza azaltzeaz gain, aldaketa hauek justifikatuak izan beharko dute. Zentzu honetan, behar bezalako zehaztasunez aztertutako izango dira, aldaketek Balmaseda-Zalla (Enkarterri) Alderdi Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialeko aurreikuspenen gain duten eragina, populazioa, lana, erkidegoaren ekipamendua eta azpiegitura mailan.

2.- Legezketasunagatik – aldaketa-legegileak, lurralde antolakuntza, etab. – nahiz aukera eta/edo beharragatik, edozein direla ere Balmaseda-Zalla (Enkarterri) Alderdi Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala berraztertzeke ekimenak, ondoko kasu hauetan, berrazterketa aurrera eramango da:

- a) Alderdi Funtzionaleko populazioak Plan honetan proiektatutako aurreikuspen maximoak (gehienezko aurreikuspenak) % 4an gainditzen dituen oro.
- b) Planifikatutako eraikin berrien % 75-aren eraikuntza baimena ematen den unean.
- c) Jarduera ekonomiko berrientzako aurreikusitako zoruaren % 75-a baino gehiago betetzen den unean.
- d) Behin betiko onespenetik 16 urte pasatzen diren unean.
- e) Orokorrean, baldintza batzuk Lurralde Plan Partzialak populazio kopuruari buruz, lanari buruz edo etxebizitza merkatuari buruz onartzen dituen hipotesiak aldatzen dituztenean, Planean xedatutako antolakuntza irizpide orokorrak aldatzera behartuz.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Arauen berrikuspen edo aldaketek Lurralde Ereduaren eraldaketa bat suposatzen dutenean, Alderdi Funtzionalaren gain zuzenean eraginez.
- g) Edonola ere, Balmaseda-Zalla (Enkarterri) Alderdi Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren indarralditik 8 urte pasata, bere berrikuspena egiteko aukera egiaztatuko da.

4. artikulua.- Indarraldi baldintzak.

1.- Plan honek indarraldi mugagabea du eta bere aldi baterako programazioak eta bere balizko berrikuspenek eta aldaketa programatuek edo programatu gabeek ez dute izaera horretan eraginik.

2.- Plan honetako erabakien baliogabetze edo modifikazioek, ez dute besteen balioan eraginik izango, azken hauetako bat, aurrekoen araberakoa edo menpekoa ez den bitartean edo elkar harremanagatik aplikaezina bihurtzen ez den bitartean.

3.- Lau urtetik behin, Eusko Jaurlaritzako Departamenduak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Balmaseda-Zalla (Enkarterri) Alderdi Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala idatzi eta jarraitzeko eskudun diren bitartean, bere konplimendua eta Lurralde sektore-planeamendu zein udal hirigintza planeamendua betetzen dituela balioztatzen duen memoria bat egingo dute eta desdoitzeak aurkituz gero, hauek eman ez daitezen hartu beharreko neurriak definituko dituzte. Memoria hau, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzaren Batzordeari ezagutzera emango zaio.

5. artikulua.- Etenaldia.

4/1990 legearen 3. artikuluan, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruz aurreikusitakoaren arabera, eta Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzaren Batzordea, Bizkaiko Foru Aldundiko audientzia (auzitegia) eta Alderdi Funtzionaleko udaletxeen aurretiko txostenarekin, gai honetan eskudun den kontseilariak proposatuta, Lurralde Plan Partzial honen indarraldiaren etena erabaki ahal izango du bere berrikuspena egiteko.

6. artikulua.- LPP-aren dokumentazioa.

1.- LPP-a ondoko agiriek osatzen dute:

- A) MEMORIA.
- B) ANTOLAMENDU ARAUAK. Bi eranskin bere baitan dituela: I. eranskina «Udaletako bizileku eskaintzaren kuantifikaziorako kalkulu orria» eta II. eranskina «Egituraketa ekintzak eta estrategi egiteak»
- C) INFORMAZIO ETA ANTOLAMENDU PLANOAK.
- D) EKONOMIA-FINANTZA IKERKETAK ETA GAUZATZE PROGRAMA. Lau urtetako lau alditan banatuta.
- E) UDAL PLANEAMENDUAREN ERASANEN DOKUMENTU OSAGARRIA.
- F) INGURUGIRO ERAGINAREN EBALUAZIOAREN AZTERKETA.

2.- «Antolamendu Arauak» eta «Antolamendu Planoak» izeneko dokumentuek, arau eta lotesle izaera dute. Hala ere, jardueren kokapen fisikoa, erreferentzia bat besterik ez da, sektore-planeamendu edo udal-planeamendua izango delarik, proposamen bakoitza zehaztuko duena. Dokumentazio grafiko eta idatziaren arteko desadostasunak konpontzearen, bien artean, testu idatzia gailenduko da. Gainerako dokumentuek, izaera orientagarri eta osagarria dute, Lurralde Plan Partzialaren osotasuna ulergarriagoa egitearren.

3.- Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 2ko 397/1999 Dekretuko 2.1.o) artikulua azaltzen duenaren arabera, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzaren Batzordeak, Lurralde Plan Partzialeko zehazpenen interpretazioa egiteko eskumena du.

7. artikulua.- Planeamenduaren egokitzapena.

Administrazio sektorial eta udalerriek zein Balmaseda-Zalla (Enkarterri) Alderdi Funtzionalaren lurralde antolamenduaren inguruan aginpide diren beste administrazioek, LPP indarrean sartzen denean, beren planeamendu proiektu eta tresnak LPP honen zehaztapenen arabera egokituko dituzte Eusko Jaurlaritzak ezartzen dituen epeetan, eta nolanahi ere Plan Orokorraren edo ematen diren Arau Ordezkatzaileen lehen berrikuspenean. Egokitzapen hau betetzen ez bada, berrikuspena ofizioz egin ahal izango dute, hirigintza-legeriaren legeen arabera aginpidedun diren organoek.

LEHENENGO TITULUA

LURRALDE EREDUKO ANTOLAKUNTZAREN OINARRIAK ETA FUNTSEZKO EDUKIAK

8. artikulua.- Zehaztapen orokorren sistematizazioa.

1.- Balmaseda-Zalla (Enkarterri) Alderdi Funtzionalaren Lurralde Antolakuntza, antolamendu arau hauetako funtsezko zehaztapenetan eta era integral eta hierarkizatuan lurraldearen definizio fisiko-funtzionala funtsatu eta/edo ezartzen duten planoetan oinarrituz azaltzen da.

2.- LPP-a esparru orokor bat izateaz gain, enuntziatu generiko, orientazio eta/edo antolakuntza ebazpen zehatzen bidez definitzen den antolakuntzarako erreferentzia berezi bat da, eta bere adierazpenean, bi kontzeptu multzo ezberdintzen ditu:

- Antolakuntza Helburu Orokorrak.
- Printzipioak, irizpideak, eta oinarrizko antolakuntza zehaztapenak, Lurralde Ereduan agertzen direnak.

3.- Antolakuntza helburu orokorrak:

- a) Balmaseda-Zalla (Enkarterri) Alderdiarentzako izaera sozial-ekonomikoko azken helburuak lurralde kodean itzultzen dituzte, interes orokor eta kolektiboak kontutan edukiaz. Horregatik, eremu honetan egiten den edozein jardueretan kontutan eduki beharreko nahitaezko erreferentziak dira.
- b) LPP-eko diagnostiko, analisi eta informazio fasea eta LAI-etan xedatutako irizpide eta printzipioetan oinarrituta, Alderdi Funtzionaleko Lurralde Antolakuntzaren helburu orokorrak eta funtsezkoak zehazten dituzte.

4.- Lurralde Ereduak, printzipio, irizpide eta antolakuntza fisiko-funtzionalaren zehaztapenekin, beste esku-hartze eta garapen proposamen batzuk gaineratzen dituen kontzeptu integral bat osatzen du.

9. artikulua.- Lurralde Ereduaren definizioa.

1.- Lurralde Eredua, LPP-aren antolakuntza zehaztapenetan definitzen da. Bertan, zoruaren erabileren joera nagusiak zehazten dira eta baita akzio garrantzitsu eta esanguratsuen definizio eta erregulaziorako helburu bereziak, irizpideak, soluzio eta xedapenak ere. Adibidez: ingurumen fisikoaren erabilera eta babesa eta oinarrizko azpiegituren ezarpena, udalez gaindiko interes ekipamenduak eta hiriko izaera eta/edo garapeneko establimenduen proposamenak. Lurralde Ereduak, natura eta landa inguruneari dagozkien hiriguneko elementu, erabilera eta akzio intentsiboenen eta estentsiboenen arteko lehen desberdintze kualitatiboa egiten ditu.

2.- Lurralde Ereduak, Alderdi Funtzionalean LAI-etako kontzeptu eta printzipioen aplikazioa du, besteen artean: hiri sistemak eta bizileku establimenduen tipologia, zoruaren politikari buruzko orientazioak, ongizate eta berrikuntzarako ekimenak.

3.- Lurralde Eredua, nahitaezko erreferentzia bat da - LPP-ak xedatzen duenaren arabera, bai zuzenean, bai lurralde eta udal planeamenduen bidez - lurraldearen gaineko esku-hartze eta antolamendu soluzio zehatzak ezartzeko.

4.- LPP-aren edukiak sistematizatzeko asmoz, Lurralde Ereduaren antolamendua definitzen eta arautzen duten zehaztapenak, kontzeptu hauetan biltzen dira:

- Ingurune Fisikoa.
- Establimendu Sistema.
- Komunikazio eta zerbitzuetako azpiegiturak.
- Hornidura Sistema.

5.- Definitutako Lurralde Ereduaren ezarpen eta garapenerako, Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Lurralde Plan Partzialak, Lurralde Antolamendu arauen zehaztapenak eta Planaren helburuak kontutan hartuz, lurralde antolamendurako kategoria batzuk ezartzen ditu eta kategoria hauen arabera, dagozkien erabileren eta intentsitateen erregulazioa egiten du esku-hartze modu sistema bat eratuz.

6.- Kasu berezietan Lurralde Plan Partzialak bere proposamenak era indibidualean zehaztu dituenean, proposamen fitxan «Egituraketa ekintzak eta estrategi egiteak» II. eranskinaren fitxetan jaso dira.

- Operazio Estrategikoetan Lurralde Plan Partzialaren proposamenak zehazten dira, bere eraginkortasuna gauzatzeko.
- Ekintza Egituratzailleak Alderdi Funtzionalaren lurralde egitura antolatzeko ekintzak dira.

2011ko azaroaren 25a, ostirala

BIGARREN TITULUA

INGURUNE FISIKOA LURRALDE EREDUAREN OINARRI ETA EUSKARRI GISA. ANTOLAMENDUA ETA BABES NEURRIAK

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

10. artikulua.- Definizioa.

1.- LPP-ean, Ingurune Fisikoa, Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Alderdi Funtzionala osatzen duen zorua da. Zoru hau, elementu euskarria izateaz gain, bere gain egiten da Planean definitzen den Lurralde Ereduren proiektua.

2.- Titulu honetan jasotakoaren arabera, indarrean dagoen planeamenduan Ingurune Fisikoa, urbano edo urbanizagarri bezala sailkatuak ez diren zoruak dira. Honetaz gain, Lurralde Plan Partzialeko proposamenetan biltzen diren zoruak ere ez dira Ingurune Fisiko bezala sailkatuko, gehienek, nekazaritza eta abeltzaintzarako erabilera eta basogintzarako zuzenduak daudelako eta/edo ingurumen eta natura, ekologi, paisai eta ezaugarri zientifiko-kulturalak dituztelako edo bizitzarako eta ingurumen naturaleko produkziarako beharrezko diren oinarritzko errekurtsoak direnez, zaintza edo babes berezia merezi dutelako.

11. artikulua.- Ingurune Fisikoaren antolamendu orokorra.

Ingurune Fisikoaren antolamenduaren proposamen orokorra Memorian deskribatzen da eta «Ingurune Fisikoa. Babes Alderdiak. Antolakuntzarako Oinarritzko Kategoriak» izeneko O-2 Planoan jasotzen da.

II. KAPITULUA

INGURUNE FISIKOAREN BABES NEURRIAK: BABESTU BEHARREKO EDO BERRESKURATZEKO ESPAZIOAK

I. ATALA

ANTOLAKUNTZA KATEGORIAK

12. artikulua.- Kontzeptua eta definizioa.

1.- Antolakuntza Kategoriak, Ingurune Fisikorako LPP-ko Lurralde Ereduren proposamenak dira. Lurraldea eremutan banatzen dute, beren harrera gaitasunaren arabera sektore homogeenak sortuz. Sektore hauetako bakoitzari, bere ezaugarrien arabera erabilera erregulazio bat aplikatzen zaio.

Ingurune Fisikoko kategoria hauek, kapitulu honetan eta «Ingurune Fisikoa. Babes Alderdiak. Antolakuntzarako Oinarritzko Kategoriak» O-2 Planoan izaera orientagarriarekin xedatzen dira, gutxi gora behera, dagozkion eremuak mugatuz.

2.- Xedatzen diren kategoriak, ondoko hauek dira:

- Babes berezia.

- Ingurunearen hobekuntza.
- Mendiko larreak.
- Azaleko uren babesa.
- Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabala.
- Basogintza.

13. artikulua.- Erabilera eta jardueren erregulazioa.

1.- Indarrean dagoen Lurralde Plan Partzialean, definitutako kategoria bakoitzarentzat ezarritako erabilpen eta jarduerak, EAE-ko Lurraldearen Antolakuntzaren Arauetan xedatutakoekin baliokidetzen edo parekatzen dira.

2.- Ingurune Fisikoaren babesa eta hiri-garapen berrietatik kanpo uztea, LPP-aren zehaztapen irmo eta loteslea da, beraz, LAI-etan jasotakoaren arabera, Titulu honetan xedatutako Antolakuntza Kategorietan, debekatuak antolamendu arau hauetan zehaztutako baldintzetan, hiri-hazkunde berriak.

14. artikulua.- Onurako mendiak.

LPP-ak araututako erabilera eta jarduerak ez dituzte kaltetuko, Mendiak eta Onurakotzat Hartutako Mendientzako Bizkaiko Lurralde Historikoko Espazio Natural Zainduen Administrazioa, eta Babesleei buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauan xedatutakoa, ezta lurraldeen okupazio eta erabilera baimentzeko Nekazaritza Departamentuari dagozkion aginpideak ere.

15. artikulua.- Landa-guneak.

1.- Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeari jarraiki, landa-gune bat sortzen da sei eta hogeita bost arteko baserri elkartzen direnean denok biltzen dituen eta izaera ematen dien gune publiko baten inguruan. Ildo horretan, lege hori garatzen duten premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretuarekin bat etorrita, baldintza hauek guztiak bete eta metatzen dituen eraikina da baserria:

- a) Bakartuta dagoen erakin bat da, eta gehienbat etxebizitza gisa erabiltzen da.
- b) Gutxienez etxebizitza bat du, Jabetzaren Erregistroan xedatutakoaren arabera.
- c) 1950eko urtarrilaren 1ekoa baino lehenagokoa den lehen erabilerako lizentzia eduki beharko da, edo, bestela, bizitegi gisa eraginkortasunez erabiliko dela dudarik gabe frogatzen duen agiria.
- d) Udalak hirigintzako plangintzan edo dagokion udal-ordenantzan finkatzen dituen bestelako ezaugarriak bete beharko dira.

2.- Hortaz, landa-guneek indarrean dagoen legeriak horri buruz finkatzen duena beteko dute; hau da, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko 2/2006 Legea eta 105/2008 Dekretua beteko dituzte. Hori gorabehera, LPPko araudian gai honi buruz finkatzen diren irizpide orokorrak ere bete beharko dituzte.

3.- Udal-plangintzan gauzatuko da landa-guneak zedarritzeko lana, zehazki, haren berrikuspenean. Ildo horretan, agiri honetan finkatzen diren irizpide orokorrak beteko dira. Hortaz, bada, indarrean dagoen plangintzan halakotzat jasota dauden landa-guneek indarreko legeriak edota LPP honek finkatzen dituzten baldintzak betetzen ez badituzte, sailkapenetik kenduko dira.

4.- Landa-gune bakoitzaren zedarritze-lana berrikusi beharko da, eraikinak barreiatuta gera ez daitezten. Horrez gain, proposatuta dagoen baserrien multzoari dagokion horretara egokituko da, eta, hortaz, multzo horren azalera murriztuko da, eta LPPk ingurune hurbilerako finkatzen dituen irizpideak beteko dira.

5.- LPPk irizpide orokor hauek ezartzen ditu landa-guneak berrikusteko:

- a) Landa-guneak zedarritzean eta arautzean, neurriak bete beharko dira gune horien izaera historikoa eta nekazaritza-girokoa babesteko eta zaintzeko.
- b) 5/1998 Legeari jarraiki garatu diren landa-guneei dagokienez, 25 baserri baino gehiago badago, behar bezala egiaztatu beharko da ea horien zedarritze-lanak landa-gune gisa sailkatzeko bete behar diren baldintzak betetzen dituen, hau da, ea etxebizitzak gune publiko baten inguruan bilduta dauden, edo, aitzitik, ea barreiatutako eraikinen multzo bat ote den. Hala izatekotan, zedarritze-lana murriztu beharko da, eta baldintza horiek betetzearen ondoriozkoa ezarri.
- c) Landa-guneetan saihestu beharko da gaur egun -neurri handiagoan edo txikiagoan- etxebizitzei loturik dauden nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak bota daitezten, eta erabilera horiek iraungo dutela bermatu beharko da.
- d) Landa-guneek lehentasuna eman beharko diote lehen sektoreko jarduerari, eta bizitegirako baizik ez diren eraikinen eraikuntza saihestu beharko dute.
- e) Eraikin berriaren tipologia dagoen eraikinaren antzekoa izango da, eta landa-guneak dituen berezko ezaugarriak zaindu beharko dira.
- f) Indarrean dagoen plangintzan, lurra zatitzeko eta eraikitzeko baldintzen araudi zorrotza finkatuko da, kontraesanak edo araudi anbiguoak baliatuta, hiri-izaerako eraikinik eta lotifikaziorik egon ez dadin, eta, horrez gain, lurzoruaren kontsumoa ahalik eta gehien murriztu ahal izateko.
- g) Lursailaren dimentsioak ahalik eta gehien doituko dira, gehieneko etxebizitza-kopuruari eusteko eta landa-gune gisa sailkatuta dagoen lurra murrizteko.

6.- Plangintza Orokorrak edo Plan Bereziak egiten duen antolamenduak landa-guneak berritzean, LPPk informazio hau ematea gomendatzen du:

- a) Landa-gunearen kokapena, eta bertako egoera.
- b) Irisgarritasuna: gunera iristeko modua, eta erabilitako ibilgailuentzako bidearen egoera.
- c) Morfologia: landa-gunearen deskribapen laburra, jatorrizko forma eta igarotako hamarkadetan izan duen bilakaera azalduta.
- d) Gunearen eta bertan dauden eraikinik garrantzitsuenen antzinasuna.

- e) Eraikinaren egoera: eraikinaren egoera azalduko da, 105/2008 Dekretuak finkatutako parametroak betez, eta alderdi hauek hartuko dira aintzat: eraikinen erabilera nagusia, haien kontserbazio-egoera, tipologia nagusia eta aurreikusita dauden eraberritzeko jarduerak.
- f) Hirigintzako datuak, hala nola, gunearen hedadura edo azalera, lursailen kopurua, dauden eta aurreikusi diren eraikinen kopurua, plangintzan landa-guneari begira jasota dauden zehaztapenak, etab.
- g) Hiri-zerbitzuak. Sare hauen ezaugarriak eta egoera azalduko da: ur-hornidura, saneamendua edo arazteko baliatzen den modua, hiri-hondakin solidoak eta zaborraren gaikako bilketa, guneko argiteria publikoa, gas naturala, gas butanoa edo banakako gasolioko biltegiak, telefonia finkoa edota telekomunikazioak, eta telefonia mugikorra, etab.
- h) Kasu bakoitzean dauden arazoak zehaztuko dira, eta aurreikusita edota hasita dauden jarduerak ere bai -halakorik badago-.
- i) Hiri-ekipamenduak eta -altzariak: gunean dauden ekipamenduen ezaugarriak eta egoera zehaztuko dira, bai eta hirigintza eta hiri-altzarien egoera ere. Dauden arazoak zehaztuko dira, eta aurreikusita edota hasita dauden jarduerak ere bai -halakorik badago-.
- j) Nagusi den jarduera ekonomikoa. Gunean nagusi den jarduera ekonomikoa zehaztuko da (nekazaritzakoa, abeltzaintzakoa, turistikoa, bizitegikoa, mistoa, etab.)
- k) Ingurumena eta paisaia. Gunearen ingurumen- eta paisaia-arloko balioak zehaztuko dira; eta babes-motaren bat edo babes bereziren bat duten ingurune hurbileko lurzoru guztiak zehaztuko dira, bai eta Lurralde Plan Partzial honetan finkatutako gainjarritako baldintzak betetzen dituzten horiek ere.

II. ATALA

ANTOLAKUNTZA KATEGORIEN ERREGULAZIOA

16. artikulua.- Babes Berezia.

1.- Lurralde Plan Partzial honetan Babes Bereziaren kategoria, beren balio ekologikoagatik, babestu beharreko eremuek osatzen dute eta Planak, babes maila handiena ematen die. Eremu hauetan, esku-hartze antropikoa mugatzea proposatzen da, erabilera edo aprobetxamendu iraunkorra indartuz eta erabilitako baliabidearen berrikuntza ziurtatuz. Babes Berezikiko kategorian sartzen diren eremuak «Ingurune Fisikoa. Babes eremuak. Antolakuntzarako Oinarrizko Kategoriak» O-2 Planoan identifikatzen dira.

2.- LAI-ek xedatzen dutenaren arabera, kategoria honetan, ongi kontserbatutako baso autoktonoak edo naturalak, lehentasunezko habitatak, egoera onean aurkitzen diren ibai-guneak, barnealdeko eremu hezeak, eremu nabarmenak edo landaretza berezidunak biltzen dira. Honetaz gain, Lurralde Plan Partzialak babesten dituen zoru eremuak dira eta proposatzen diren transformazioekin bat ez datozenez, LPP-ak xedatu ahala gehitu behar dira udal planeamendura.

3.- Espezie autoktono edo bereganatuen basoak, gutxi gora beherako lore konposaketa homogenea eta esanguratsua duten landaredi autoktono edo naturalekiko zuhaitz multzoak osatzen direnak dira

eta Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Alderdi Funtzionaleko zoru bioklimatiko ezberdinetako formazio klimatikoekin osoki edo partzialki bat datoz.

Baso autoktonoak edo naturalak «Ingurune Fisikoa. Babes eremuak. Antolakuntzarako Oinarrizko Kategoriak» O-2 Planoan identifikatzen dira. Eremu hauen mugaketa zehatza izango da aginpidedun Garapen Planeamendua definitzen duena eta Planeamendu honek baso hauen egoera eta naturaltasun maila zehaztuko du.

4.- Eremu hauek bere baso-masa inguruan gutxi gora behera hamar (10) metroko erreserba perimetrala izango dute. Erasoan aurrean edo kaltetu ditzakeen erabileren aurrean, karel edo parapeto gisa jokatuko dute erreserba hauek, eta perimetro horretan baldintza egokiak ematen diren kasuan, baso hedadura handiagoen berreskurapena erraztuko dute.

5.- Babes bereziko eremuen barruan daude lehentasunezko habitatak. Habitat natural hauek desagertzeko zorian daude eta hori ez gertatzeko ardura berezia hartu behar da; habitat hauek mantendu beharrekoak dira, oso eremu txikia hartzen baitute.

Eremu horiek basoko espezieak kontserbatzeko interes handikoak dira. Gainera, naturaren eta paisaiaren ikuspegitik ekosistema hoberenak dira, eta kasu batzuetan, eremu oso delikatuak dituzte arriskuan dauden landaretza eta fauna dutelako.

6.- Lurralde Planak babes bereziko kategoriarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Espazio Naturalen Sarean sartzen ez diren zuhaitz berezi batzuk ere jasotzen ditu. Zuhaitz hauek, dituzten ezaugarri aipagarriak direla eta (adina, historia, edertasuna, kokapena, tamaina, etab.) kategoria honetan sailkatuak egotea merezi dute. «Ingurune Fisikoa. Babes eremuak. Antolakuntzarako Oinarrizko Kategoriak» O-2 Planoan identifikatzen dira eta I. eranskinean deskribatzen dira «Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Alderdi Funtzionalean babes bereziko kategoriarekin, zuhaitz berezi bezala izendatzeko proposatutako aleak»(Memoria). Ondoko hauek dira zuhaitz bereziak:

- San Vicente de Sodupeko (Gueñes) artea.
- San Esteban de Galdameseko artea.
- Balmasedako zuhaitz lodia.
- La Takadako (Sopuerta) haritza.
- San Pedro de Zarieteko (Zalla) haritza.
- Zoko Maiteako (Balmaseda) haritza.

Euskal Autonomia Erkidegoko Espazio Naturalen Sarean sartzen den Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Alderdi Funtzionaleko ale bakarra, Artzentales haritza da. Ale hau, maiatzaren 16ko 265/1995 Dekretuan, zuhaitz bitxi edo berezi gisa azaldua izan da. Indarrean dagoen LPP-ean Babes Bereziko kategorian sartuko da.

Zuhaitz berezi hauei, ondoko babes erregimena aplikatuko zaie:

- a) Beren produktuen eta/edo zatien zein osotasunaren aprobetxamendua debekatzen da. Baina helburu zientifikoekin eta kudeaketan ardura duen organoaren baimen administratiboa izanik, beren hazi edo propagulo direlakoak jasotzea debeku honen salbuespen bat litzateke.

- b) Suntsitzea, hondatzea, markatzea eta edozein eratako objektuen oinarri edo euskarri gisa erabiltzea debekatua dago.
- c) Zuhaitzaren zaintzarako beharrezko diren basa-tratamendu eta landare-osasunerako tratamenduak, Foru Aldundiko kudeaketarako ardura duen organoak egingo ditu, bai zuzenean edo bai zuhaitz bereziaren jabearekin akordioetara iritsiz.

Babes Eremu Periferikotzat hartuko da, zuhaitzaren adar-buruaren proiektzio lekua eta honen inguruan hiru (3) metroko zinta bat, eta bere babes erregimena honako hau izango da:

- a) Debekatua geratzen da Babes Eremu Periferikoan zuhaitz berezia eta zorua era negatiboan eragiten duen edozein jarduera.
- b) Sua piztea debekatua dago.

17. artikulua.- Ingurunearen hobekuntza eta berreskurapen eremuak.

1.- Lurralde Plan Partzial honen Ingurunearen hobekuntza eremua, jasandako erabilerengatik eraginda edo degradatuta dauden alderdiek osatzen dute eta «Ingurune Fisikoa. Zaindu eta hobetzeko elementu bereziak O-1 Planoan» identifikatzen dira.

2.- Kategoria honetan 2 eratako eremuak aurki ditzakegu: Landaretza autoktonoaren berreskurapena eta eremu degradatuen berreskurapena.

- a) **Landaretza autoktonoa berreskuratzeko eremuak**, alde degradatuak dituzten baso naturalek osatzen dituzte. Sarritan, baso hauek basa-laborantzarekin nahasten dira. Erabileretan edo ohituretan emandako aldaketak direla eta kaltetuak izan diren ekosistemak dira.
- b) **Alde degradatuen berreskurapenerako eremuak**, gizakiaren aktibitatearen eraginez transformazio sakonak jasan dituzten gunez osatuak daude eremu hauek. Aipagarriak dira, dagoeneko, berezko egoera naturalarekin inongo parekotasunik gordetzen ez duten eremuak, adibide gisa aipa daitezke erauzketa-ustiapena jasandako lursailak, bereziki meatze eta harrobiak.

3.- Eremu hauetarako LPP-aren helburua, berezko ekosistema potentzialen leheneratzea edo ekosistema hauen zati bat ahal den neurrian berreskuratzea da, horretarako, oraindik mantentzen diren elementuak babestuz eta jasandako talka gutxituz. Degradatutako basoen kasuan, beren fase klimazikoa suspertu bezain laster eta beraz, berezko egoera lehengoratuta, babes bereziko kategorian sailkatuko lirarteke.

18. artikulua.- Mendiko larreak.

1.- Mendiko larreak kategorian, mendiguneetako alderdi kakuminaletan dauden alturako abere barrutiak sailkatzen dira. Urtaro araberako abel-aprobetxamendu sakona jasaten duten kota altuetako zelai leun eta trinkoak dira eta usadiozko artzain kultura bati lotuak daude. Belar-sastraka garbiketa edo beste metodo batzuen bidez larreen hobekuntza jasan duten mendi-inguruak ere sailkatzen dira kategorian honetan, baita oraindik orain ezarritako bazkalekuak ere.

2.- Lur-sail hauen mugaketa, «Ingurune Fisikoa. Ingurune Fisikoaren antolakuntza. Antolakuntzarako Oinarrizko Kategoriak» O-2 Antolakuntzarako Planoan azaltzen da eta Nekazaritza eta Basogintzako zein Ingurune Naturaleko Lurralde Plan Sektorialeko Mendi-larre eta Harkaitzetako larreen mugaketak kontutan izan dira.

3.- Katgoria honetarako LPP-ak duen helburua, artzain-jardueraren mantenu jasangarria ziurtatzea litzateke, izan ere, hau baita eremu hauek babesteko mekanismorik eraginkorrena. Horregatik, larre-eremu bakoitzeko bazka produkzioak suposatzen duen abel-gainkarga eta usadiozko abeltzaintza estentsiboarekin zuzeneko harremana ez duten eraikin eta azpiegiturak (itxiturak, askak, bordak, etab.) saihestuko dira.

19. artikulua.- Lur gaineko uren babesa.

1.- LPP honen arabera Lur gaineko urak, Alderdi Funtzionaleko ibai eta erreka guztiak eta beren babes eremuak, eta orokorrean jaiotzetik, itsasoan edo mugakide den beste Alderdi Funtzional batean itsasoratu arte behin behineko era edo era iraunkorrean urpetuak dauden alderdiak dira.

2.- Katgoria honetan Errekasto edo Erreka bazterren Babes Eremuak eta Inguru Hezeen Babes Eremuak desberdin daitezke.

3.- Babes eremu bakoitzaren ertzen eta beren babes erregimenaren mugaketarako, EAE-ko (Kantauriar-Isurialdea) Ibai eta Erreken Ertzen Antolakuntzari buruzko PTS-aren araudiko zonifikazio eta zehaztapenak hartuko dira kontutan.

4.- Alderdi hezeen Babes Eremuetan, III. taldeko hezeguneak sartzen dira, Alderdi Hezeen Lurralde Plan Sektorialean inbentariatuak - uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuan behin betiko onetsia eta Alderdi Hezeen Inbentarioan onarpen honetatik aurrera emandako aldaketak-, beren garrantzia, balio ekologiko eta garrantzia dela eta LPP-ean babestuak izatea merezi dutenak.

5.- Errekasto edo Erreka-bazterren Babes Eremuen eta Alderdi Hezeen Babes Eremuen mugaketa, «Ingurune Fisikoa. Ingurune Fisikoaren Antolakuntza. Antolakuntzarako Oinarrizko Kategoriak» O-2 Antolakuntza Planoan aurkitzen da.

6.- Jabari Publiko Hidraulikoan eta haren zortasun-zonetan edo polizia-zonetan egin nahi den edozein esku-hartzeren kasuan, nahitaez lortu beharko da aurretik Arroko Organismoaren administrazio-baimena. Baimen hori URA-Ur Agentziaren Ekialdeko Kantauriar Arroen bulegoan bideratu beharko da.

7.- Interes Handiko Ibaiertzetako jarduerak, erasaten zaion ibai-zatiaren egoera ekologiko ona lortu edo mantentzera bideratuta egongo dira.

20. artikulua.- Nekazaritza, abeltzaintza eta Landazabala.

1.- LPP honen arabera, katgoria honetan, Alderdi Funtzionalean nekazaritza aprobetxamendurako gaitasun eta ahalmen handienak dituzten zoruak sailkatzen dira, hala nola, aurretik aipatutako babes kategorietan sailkatzen ez diren eremuak edo berezko antolakuntza planeamendua eta kudeaketa behar duten espazio babestuen artean aurkitzen direnak eta O-2 Antolakuntza Planoan «Ingurune Fisikoa. Ingurune Fisikoaren Antolakuntza. Antolakuntzarako Oinarrizko Kategoriak» beren mugaketa azaltzen dutenak.

2.- Lurzoru hauek mugatzeko Nekazaritza eta Abeltzaintza Lurralde Plan Sektorialeko Nekazaritza, abeltzaintza eta Landazabala kategoria eduki da kontutan, Plan honetan definitutako bi azpikategorien artean desberdinduz:

- a) **Balio Estrategiko Handiko Nekazaritza Eta Abeltzaintza:** Gaitasun agrologiko handieneko zoruek osatzen dute, baita beren gaurkotasunagatik, errentagarritasunagatik edo iraunkortasunagatik, sektore honetarako estrategikotzat hartzen diren nekazaritza ustiapenerako lursailek ere.

Inguru hauen helburua, zoruen gaitasun agrologikoa eta nekazaritza-erabilerak mantentzea da, ekosistema eta nekazaritza-paisaien babesa ziurtatzen duten jarduerak baimenduz.

- b) **Trantsizioko Landa-Paisaia:** gaitasun emankor gutxieneko eremuak, malda handienetakoak edo belardiz estalitako landazabal eremuak eta hauekin mosaiko itxuran aurkitzen diren baso paraje txikiak sartzen dira azpikategoria honetan.

Eremu hauetan, usadioko nekazaritza erabilerak, funtsezko baliabideen beste aprobetxamenduekin osagarri izan daitezke, hauen artean, baso-erabilerako ustiapenak.

21. artikulua.- Basogintza.

1.- LPP honen arabera, kategoria honetan, beren gaur eguneko erabileragatik eta/edo bokaziozko erabileragatik (malda, arriskua, arroen babesa, etab.) baso erabilerara zuzenduak dauden Alderdi Funtzionaleko lursailak sartzen dira. Ez dira sartzen egungo baso-esparruak, landazabaleko beheko eremuan kokatuak egonik, nekazaritza eta abel-erabilerak direla eta, biratu eta nahasi egin daitezkeelako.

2.- Lurzoru hauen mugaketa, «Ingurune Fisikoa. Ingurune Fisikoaren Antolakuntza. Antolakuntzarako Oinarrizko Kategoriak» O-2 Antolakuntza Planoan jasotzen da, eta Lurralde Plan Sektorial Nekazaritza eta basozaintzako Basogintza kategoria eta Mendi Meatsen kategoria kontutan izan dira, Lurralde Plan Partzialeko Babes Bereziko kategorian sailkatuak geratzen diren espazioak baztertuz.

3.- Kategoria honetarako LPP-aren helburua, egungo zuhaitz azalera mantendu eta baso-sustapenerako eta erabilpen honi lotutako azpiegituren sustapenerako lehentasun neurriak hartzea da. Zuhaitzia kaltetzen ez duen bitartean eta bere birsorkuntza arriskuan jartzen ez duen bitartean, baso-esparruetan artzaintza baimendua egongo da.

III. KAPITULUA

GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

22. artikulua.- Kontzeptua eta definizioa.

1.- Gainjarritako baldintzatzailleek, Lurralde Plan Partzialaren babes zuzena osatzen dute. Erabilera baldintzatzaille bezala jokatzeko dute, aurreko kapituluan erregulatutako Babes Kategoriei gainjarriaz. Honela, kasu bakoitzean azal daitekeen arriskuen arabera eta babes-irizpide zehatzen baldintzapean, Gainjarritako Baldintzatzaillearen eremu erasnetan, zenbait jardueren garapen modua mugatzen dute.

2.- Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Lurralde Plan Partzialak, Gainjarritako Baldintzatzaileen artean ondoko multzoak xedatzen ditu:

- Kutsaduraren aurrean kalteberak diren akuiferoen eremuak.
- Uholde arriskudun eremuen babesa.
- Eremu higagarriak.
- Babestutako Espazio Naturalak.

Lurzoru hauen mugaketa, «Ingurune Fisikoa. Ingurune Fisikoaren Antolakuntza. Antolakuntzarako Oinarrizko Kategoriak» O-2 Planoan jasotzen da.

23. artikulua.- Kutsaduraren aurrean kalteberak diren akuiferoen eremuak.

1.- Egungo Lurralde Plan Partzialaren Arabera, Kutsaduraren aurrean kalteberak diren akuiferoen eremuak, lur-azpiko akuiferoak berriz kargatzeko funtzioa bete ahala, baliabide hauen kutsadurarako kaltebera maila handia azaltzen dutenak izango dira.

2.- Udal planeamendu orokorraren tresnek, zehazki garapenekoek, ondoko atalean xedatutakoa errespetatuz, eremu hauen mugaketa, esku-hartze antolakuntza eta erregimena eta erabilpena ezarriko dute.

3.- Barruko Urek, akuiferoak eta beren errenergia aldeak babestea dute helburutzat, EAE-ko Akuiferoen kalteberaren Mapan mugatzen diren akuiferoen kaltebera arrisku handiko alderdi bezala har daitezkeen eremuak kontutan hartuz. Honela, Akuiferoen Kaltebera Eremuen babesa proposatzen da.

4.- Eremu hauen esku-hartze erregimena, Antolamendu Arau hauetako 27. artikuluko matrizean, kategoria honentzako xedatzen diren erabilpen arauak egokituko zaie.

24. artikulua.- Uholde arriskudun eremuen babesa.

1.- Egungo Lurralde Plan Partzialaren Arabera, Uholde arriskudun eremuak, beren kokapena, erliebe eta ezaugarri topografikoengatik, Uholdeen Prebentziorako Plan Integralean xedatzen diren errepikapen epeen arabera eta ohiko etorbide maximoetan urpetze arriskua azaltzen duten eremuak dira.

Ohiko etorbide maximoetan urpetutako eremuak, 500 urteko errepikapen epearen barruan sartzen direnak dira.

2.- Eremu hauen esku-hartze erregimena ondoko mugaketei egokituko zaie:

- a) Jarduera egoki bezala ulertzen dira, erreten eta gainezkabide alderdien etenaldia eta itxidura saihaspen neurriak ezartzera eta pertsona eta ondasunen gaineko kalteak prebenitzera zuzenduak dauden jarduerak.
- b) Jarduera onargarri bezala ulertzen dira, uren dinamika naturalerako oztopo izan daitezkeen material pilaketa edo beste era bateko pilaketak sortzen ez dituztenak.
- c) Jarduera debekatuak bezala ulertzen dira, egoki edo onargarri bezala ulertzen ez diren guztiak edo eremuaren babes irizpidearekin bat ez datozenak.

3.- EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean (isurialde Kantauriarra) xedatutakoaren arabera erregulatuko dira uholde arriskua duten zoruetako jarduerak.

25. artikulua.- Alderdi higagarriak.

1.- Egungo Lurralde Plan Partzialaren arabera, Ereku Higagarri eta Higadura Arriskudun Ereku bezala hartuko dira, beren ezaugarri litologiko eta erliebeagatik, higadurarako joera maila handia duten eremuak.

2.- Ondoko atalean xedatutakoa errespetatuz, udal planeamendu orokorreko tresnek eta bereziki, garapenekoek, mugaketa zehatza, esku-hartze antolakuntza eta erregimena eta eremu hauen erabilpena zehaztuko dituzte.

3.- Beti ere, eremu hauen esku-hartze erregimenak, ondoko mugaketetara egokituko da:

a) Ondoko jarduerak bultzatu eta onartuko dira:

- Landare-estalkiaren (zuhaizkara bereziki) mantenua, gaurkotasunean existitzen denean.
- Landare-estalkiaren (zuhaizkara bereziki) sarrera eta hedapena lurzoru biluzietan.

b) Egokiak edo onargarri bezala onartzen ez direnak eta babes eremuko irizpideekin bat ez datozenak, debekatuak izango dira.

4.- Artikulu honetako aplikazio-esparrutik kanpo geratzen dira garatuak dauden zoru eremuak edo establimendu berriak eta baita Lurralde Plan Partzialean aurre ikusitako beste proposamen guztiak ere.

26. artikulua.- Espazio Natural Babestuak.

1.- Egungo Lurralde Plan Partzialaren arabera, Babestutako Espazio Natural gisa ulertzen dira, ekainaren 30eko Euskal Herriko Naturaren kontserbazioari buruzko 16/1994 Legean edo hau ordezkari dezakeen legedian azaldutakoak.

2.- Espazio Natural Babestuen esku-hartzearen antolakuntza eta erregimena Legedi Sektorial Atxikigarrian eta dagokien planeamendurako adierazpen eta tresnekin xedatutakoak, Baliabide Naturalen Antolakuntza Plana eta Erabilera eta Kudeaketa Plan Nagusia, izango dira. Planeamendu tresna hauek babes bereziko izaera ematen dieten eremuak ere gehitzen dira.

3.- Egungo Lurralde Planak, Espazio Natural Babestuen artean, Parke Naturalak, Babestutako Biotopoak, Natura 2000 Sarea eta Zuhaitz Bereziak jasotzen ditu.

a) **PARKE NATURALAK:** Balmaseda-Zalla (Enkarterri) Ereku Funtzionaleko eremuan, Armañón-eko Parke Naturala aurkitzen da, irailak 19ko 176/2006 Dekretuan aditzera eman zena, behin betiko, Baliabide Naturalen Antolakuntza Planaren aurkezpen eta onespeneren ostean.

b) **BABESTUTAKO BIOTOPOAK:** Lurralde Plan Partzialeko eremu honetan, Montes de Triano izeneko ingurunea aurkitzen da, Galdameseko udalerrian. Ingurune hau Babestutako Biotopo bezala adierazia izateko bideratze administratiboan aurkitzen da, Ingurugiro eta Lurralde Antolakuntzaren Aholkulariaren, 2006ko ekainaren 13ko Arauaren bitartez. 2011ko maiatzaren 18ko Aginduak aldatua, Biotopoko eremuaren mugaketa aldatzen duenaren bitartez.

LPP-eko kartografian indarrean dagoen behin behineko muga jasotzen da eta PORN-a onesten den arte, LPP-ak GEL-eko eremua era iragankorrean antolatzen du, urbanizatu ezin daitekeen zoruarentzako erabilitako irizpide berdinak erabiliz. PORN-a onesten denean, behin behineko xedatuak izan diren antolakuntzak, indarraldian egoteari utziko diote, GEL-aren mugaketa eta antolakuntza, dokumentu honi lotuz.

Euskal Herriko Naturaren Kontserbazioaren ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Natura Baliabideen Antolamendu Planaren helburuak ezinezko edo zaildu ditzakeen errealitate fisiko eta biologikoaren eraldaketa txiki bat suposatuko lukeen ekintzarik ezin da egin. Beraz, dagokion foru organoaren txosten baikor batekin ez bada, ezingo da errealitate fisiko edo biologikoaren eraldaketarako ekintzak ahalbideratzen dituen inolako baimen, lizentzia edo kontzesiorik eman.

- c) **NATURA 2000 SAREA:** europar sare ekologikoa (maiatzak 21-eko CEE Zuzendaritza 43/92, Habitat Naturalen eta Fauna eta Landaretza Basatiaren Zaintzari buruzkoa), Garrantzia Erkidegoko Lekuak (GEL) gehitzen dituen. Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Lurralde Plan Partzialeko eremuaren barruan, 2 sartzen dira:

- Armañón-eko GEL-a (parke naturalarekin aldi bereko dena).
- Ordunteko GEL-a: 3.869 H-etako azalerarekin, Karrantza Harana-ko udalaren hegoaldean kokatzen da, Artzentales-eko udalaren zati txiki bat hartuz, Bizkaiko Ordunteko mendietako ipar-hegala bere baitan hartuz. Hego-ekitik Ipar-ekirako norabidean lerrotatzen dira.

LPP-aren kartografian, indarrean dagoen behin behineko muga jasotzen da, eremu hauek babesteko neurriak onartu arte.

Armañón eta Ordunteko LIC-aren kudeaketarekin erlazio zuzenik ez duen ekintza orok, Natura 2000 espazio hauei afekta dakioke era nabari batean, bai bakarka zein beste ekintza, plan edo proiektu batzuekin konbinatuz, lekuaren babes helburuak kontutan izanik, lekuarekiko ondorioen azterketa sakon batera azpiratuko da.

4.- Eremu hauek, beren basogintza esparruen inguruan, gutxi gora behera hamar (10) metrotako erreserba perimetral bat izango dute, eraso ditzaketen inpaktu negatibo edo erabileren eraginez sortutako aldaketan aurrean karek edo parapeto gisa jokatuko duena eta inguru horretan kondizio egokiak emanez gero, baso hedadura zabalagoen berreskurapena erraztuko duena.

27. artikulua.- Erabilera eta jardueren arauen matrizea.

1.- Ingurune Fisikoari dagozkion zoruen kategorien arabera, erabilera eta jardueren oinarriko erregulazioa, ondoko koadro edo Erabileren Erregulazio Matrizean laburtzen da. Matrize honen edukiak, nahitaezko aplikaziokoak dira.

2.- Ingurune Fisikoaren erabilera eta jardueren erregulazio zehaztua, LPP-eko beste zehaztapenak kontutan hartuz emango da, dagokien uztardura mailarekin. Honetaz gain, indarrean dagoen legediko garapen tresnerietan, Plan Bereziatan, Sektorialetan, Baliabide Naturalen Antolakuntzan, Erabilpen eta Kudeaketa Nagusietako Plan Bereziatan eta antzeko beste batzutan garatuko da.

3.- Hiri-kokaleku eta ekipamendu handietarako aurrez ikusitako gunetan, LPP-k eginiko proposamenak gauzatzen ez diren bitartean, behin-behinean «Ingurune Fisikoa. Ingurune Fisikoaren Antolamendua. Antolamendurako Oinarriko Mailak» O-2 Antolamendu Planoaren arabera arautu beharko dira, bertan lurzoru urbanizaezinaren maila bat aldi baterako esleitzen zaielarik.

2011ko azaroaren 25a, ostirala

ANTOLATZE KATEGORIAK		ERABILERAK																							
		Ingurugiroaren babesa		Aisia			Oinezko ibarretan sarratsua			Auzoak			Eskuzkoen estableak												
		Kontratazioa	Ingurugiroaren babesa	Ogata estentzia	Ogata inentzia	Arañ-hakuntza eta jardura zingetxoak	Netzaritza	Beretxak	Aholtzita	Bosgitza	Netzari industria	Aeraste jarduerak	Garrabideak	Ateko harlana	Lurpeko harlana	Aipoko zero/ku ez-inesien teknika int.	Aipoko zero/ku ez-inesien teknika int.	Hondakin solidoen zaborra/ eta hondakinak	Aurteko guretan sostengariko nazundak	Aurteko guretan sostengariko gabeko nazundak	Eraileta publiko eta gizarte inlesteko eraikuntzak	Netzari ustapenerako egoitza	Isolatuak egoitza	Intzako hamitxak	
1. Babes berezia		1	1	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
2. Ingurugiro hobekuntza		1	1	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
3. Basoan bezelakoak		1	1	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
4. Azaliko urri babesa		1	1	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
5-1 Balio berdiko nekazaritza eta abeltzaintza estelagatik		2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
5-2 Fragatze bantza-pelotia		2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
6. Basogiltza		2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Auziferoen kalleberatasuna																									
Aisia urpean gertatzen																									
Inguru inguruetatik																									
Eguzki Natural Babesak																									

1 Egokia
2 Baina ondua
3 Debetatua * Gaietan p/kozmetoia

IV. KAPITULUA

NATUR INGURUNEKO OSAGAI GARRANTZITSUENAK

28. artikulua.- Kontzeptua eta definizioa.

1.- Egungo Lurralde Plan Partzialaren arabera, ingurune naturaleko osagai nabarmenek, Eremu Funtzionaleko ondare naturalaren barruan aurkitzen diren eremu edo Ingurumen-balio handiko interes puntuak, balio naturalistiko eta ekologikoa edo gai aldetik garrantzia esanguratsuko eremuak mugatu edo seinalatzen dituzte.

2.- Interes handiko espezieak, sistema geomorfologikoak eta beste ekosistema naturalak osatzen dituzten kokalekuak dira. Hau dela eta, hauek aztertzen dituen ikerketa zehatzak behar dira, eta Garapen Planeamenduaren esku geratzen dira eremuaren eta bere babes inguruaren mugaketa eta baita bere behin betiko antolakuntza ere.

3.- Ingurune naturalaren osagai nabarmenak, «Ingurune Fisikoa. Babestu eta hobetu beharreko elementu bereziak» O-1 Antolakuntza Planoan identifikatzen dira; eta beren ezaugarrien arabera lau taldetan banatzen dira:

- a) Korridore ekologikoak.
- b) Interes geologikoko eta geomorfologikoko eremuak.
- c) Paisai-balioa duten nekazaritza sistemak.
- d) Mehatxatutako flora eta fauna espezedun babes eremuak.

29. artikulua.- Korridore ekologikoak.

1.- Interes ekologikoko guneen artean komunikazio bat eratzen duten egiturak dira, normalki linealak direnak eta flora eta fauna espezieak migra dezaten balio dute. Honela, populazio isolatuen arteko harremana eta espazio berrien kolonizazioa ahalmentzen dute, uharte bihurtzeko arriskua eta ondorioz eman litekeen espezien desagerpena gutxiagotuz.

2.- Gune hauen antolakuntza irizpidearen helburuak, gaur egunean dauden mugak igarri eta sailkatu eta berauek iragazkortzeko proposamenak egitea izan beharko luke eta baita irizpide hauen funtzionaltasun helburuekin bateragarriak diren korridore bezala sailkatutako guneen erabileren erregulazioa xedatzea ere.

3.- Araudi espezifiko bat onesten ez den bitartean, esku-hartze erregimenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sarerako, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro eta Lurralde Antolakuntzaren Departamentuak, Sarearen antolakuntza planifikazio eta kudeaketa egokia egiteko hartu beharreko neurriei buruz arautzen dituen planifikazio eta kudeaketa xedapenak, kontutan izan beharko ditu.

30. artikulua.- Interes geologikoko eta geomorfologikoko eremuak.

1.- Lurralde Plan Partzialaren arabera, Interes geologikoko eremu bezala hartzen dira, beren baldintza geologiko eta geomorfologiko bereziengatik babesa merezi duten eremuak eta beren bitxitasuna,

ikusgarritasuna, edertasun eta paregabetasunagatik, Planak, ondare geologikoko gertakari esanguratsuenen aztarna bezala hartzen dituen eremuak.

2.- Gutxieneko esku-hartze, berriztapen eta kontserbazio oinarrietara egokituz, garapen planeamenduak xedatutakora egokituko beharko duen esku-hartze erregimena aplikatuko da eremu hauetan.

3.- Behin-behinean, hori garatuko duen plangintza idatzi bitartean, LZP-k, Enkarterriko gune karstikoak babeste aldera, grafiatutako interes geologiko eta geomorfologikoko gune guztiak kautelaz parekatuko ditu «akuiferoen kutsaduraren aurrean kalteberak diren guneak» gainjarritako baldintzarekin.

31. artikulua.- Paisai-balioa duten nekazaritza sistemak.

1.- Egungo Lurralde Plan Partzialaren arabera, Paisai-balioa duten nekazaritza sistema bezala ulertzen dira, giro ezberdinen barietate handi baina osagarrien habitat erdi-naturalak: zelai, larre eta nekazaritza laborantza atlantikoak, muino eta zuhaixka-hesi eta/edo zuhaizkara-hesiz mugatuak eta haritz pedunkulatu paraje txikiz edo baso misto atlantikoak, zein baso-laborantza sail txikiz ere zipriztinduak.

2.- Duten ingurumen-balio eta paisaia-balioagatik, beren egungo egoeran babestu beharreko espazioak osatzen dituzten zoru eremuak dira. Eremu hauei, Lurralde Plan Partzialak lurraldea egituratzeko funtzioa ematen die. Era berean, elementu hauek, biodibertsitatearen kontserbaziorako interakzio orekatu eta onuragarria eta zoruaren erabilera tradizionalak demostratzen dituzte. Eremu Funtzional honen balio natural, zientifiko eta kulturaleri lotuak dauden zenbait dibertimenduzko jarduera emateko egoki diren interes paisajistiko nabarmeneko espazioak dira.

3.- OE-10 «Nekazaritza sistema paisajistikoak» operazio estrategikoaren bidez gauzatzen da espazio hauen babes aktiboa, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta strategi egiteak» agertzen dena. Bere esku-hartze erregimenak, gutxieneko esku-hartze, berriztapen eta kontserbazio printzipioei erantzuten die eta garapen planeamenduak xedatutakoari egokituko zaio. Espazio hauen mugaketa, garapen planeamenduak erabakitako puntuetan egokitu daiteke, behar bezala arrazoituta.

Karrantza Haraneko udalean definitutako paisai-balioa duten nekazaritza sistemak, Eremu Funtzionalean biltzen direnen artean azalera eta kalitate handienekoak dira eta OE-1 «Ingurugiro Landa-parke» operazio estrategikoa sortzen dute, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta strategi egiteak» agertzen dena.

4.- Eremu hauetan, alde batetik nekazaritza-intentsitatearen areagotzea saihestu beharko da ongariak sartuz eta teknika berriak erabiliz. Honela, alde batetik etekin eta eraginkortasun orokorra gehitzen da baina bestetik, barietate paisajistikoa eta aniztasun biologikoa galtzen dira. Bestalde, ondoriotzat belaualdi arteko errelebu-eza eragiten duten baldintzak direla eta, hala nola, diru-sarrera txikia izatea, lan baldintza gogorak eta gizarte zerbitzu ezagatik, laborantza estentsiboko lurzoruen baztertzea ere saihestu beharko da.

5.- Halaber, eremu edo lurralde hauen oihantzea saihestu beharko da, beren berezko balioak babesteko. Paisaia baliotsuko nekazaritza sistemak Elementu Nabarmenen maila bat osatzen dute, beren arauketa antolamendurako mailekin gainjartzen delarik, erabileren matrizean. Eremu hauetako

udal plangintzari eskaturiko baso-ustiaketaren berariazko debekua, definitutako nekazaritza sistema batzuetan barne hartutako basogintza mailaren alde haietarako baino eza da baliozkoa.

6.- Espazio hauek, beren egoera naturalean mantentzeko erabakigarri eta oinarritzko diren landa-guneak eta dagoeneko existitzen diren eraikinak, beren mugaketa barruan sartzen dituzte.

Zentzu honetan, salbuespen gisa baimenduko dira, behar bezala arrazoituz, eraikin berrien garapena edo landa-jardueraren mantenu eta garapena indartzen duten proposamenak.

32. artikulua.- Mehatxatutako flora eta fauna espezieen babes eremuak.

1.- Egungo Lurralde Plan Partzialaren Arabera, Mehatxatutako flora eta fauna espezieen babes eremuak, espezie, azpiespezie edo flora eta fauna populazioak dituzten eremuak izanik, babes neurri bereziak behar dituztenak dira. Eremu hauek, Euskal Herriko Naturaren Kontserbazioari buruzko ekainaren 30-eko 16/1994 Legearen 47. artikuluaen babespean, Eusko Jaurlaritzako, uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuak sortutako Mehatxatutako Basa eta Itsas Fauna eta Flora espezieen Euskal Katalogoan aurkitzen dira.

2.- Eremu hauen mugaketa «Ingurune Fisikoa. Antolakuntza del Ingurune Fisikoa. Antolakuntzarako Oinarritzko Kategoriak» O-2 Antolakuntza Planoan jasotzen da, eta erreferentzia bezala, 1:5.000 eskalan Kartografiatutako eta Mehatxatutako Espezieen Euskal Katalogoan aurkitzen diren landare bizkaitarren populazioaren ikerketa hartu da.

3.- Europar bisoi eta eriophorum vaginatum-en babes eremuetako esku-hartze erregimena, dagozkien kudeaketa-planekin lotuak daude. Hauetan lehena, ekainaren 19an (BOB 129. zkia.) 118/2006 Foru Dekretuan onetsia eta bigarrena, ekainaren 19an (BOB 129 zkia.) 114/2006 Foru Dekretuan.

Beste flora eta fauna espezieen babes eremuei dagokionez, dagozkien kudeaketa plan bereziak onesten ez diren bitartean, Euskal Herriko Naturaren Kontserbazioari buruzko ekainak 30-eko 16/1994 legean xedatutakoan oinarrituko dira.

4.- IV. eranskinean (Memoria), Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Eremu Funtzionaleko Mehatxatutako Flora eta Fauna Espezieak azaltzen dira.

HIRUGARREN TITULUA

SARE BERDEA

33. artikulua.- Definizioa.

1.- Egungo Lurralde Plan Partzialaren Arabera, Sare Berdea, Aisialdi Eremuek osatzen duten sistema da, Bide Berdeak, bizikletarako sarea, udalez gaindiko izaera duten parke handiak eta Natura Interpretaziorako Guneak. Sare hauek, biztanleriak lurraldea eta/edo Ingurune Fisikoaz goza dezan eta hauetara sarrera izan dezan laguntzera zuzenduak daude, espazio ezberdinen bokazioarekin bat datozen mekanismoak bilatuz.

2.- Sistema hau, ondoko elementuek osatzen dute:

- Kadaguako ibai-parkea.
- Ingurugiro landa-parkea.
- Existitzen diren aisialdi eremuak.
- Ibilbide naturalistikoak.
- Beste proposamen lineal batzuk: Galtzada Erromatarra, Santiagoko Bidea, Bide Berdeak, GR-123, bizikletarako sarea, etab.

3.- Bai Espazio Natural Babestuak eta baita Paisai-interesdun Landa-sistemak, antolamendu arau hauetako beste atal batzuetan erregulatuak egon arren, Ingurune Fisikoko oinarrizko elementutzat hartzen dira, beren ezaugarri eta balio handiagatik, Sare Berdea osatzen duen sistema ulertu eta honekin gozatzeko gakoak direlarik.

4.- Sare Berdea AE-10 Jarduera Egituratzailan definitu da, era berean, OE-07 «Kadagua-ko Ibai-parkea» Operazio Estrategikoarekin eta OE-01 «Ingurugiro Landa-parkea»-rekin zuzeneko harremana duelarik, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta strategi egiteak» agertzen dena.

34. artikulua.- Kadagua-ko Ibai-parkea.

1.- Egungo Lurralde Plan Partzialaren arabera, Kadaguako ibai-parkea izeneko OE-07 Operazio Estrategikoa, Kadaguako ibaian zehar garatzen den eremuarekin bat dator, Kadaguako Bideratze Planean jasotako mugaketan; Balmasedatik, Zallatik Gueñeseko hirigunerarte, eta puntu honetatik aurrera, ibaiaren gune urperagarriekin duen mugaketarekin.

2.- Esku-hartzearen erregimenaren antolakuntza eta finkapenerako, ibaian zehar eremu batzuk mugatzen dira eta bertan, beharreko erabilerak kokatzen dira:

- **Olgetarako gunea eta aisialdiko gunea:** olgetarako jarduerak, kirol jarduerak edo jarduera kulturalak.
- **Lorategi botanikoa eta astialdia:** kontserbazio jarduerak, hedaketa eta floraren ikerketa.

- **Gune esperimentalak eta laborantza guneak:** udaletxeek babestutako laborantza baratzak edo aisialdiko jarduerak.
- **Fauna behatokia edo basa-fauna-ren parkea:** hedapen jarduerak eta faunaren behaketa.

3.- Urperatze arriskua duten zoruen gaineko jardueren erregulazioa, EAEko Ertz eta Ibai eta Erreken Antolakuntzari buruzko (isurialde Kantauriarra), LAP-ean xedatutakoan oinarritzen da.

35. artikulua.- Ingurumen Landa-Parkea.

1.- Egungo Lurralde Plan Partzialaren arabera, parke honen mugaketa, Karrantza Haraneko, Trucios-Turtziozko eta Artzentaleseko udalerrien osotasunarekin bat dator.

2.- Ingurugiro Landa-parkea, ganaduarentzako larre zabalez osatua dago, mosaikoak osatzen dituzten paisaiekin edo Karrantza Haraneko, Trucios-Turtziozko eta Artzentaleseko udalerrietan nabarmentzen diren landazabal atlantikoko paisaiekin, atzean Ordunte eta Armiñóneko mendiak dituelarik.

3.- Bai Espazio Natural Babestuak eta baita Interes Paisajistikoa duten Landa-sistemak ere, Antolamendu Arau hauetako beste atal batzuetan erregulatuak dauden arren, «Ingurugiro Landa-parkea»-ko oinarritzko elementutzat hartzen dira eta beren ezaugarri eta balio handiagatik, Karrantzako landa-paisaiaren ulermena eta gozamenerako ezinbesteko gakoak dira.

4.- Landako mundua eta lehen sektorearekin harremana duten paisai eta ingurune-kalitate handiko lurraldeen babes aktiboa dute helburutzat. Paisaia, produktu batean bihurtzen da eta ondorioz, emaitza ekonomiko, ingurune etekinak eta giza etekinak ere sortzen ditu, udal hauei mesede egiteaz gain, Bizkaia osoan ere eragina duelarik.

5.- LPP-etik, proposamena, «Ingurugiro Landa-parkea» OE-01 Operazio Estrategikoaren bidez zehaztu da, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta strategi egiteak» agertzen dena. Bertan, ondoko neurri eta jarduerak planteatzen direlarik:

- Landa-mundurako laguntzen sustapenean, Instituzio Publikoen parte-hartzea, bere balio ekologiko, paisajistiko, sozial eta kulturalak direla eta, duen izaera estrategikoari erantzuteko asmoz.
- Pertsonak lehen sektorean sar daitezen, etengabeko heziketa programen sustapena.
- Nekazaritza eta abeltzaintza ustiapeneko metodoen hobekuntza, landa-ekosistemen mantenua bermatzen jarrai dezaten.
- Landa-garapenerako Erkidego eta Foru Programa zehatzen sustapena.
- Landa arkitektura edo baserrien birgaipena, bultzada eta babesa.
- Landa-guneen erakarpen turistikoaren sustapena, ekipamendu espezifikoak indartuz.
- Landa-izaerako espazioen irisgarritasunaren hobekuntza, aktibo natural eta kulturalak aprobetxatzeko asmoz.

36. artikulua.- Atsedeen guneak.

1.- Egungo Lurralde Plan Partzialaren arabera, Aisialdi eremuek Udal bakoitzean indarrean dagoen planeamenduan biltzen diren espazio libre eta aisialdiko espazio nabarmenenen sistemak osatzen dituzte. Gainera, Memorian azaltzen den lez, planeamendu tresna honen bitartez, eremu hauen hobekuntza bultzatzen da.

2.- Atsedeen gune hauen mugaketa, «Ekipamenduak» 0-5 eta «Sare Berdea» O-6 Antolakuntza Planoetan jasotzen da.

37. artikulua.- Natur Ibilbideak.

1.- Indarrean dagoen Plan Partzial honen arabera, «Ibilbide Naturalistikoak», existitzen diren aisialdi eremuen eta LPP-ak proposatzen dituenen antean dauden lotura-elementu multzoa da. Elementu hauen bidez, Aisialdi eremu ezberdinak elkar komunikatzeko ibilbide aldizkakoak eratzen dira edo, eremu hauetan barneratu eta ibiltzeko ere balio dezakete.

2.- Garraio erari dagokionez, Ibilbide Naturalistikoak, oinezkoentzako ibilbide eta bizikletentzako edo zaldizko ibilbideetan banatzen dira, hauen sarrera posible izan dadin, errepideetako eta bideetako seinalizazioa kaltetu gabe.

3.- LPP-etik ibilbide naturalistikoen proposamena, «Sare Berdea», AE-10 Jarduera Egituratzailan eta «Kadaguako Ibai-Parkea» OE-07 eta «Ingurugiro Landa-Parkea» OE-01 Operazio Estrategikoetan zehaztu da, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta estrategi egiteak» agertzen dena.

4.- Enkarteritik zeharkatzen duen Galtzada Erromatarra bezalako aktiboa babesteko, babes berezirik ez duena, ez baita azterketa zehatzik egin bere ibilbidea aztertzeko, LPPk kautelaz ezarriko du Euskal Kulturako Ondareari buruzko 7/1990 Legea (45.5 artikulua). Horrenbestez, osagai horretan eragina izan dezaketen obrak egin aurretik, proiektu arkeologikoa aurkeztu beharko zaio Bizkaiko Foru Aldundiari onespena eman diezaion.

38. artikulua.- Interes Guneak.

1.- Egungo Lurralde Plan Partzialaren arabera, Interes Guneak, Sare Berdeak integratutako sistemaren elementu puntualak dira, beren ingurune, zientzia, kultura edo antzeko balioen arabera. Hauen artean LPP-ean garrantzitsuenak, Kadaguako korridoretik doazen bide berdeetan, Bilbao-La Robla antzinako trenbidearen ibilbide birmoldaketa, eta unitate didaktikoen edo Natura Interpretazio Guneen kokapena, Lurralde Antolakuntzaren Arauetan (LAA), Lurralderako Sarrera Guneak (LSG) izendatutakoetan aurkitzen dira.

2.- Balmaseda-Zalla (Enkarterri) eremuan, LPP-ean proposatutako Naturaren Interpretazio Guneen gutxi gora beherako kokapena, «Ekipamenduak» 0-5 eta «Sare Berdea» O-6 Antolakuntza Planoetan irudikatua azaltzen da.

LAUGARREN TITULUA ESTABLIMENDU SISTEMAK

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

39. artikulua.- Establimenduen antolakuntzaren irizpide eta helburu orokorrak.

1.- LPP-aren helburu orokorren arabera, Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Alderdi Funtzionaleko establimenduen antolakuntzaren helburuan, ondoko hauek dira:

- a) Ekonomiaren dibertsifikazioa, hau sektore berrietara irekiz eta globalizazio testuinguru berriaren aldaketa eta eskaerak betetzeko prestatuz. Era berean, populazioaren eta egungo paisaiaren mantenurako elementu gisa, Nekazaritza eta Abeltzaintza sektorea sendotu behar da.
- b) Eremuko mugikortasun jasangarriko errealitate ezberdin eta egungo zoruen kapazitatearekin bat datozen, egoitza zoru eta jarduera ekonomikoetarako eskaintza egoki bat sortzea. Gainera, eremu honek ondoko lurraldeetako populazioari eskaini diezaiokeen, bigarren bizileku baterako potentzial eta erakargarritasuna aprobeztatu behar da.
- c) Berdentsifikazio politikak eta erabilera nahasketak indartu, egoitza zoruak zerbitzuekin bateragarri eginaz edo jarduera tertziarioak, hiri-guneak eta udalerrien arteko jarduera saihestuz, eraikita dagoenari balioa emanaz. Proposamen honen bidez, zorua artifizializazioa saihestu eta bizilekuaren erabilerarekin bat datozen jardueren bidez, industria-zoruen okupazioa saihestu nahi da.
- d) Enkarterriak (Karrantza Harana, Trucios-Turtzioz eta Artzentales) mendebalderago dauden guneetan babes neurriak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak ezartzea, ingurune hau bere egungo kontserbazio egoeran babesteko. Espazioaren eta beraz bere paisaiaren aberastasun eta bioaniztasuna, giza laboreak eta landa ingurunean gizakiaren lanak osatzen du. Horregatik lehen sektorea bizimodu gisa, kontserbatu, faboratu eta potentziatu egin behar da, are gehiago, zahartzea eta populazio gutxitzea hain nabarmenak diren eremu hauetan.

2.- Eremu Funtzionalean emango diren garapen planeamendu eta lurralde naturako interbentzioek, aurreko helburuak izango dituzte.

40. artikulua.- Establimendu antolaketaren helburu bereziak.

Aurreko Artikuluan finkatutako helburu orokorren betetzea, LPP-eko helburu berezietan edo antolakuntza estrategietan zehazten da, garrantzitsuenak ondokoak direlarik:

- a) Gaitasun handiko garraioetatik gertu dauden guneetan, trenbidea; bai Kadaguako bailaran eta baita Artzentales eta Karrantza Harana bezalako udalerrietan ere, bizileku hazkuntza indartu eta kontzentratu.

- b) Izatedun hiri-trama osatzen duten egoitza hazkuntzak faboratu, populazioa eta zerbitzuak bilduz.
- c) Erabilgarri izan daitezkeen zoru batzuk malda handiak edo urpetze arriskudunak izan daitezkeenez, landa-guneak potentziatu, urbanizatzeko egoki den lurzoru gutxi duten udalerrietan. Karrantza Harana eta Trucios-Turtzioz aurkitzen dira hauen artean.
- d) Eremu Funtzional honetan, oso sakabanatua dagoen jarduera ekonomikoa kontzentratu eta antolatzeko, Industria lokalizazioak, komunikabide nagusietara gerturatzea. Horregatik, bai Kadaguako korridorea eta Malabrigoko gunea, eta baita, BI-2701 errepideak osatzen duen ardatza, Ezkerreko Margenetik Enkarterrietara bigarren sarrera osatzen duena ere sustatzen dira.
- e) Sektore tertziarioaren garapena bai (Balmaseda eta Zalla) burukoetan eta baita (Gueñes e Sopena) azpi-burukoetan ere.
- f) Berdentsifikazio politikak eta erabilera nahasketak faboratu, egoitza zoruak, zerbitzu edo jarduera tertziarioekin bateragarri eginez, jada eraikia dagoenari balioa emanaz, bizia emanaz eta hiri-guneak eta udalerriz ezberdinetako jarduera indartzeko era bat bezala. Proposamen honen bidez, zoruaren artifizializazioa eta industria zoruen okupazioa saihestu nahi da, bizileku erabilerarekin bat datozen jarduerak indartzuz.
- g) Eremu funtzionalean garapen ekonomikoa oreka dezaketen gutxietsitako eremuetan, Jarduera dinamizatzen duten elementuen ezarpena ahalbidetu. Adibidez, Sopena, Artzentales eta Karrantza Haranean, Sustapen ekonomikoko dimentsioa eta garapen nekazaritza, abeltzaintza eta enpresariala duten ekipamendu handien ezarpena.

41. artikulua.- Hiri sailkapen.

Kokalekuak, Eremu Funtzionalean ezartzen zaien funtzioaren arabera hierarkizatzen dira. Aurreikusitako egitura, establimenduen sistemaren ikuspuntutik, sistema polinuklear bat da, lau maila dituena:

1. Maila: Burukoak, maila honetan aurkitzen dira:

- Balmaseda.
- Zalla.

2. Maila: Azpiburukoak, maila honetan aurkitzen dira:

- Gueñes (Gueñes eta Sodupe).
- Sopena.

3. Maila: Gune Printzipalak, maila honetan aurkitzen dira:

- Artzentales (Traslaviña eta San Miguel de Linares).
- Galdames.
- Karrantza Harana (Concha eta Ambasaguas).
- Trucios-Turtzioz.
- Lanestosa.
- Gordexola (Molinar).

4. Maila: Gune Sekundarioak, maila honetan, eremuko beste gune guziak aurkitzen dira.

II KAPITULUA ESKU-HARTZE MODUAK

I. ATALA ESKU-HARTZE MODUEN ARTEKO ERLAZIOA

42. artikulua.- Esku-hartze moduak.

1.- Lurralde Plan Partzialak, hirigune garatu izatedunetan oinarritutako garapena proposatzen du eta egungo eszenategiari, Lurralde Planaren berezko esku-hartze modu batzuk gainjartzen dizkion oinarritzko zonifikazio bat ezartzen dio.

2.- Hirigune sistema honen okupazio moduen artean, honako hauek ezberdintzen dira:

- a) Hiri-eremu garatuak: Okupatutako zorua (urbano eta urbanizagarria).
- b) Garapen berriko lehentasunezko eremuak: hiri-eremu garatu izatedunen handitzeak, hauen artean, ondokoak ezberdintzen direlarik:
 - Garapen Bizilekuak: Oinarritzko bizileku erabilera izango dutenak, dentsitate handi-ertaineko garapen eta dentsitate ertaineko garapenen artean desberdinduz.
 - Jarduera ekonomikoen garapenak.
 - Ekipamendu handiak: Beren ekipamendu izaerari, jarduera ekonomikoak sortu eta garatzeko aukera lotzen dioten tamaina handiko hornidurak.

3.- Aurrekoa kontutan hartuz, esku-hartze moduak bi taldetan banatzen dira:

- a) Existitzen diren establimenduetan, esku-hartze moduak: Udal planeamenduan dauden hiri-eremuetan eragiten duten Lurralde Planaren proposamenak dira (gune izatedunak eta zoru garatu urbanizagarriak edo garatzear daudenak).
- b) Garapen berriko lehentasunezko eremuetan esku-hartze moduak: hedagarriak diren eremu berriak definitzen dituzten Lurralde Planeko proposamenak dira.

II. ATALA

ESTABLIMENDU EXISTENTEAK

43. artikulua.- Esku-hartze moduak.

Establimentu izatedunen gain, bost esku-hartze modu proposatzen ditu Lurralde Planak:

- a) Berdentsifikazioa.
- b) Eraikitako ondarearen gain jarduerak.
- c) Birmoldaketa.
- d) Leheneratzea.
- e) Berdentsifikagarriak diren erakundeak.

44. artikulua.- Berdentsifikazioa.

Udal planeamendu orokorrak mugatzen dituen egoitza izaerako zorueta parametroen modifikaziorako, esku-hartze modua. Hektarea bakoitzeko, dagoen bizileku dentsitatea edo erabilpen intentsitatea txikiegia dela uste denean, eta ondorioz, establimentu eskaera ez dela betetzen edo zoru baliabidearen erabilera ez dela optimizatzen. Duten dentsitate txikiagatik, garraio publikoko azpiegituren eragin soziala mugatzea eta ibilgailu pribatuaren erabilera bultzatzen duen bizimodua duten zorueta pentsatua dago neurri hau eta garraio publikoetatik gertu dauden zorueta (batez ere tren geltokiak) aplikatuko da.

45. artikulua.- Eraikitako ondarearen gaineko jarduerak.

Existitzen den eraikuntzaren gain jarduerak aurrera eramateko modua, besteak beste, bizileku hutsetan, indarrean dagoen legedipean eta bizileku hauek etxebizitzaren eskaintza erreal eta zenbagarriaren barruan sar daitezkeen bultzatuz.

Zentzu honetan, garrantzidun arkitektura ondarearen babesa eta bere balio kulturalak babestuko dituen ekintzen bitartezko eskuhartzeak, lehenasuna izan behar dute berreskurapen eta errehabilitazio politikan, beti ere, kultura ondarean indarrean dagoen sektore legediarekin bat etorritik.

46. artikulua.- Birmoldaketa.

1.- Itxura hobekuntzarako eta paisai industrialaren egokipena suposatzen duten proposamenak dira, integratuta daudeneko hiriguneari egokitu beharra duten espazioetan.

2.- LPP-ak grafikoki jasotzen dituen, eta esku-hartze modu honek eragiten dituen zoru eremuetan, egungo itxura aldatu egin beharko da, ondoko helburuak jarraituz:

- Finkatutako zoru okupatuen hobekuntza.
- Zaharkitutako eremu industrialen birmoldaketa.

- Tipologia berriak sartzeko egokiak diren izaera industrialeko okupatu gabeko zoruen garapena. Zoru hauen oinarritzko ezaugarriak izango dira, ingurugiro atsegina izatea, eraikitako espazioen erakargarritasuna eta faktore kualitatiboak, faktore kuantitatiboen gainetik nabarmentzea.
- Azterketa eta bere balio historiko, teknologiko eta ikonografikoengatik erreferentzi eta itutzat erabili behar ditugun elementuen aukeraketa zorrotzaren bitartez, industri ondarea osatzen duten elementuen babesa, beti ere, kultura ondarean indarrean dagoen sektore legediarekin bat etorritz.

3.- LPP-ean espresuki esku-hartze modu hau aurrera eramateko aurreikusi ez diren udalerriek, zoru bat, eraberritzeko beharra duen espaziotzat hartzen dutenean, helburu berdinak jarraituz, ekintzei ekin diezaiokete. Jarduera Ekonomikoen PTS-k «Lehentasuneko intereseko»-tzat hartzen dituen udalerrietan ere, esku-hartze modu hau aplikatzea gomendatzen da.

47. artikulua.- Leheneratzea.

LPP-ak bere esku-hartze formulen artean, udal planeamenduak sailkatutako zoruen ingurune naturala leheneratzea planteatzen du.

Funtsezkoa da, udal planeamenduak bere berrikuspenean, ahalegina egin dezan eta kudeatu ez diren zoruak eta kudeaketa zailekoak eta sakabanatuak edo gaizki ezarriak daudenak, urperagarriak diren zoruak, etab., sailkapenetik kanpo utz ditzan. Ekimen honen helburua, planeamenduak, bideragarriak diren proposamenei egokitzea da, beren ezaugarriak direla eta, itxaropen faltsuak sortzen dituzten zoruen identifikazioa saihestuz.

48. artikulua.- Erakunde berdentsifikagarriak.

1.- Mendiguneetarako pentsatua dagoen esku-hartze modua. Gune hauetan biztanleriaren sostengua landa-guneetan oinarritzen da batez ere eta ezin izan da identifikatu zoru urbano edo urbanizagarrien zabalkunde eremurik, ibarren baldintza orografikoen ondorioz, malda handiko lurzorua baitira, eta dagoen hirigintzako bilbeak, errekek eta beste osagai batzuek dena baldintzatzen baitute.

2.- Hortaz, berriz trinkotzeko moduko erakundearen kontzeptua azaltzen da, arazo zehatz hori tartean dagoelako, eta hiri-lurzorua ondoan dauden guneei baizik ez zaie ezarriko.

III. ATALA

GARAPEN BERRIKO LEHENTASUNENKO EREMUAK

49. artikulua.- Esku-hartze moduak.

Garapeneko lehentasuneko eremu berrien gain eragingo duen esku-hartze modu gisa, proposatutako Lurralde Ereduarekin bat datozen erabilera eta eraikigarritasunarekin erlazionatutako eremuak definitzen ditu Lurralde Planak:

- a) Egoitza garapena.
- b) Jarduera ekonomikoen garapena.
- c) Ekipamendu handien garapena.

50. artikulua.- Egoitzen garapena.

1.- Bizileku zorurako espazio berriak dira, beren lehentasunezko dentsitatearen arabera, bi eratakoak desberdintzen direlarik:

Dentsitate ertain-altua: hektarea bakoitzeko berrogeita hamar (50) etxebizitza edo gehiagoko dentsitatea da. Zoru metro karratu bakoitzeko, 0,5 metro karratu teilatu edo gehiago eta zoru metro karratu bakoitzeko 0,7 metro karratu teilatu edo gutxiagoko eraikigarritasun gordinaren baliokidetasuna da.

Dentsitate ertaina: hektarea bakoitzeko berrogeita hamar (50) etxebizitza baino gutxiagoko eta Zoru eta Urbanismoari buruzko 2/2006 Legeak baimentzen duen gutxiengoarena baino handiagoa edo berdina den dentsitatea da. Zoru metro karratu bakoitzeko, 0,5 metro karratu teilatu baino gutxiago eta Legeak baimendutako gutxiengoa baino handiagoa edo berdina den eraikigarritasun gordinaren baliokidetasuna da.

2.- Dentsitate parametroa (etxebizitzak/hektarea edo etx/ha.) eraikitako ehun (100) metro karratuko etxebizitza bati dagokiona da.

51. artikulua.- Jarduera ekonomikoen garapena.

Antzemandako ahultasunei edo indarraldi eta aukerak aprobetxatzen dituzten garapen politikei erantzuteko proposatzen den Lurralde Ereduarekin bat datozen jarduera batzuez hornitzeko borondate estrategiko bati erantzuten diote.

52. artikulua.- Ekipamendu nagusien garapena.

Jarduera ekonomikoari oso lotuak dauden hornidura proposamenak dira eta beren helburua jarduera eta proiektuak sortzea da, ekimen pribatuak bultzatuz.

IV. ATALA

ZEHAZKI DEFINITUTAKO EREMUETATIK KANPO DAUDEN HAZIPEN BERRIAK ANTOLATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

53. artikulua.- Baldintza bereziak.

1.- Salbuespen gisa, espresuki horretarako mugatutako eremuetatik kanpo edo garapen berriko lehentasunezko eremuetan, hiri garapen berriak onartu ahal izango dira.

2.- Testuinguru honetan, udal planeamenduak, dokumentu honetan kontutan hartzen ez diren jarduera ekonomikoetako establimendu berrietara zuzendutako eta bizileku jarduerak dituzten gune orokorrak mugatu ahal izango ditu, eta modu zehatzean arrazoitu beharko du jarduera, bere interes sozialean eta LPP-ean diseinatutako lurralde modeloarekin duen harremanean oinarrituz eta sortu litzakeen lurralde inpaktuen ikerketa paralelo bat eginez.

3.- Garapen berrien antolakuntzarako LPP-ak, espresuki horretarako mugatutako eremuetatik kanpo eta horregatik LPP-aren modifikazio puntual bezala ulertzen ez direlarik, ondoko baldintza bereziak xedatzen ditu:

- a) Hiri-gune baten hazkunde natural bezala ulertzen diren entitate txikiko hazkundeak, osatu gabeko hiri-tramak osatuz, hala nola, uztai ezberdinak, gune berdeetako uztaiak, muga orografikoak, etab. Ez dute hiri-gunearen berraztertze orokor bat suposatu behar, proposamen guztian eragin ez dezaten, modu puntual eta isolatu batean baizik.
- b) Aurretik existitzen diren guneetan oinarritzen diren hiri-hazkundeak, eta zuzenean eta berehala gune hauekin harremana dutenak, beti ere era egoki eta nahikoan bere beharra eta aukera arrazoitzea beharrezko izanik.
- c) Kadagua ibaiaren urperatze orbanek eragindako Eremu Funtzionaleko eremuak eta beren Bideratze plana LPP-aren ostean idatzia izan denean. Orban hauek, hiri-gune bertan kokatutako orbanak diren guztietan eta hiri-traman hutsuneak edo zirrikituak sortzen badituzte, hiri planeamenduak, gunearen hazkunde natural gisa onar ditzake eremu hauek.
- d) Momentuko irizpidearekin bat datorren udal planeamenduak proposatzen dituen bizileku zoru berriek, ez dute suposatuko eratutako bizileku kuantifikazioaren gehitze bat ezta, proposatutako bizileku zoruko okupazioaren hedaduraren handiagotzea.
- e) Momentuko irizpidearekin bat datorren udal planeamenduak proposatutako jarduera ekonomikoetara zuzenduak dauden zoru berriak, gehienbat, Hiri leheneratze operazioen esparruan faboratutako ehun industrialak zaharkituen transformazio-jarduerei erantzun aldizkako bat emateko helburuarekin bakarrik mugatu ahal izango dira.

III. KAPITULUA BIZITOKI ZORUA

I. ATALA

IZATEDUN DIREN ESTABLIMENDUETAN INTERBENTZIOAK

54. artikulua.- Berdentsifikazioa.

1.- LPP-aren helburuetako bat, orokorrean udalerrri guzietan berdentsifikazio politikak eta erabileren nahasketa indartzea da. Helburu honen bidez, zoru egoitzak, zerbitzuak edo jarduera tertziarioekin bateragarri egiten dira, momentuan eraikia dagoenari balioa emanaz eta hiri-guneak eta udalerrien arteko jarduerak suspertuz. Proposamen honekin, zoruaren artifizializazioa eta zoru industrialen okupazioa saihestu nahi da bizileku erabilerarekin bat datozen jarduerekin.

2.- Balmasedako kasu zehatzean, udalerrri honek duen lurralde kapazitate txikia dela eta, hirigunearen berdentsifikazioa beharrezkoa da. Proposatutako Lurralde Ereduan, Eremu Funtzionaleko burukoetako bat bezala betetzen duen paperagatik, bizilekuen hazkuntza garrantzitsua du, alde batetik berdentsifikazio politiken bidez eta bestetik jada sailkatuak dauden zoruak osatuz gauzatu behar duena.

55. artikulua.- Eraikitako ondarean jarduerak.

1.- LPP-ak birgaitze politika indartzea eta eraikitako bizileku izatedunen berreskurapena beharrezko ikusten du, beste esku-hartze moduen gainera, eraikitako ondarea lehentasunez optimizatzea

nahitaezkoa delarik. Honen helburua bikoitza da, nekazal-zoruak diren zoru berrien kontsumoa gutxitzea eta etxebizitza eskaintza zabaltzea, bizileku bezala erabilgarri diren eraikuntza izatedunak sartuz.

2.- Eraikitako ondarearen optimizazioa, funtsean hiru jarduera lerrotan oinarrituko litzateke:

- Etxebizitza hutsen gaineko esku-hartzea.
- Birgaitzea indartzea.
- Egungo eskaerekin baterago dauden modulueta tipologiaren egokitzapena, urbanizagarria ez den zorueta dauden eraikinak salbuespen direlarik.

Aipatutako aspektuen kudeaketa konplexutasunagatik eta oinarrian udal administrazio eremuari dagokionez, beharrezkoa da udaletxeek hausnarketa bat egitea, esku-hartze hau aurrera eman dadin behar diren neurriak hartzeko.

Bizileku hutsaren kasuan, udaletxeek aipatutako politika indartzeko neurriak hartu behar dituzte, zorua bezain preziatua den ondarearen kontsumoaren gehiagotzea saihestuz. Udal planeamendua edo Eusko Jaurlaritzaren «Bizigune» bezalako beste tresnak, bizileku eraikien ekimen eta errebultsiboak dira, eraikitako ondarearen ikusmoldearen joera aldatzeko.

3.- LZP-tik, beharrezkotzat hartzen da Udaletxeen parte-hartzea, eraikinetako baxuak etxebizitza bezala erabiltzeko joerari dagokionean, erabilpen erregulazio hauek toki-administrazioetik aboratu daitezkeela kontutan hartuz. Aitzitik, proposamenak bere baitan esan nahi duenari buruz, uste da, hausnarketa honek, Jarduera Ekonomikoari buruzko kontsiderazioarekin bat joan behar duela. Izan ere, beharrezkoa da Jarduera ekonomikoaren ehuneko bat, erabilera komertzialetako ez ezik, edonolako jarduera tertziario ekonomikoetarako, zerbitzuetaarako edo etxebizitzekin bat datorren industriarako ere izatea. Zentzu honetan, gutxienez, eremuaren ehuneko hamabosta (% 15), jarduera ekonomiko osagarrien kokapenerako utzi behar da.

4.- Landa ingurunean dauden baserriei dagokionez (2/2006 Zorua Legeari eta bere Dekretu garapeneraren arabera) posible izango da landa-gunean dauden baserriak hainbat etxebizitzatan zatitzea. Horretarako, LZP-k ezarritako hurrengo baldintzak eta indarreko legeriak xedatutakoa bete beharko da.

- Banaketaren ondorioz eraikitako etxeen tamaina eraikia, ez da izango laurogeita hamar metro (90 m) karratukoa baino txikiagoa.
- Ez da barnealdeko etxebizitzarik onartuko.
- Etxebizitzek, kanpora zuzendutako espazio edo espazio publiko aske edo pribatua izanik, kanpoaldera zuzenduak dauden espazioetara ematen duten lau gela gutxienez izan beharko dituzte.
- 20/1997 Legeak eta bera garatzen duten dekretuek irisgarritasuna sustatzeko finkatu dituzten baldintzak bete beharko dira.

Landa-guneetako eraikinak hainbat etxebizitzatan banatu ahal izango dira, bai eta, bereizi gabe, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak eta lege hori garatzeko premiazko neurriak finkatzen dituen 105/2008 Dekretuak zehazten dituzten baserriak ere.

Katalogatutako baserriei dagokienez, zatiketa egitean, Euskal Kulturako Ondareari buruzko 7/1990 Legeak kalifikatu edo inbentariatutako kultura-ondasunak babesteko ezarri duen araubidea bete beharko da.

Katalogatutako eraikina hainbat etxebizitzatan zatitu ahal izateko, aurrez, eraberritu beharko da. Eraberritze-lanak osorik egingo dira, hala proiektua idaztean, nola lana betearaztean, eta eraberritzeko proiektuan argi zehaztu beharko da baserria hainbat etxebizitzatan zatitzeak duen emaitza.

Udal planeamenduak garatuko ditu baldintzak eta proposamen hauen zenbaterainoko zehatza, ekarpen hau, etxebizitza eskaintzan aplikatzeko eta zoru berrien okupazioa eusteko asmoz.

56. artikulua.- Leheneratze lanak.

LZP-k, nahitaez leheneratu beharreko zoruak seinatu ditu, LPP-ak berak, modu zehatzean esku-hartze hau aurreikusi ez den udalerriek, leheneratzea beharrezkoa dela uste duten espazioetan, helburu berdinak jarraituz, jarduerak egin ditzatela eragotzi gabe.

- **Zalla (B-6 sektorea Otxaran):** udal planteamenduaren berrikuspenaren bidez, egoitza zoru hau sailkapenetik kanporatzea gomendatzen da, gaizki ezarria aurkitzen delako, zoru honen artifizializazioa saihestuz. Bere azalera 4,78 hektareatakoa dela estimatzen da.

57. artikulua.- Erakunde berdentsifikagarriak.

1.- Lurraldearen ikuspuntutik eta izaera loteslearekin, erakunde berdentsifikagarri bezala izendatzen ditugun eta hazkunde berriak jasateko egokienak diren guneak, hauek dira: hirigunearen ondoan dauden bi guneak, Soscaño eta La Tejera (Karrantza Harana). Gune horietako zati garrantzitsu bat sartuko da eta berriz trinkotuko da, Concha-Ambasaguas hirigunearen ondoan hazkunde jarraitua sortzeko.

2.- LZP honetan proposatutako Lurralde Ereduaren arabera, hiri planeamenduak, erakunde berdentsifikagarri bezala ulertzen diren landa-guneetako hirigune aldameneko eta ondoko zatia, lurzoru urbano gisa sailkatzea bakarrik posible egin dezakete, 2/2006 Legeko Garapenari buruzko ekainak 3ko 105/2008 Dekretuko xedatutakoaren arabera. Proposamen hau, «Hazkunde selektiboa landa-guneetan» OE-08 operazio estrategikoan azaltzen da, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta strategi egiteak» agertzen dena.

3.- Esku hartzeko egin den proposamenari jarraiki, Udalak ondo aztertu behar du Concha-Ambasaguas hirigunearen ondoan dauden bi gune horien zati bat hiri-lurzoru bihurtzeko dagoen aukera, eta, horretarako, oinarri hauek hartu beharko ditu kontuan:

- Concha-Ambasaguas guneak hazteko duen gaitasuna; hori jakiteko, gunearen ondoan dauden eta egokiak eta baliagarriak diren lurzoruak aztertu beharko dira.
- Eskatutako azalera doitu beharko da, behar-beharrezkoa den horretara mugatuta.

- Eraldatze-prozesua ondo jasateko egokiak diren azpiegiturak.
- Hazkundera murriztu dezakeen muga geografikorik ba ote den.
- Sortzen den hiri-egiturak jarraipena eman beharko dio hiri-bilbeari.

II. ATALA GARAPEN BERRIAK

58. artikulua.- Definizioa.

LPP-ko Lurralde Ereduak, jarduera ekonomikoen eta etxebizitzaren berroreka batengatik apustu egiten du, bizileku erabilera orokorreko garapen berri guztiek, ehuneko hamabost (% 15) erreserba bat izan dezaten, jarduera ekonomiko osagarrien kokapenerako; hala nola, komertzio txikiak, bulegoak, tailerrak, etxebizitzekin bat datorren industria eta edonolako erabilera hornitzaileak, asistentzialak edo soziokulturalak. Honela, eremu hauetan, bizileku berria eta lanaren arteko oreka bat bilatu nahi da.

59. artikulua.- Dentsitate ertain-altuetan, bizitokiaren garapena.

1.- Dentsitate handiko eskaintza, zoru gutxiko gunetara edo aldiriko tren geltokietatik gertu dauden eremuetara zuzendua dago, populazioaren gehiengoak, garraiobide kolektibo publikoetara irisgarritasun azkarra izan dezan.

2.- Ondoko garapenak proposatu dira:

- **Balmaseda (La Calzada):** egungo gunearen hazpena, Kadaguako korridorea eta hiri-hazkunde izatedunen artean, esparru honetan dagoen harizti azidofilo baten iraupena ziurtatuko duten neurri zehatzak ezarriz.
- **Zalla (Mimetiz):** Gunearen hazpena, Carmengo triangelutik hegoalderantz eta Mendietatik hasi eta Gallardiko gunetik mendebalderantz.
- **Gueñes (La Costanilla-La Sier):** hirigunearen hazpena, Gueñesetik trenbidearen trazaruntz, bi hiri-tramak lotuz.

60. artikulua.- Dentsitate ertainetako, bizilekuen garapena.

1.- Dentsitate ertainetako eskaintza orokorrean, hurbileko garraio publikorik ez duten gunek edo beren orografiagatik eta ingurune ezaugarriengatik, mugatuak dauden gunetara zuzendua dago.

2.- Ondoko garapenak proposatu dira:

- **Lanestosa (Lanestosa Iparra):** Lanestosako gunearen hazpena bere iparreko hegalean, errepidea eta ibaiaren artean.
- **Artzentales (Traslaviña):** Momentuko hiri-gunearen hazpena, bi sektoreetan mendebalderantz.

Ekintza honen garapenarengatik aliseda kantabriar (91E0 habitata) bat eragindua sortu daitekeenez, bere babespena ziurtatzeko beharrezko diren neurriak artikulatu beharko dira.

- **Sopuerta (Los Cotarros Mendebaldea):** El Cruceroko gunearen hegoaldeko hazpena, errepideko mendebaldean, Cotarroseko landa-gunearekin, hiri-jarraipen bat sortu arte.
- **Sopuerta (Los Cotarros Ekialdea):** El Cruceroko gunearen hegoaldeko hazpena, errepideko ekialdean, Cotarroseko landa-gunearekin eta Capetillo auzoarekin hiri-jarraipen bat sortu arte Hirigintza-arloan hazkunde egokia lortzeko, komenigarria da Iberdrolak Los Cotarros auzoan duen azpiestazio elektrikoa tokiz aldatzea, eta San Martin de Carral auzotik gertu jartzea, bertan dagoen goi-tentsioko linearen ibilbideari jarraiki.
- **Galdames (San Pedro):** Momentuko hiri-gunearen hazpena, bi sektoreetan, bata ipar-ekialdean eta bestea hego-ekialdean kokatuak. EAEko paisai bakan eta nabarien katalogoaren aurretikostenean agertzen den «235 Galdames» arroiari dagokion proposamena denez, paisaiarekiko eragina aztertu eta egin beharreko zaharberitze proiektua definituko duen bere garapenerako paisai azterketa zorrotz bat egin beharko da, dagoen legedi sektoriala errespetatuz.
- **Gueñes (La Cuadra):** gune altuan La Cuadra gunearen hazkuntza, trenbidearen geltoki berria gune horretan egitea espero delako, esparru honetan dagoen harizti azidofilo baten iraupena ziurtatuko duten neurri zehatzak ezarriz.
- **Gueñes (La Sier):** La Siereko auzoan, hegalean, hazkuntza, familia bakarreko etxebizitza ugari gune baten ondoan.
- **Gueñes (Sodupe-Etxebarria):** Sodupeko gunearen hazkuntza Etxebarriako auzoan. Momentuko San Migueleko zoru urbanizagarriko sektorearekin bat dator.
- **Gordexola (Sandamendi-Ligorria):** Molinareko hiri-gunearen hazkuntza Sandamendi eta Ligorria auzoen artean, errepidearen Iparraldean.
- **Gordexola (Ibarra):** Hego-mendebalderantz, Molinareko gunearen hazkuntza, Ibarra landa-gunearekin hiri-jarraipen bat eginez.
- **Gordexola (Oxirando):** Oxirando-ko landa-gunearen hazkuntza, hegoalderantz.
- **Zalla (Gallardi):** Mendietako gunearen hazkuntza Gallardiko gunetik hegoalderantz, Mimetizeko dentsitate ertain-altuko bizileku garapenerako gunearen ondoren, LPP-ak proposatutakoa.
- **Zalla (Aretxaga):** Aretxagako gunearen ekialdean, bizileku garapena.

3.- LPP-ko Lurralde Ereduak ezegoki eta bateraezin bezala ulertzen du, orografia malkartsuagatik eta ibaia bertan dagoelako, Zallako udalerritik Balmasedako ekialderantz bizileku garapen bat egitea.

III. ATALA

BIZILEKU ZORU ETA BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZA ESKAINTZEN KUANTIFIKAZIOA.

61. artikulua.- Irizpideak eta aplikazio balioak.

1.- Egoitza kuantifikazioaren kalkulu prozesuak ondoko oinarriko irizpideak jarraitzen ditu:

2011ko azaroaren 25a, ostirala

- a) Espazio geografiko baten errealitate demografiko, ekonomiko, hiritar eta lurzoruaren errealitate aldakorra dela eta, kalkulu honek nahiko malgua izan behar du.
- b) Udalerri bakoitzeko etxebizitza kopuruaren gehiengo eta gutxienekoen mugak kontutan edukitzea, indarrean dagoen Lurralde Ereduan, gainditu/aldatu/hobetzeko ulertuak dauden aspektuak azpimarratzeko.
- c) LAI-en zehaztapenetatik datozen egoitza kuantifikazioa, lurraldearen onespen gaitasuna eta udalerrriaren hiri-egituraren inplikazioetara egokitu.
- d) Babes Publikoko Etxebizitzei dagokienez, Zoru eta Urbanismoari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko xedapenak kontutan hartzen baditugu, 82.Artikuluan, Babes Publikoko erregimen mota bati lotutako etxebizitzaren erreserba egitera behartuta dauden Udalerriak, xedatzen du, 3.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek eta zoru urbano jarraituen guneak dituzten 2.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek, zoruaren erreserba bat egin behar dutela.

2.- Balmaseda-Zallako Eremu Funtzionalaren arabera eta aurreko irizpideak kontutan hartuz, babes publikoko erregimeneko etxebizitzentzako zorua erreserbatzera behartuta dauden udalerrri edo hiri-guneak hauek dira:

- Balmaseda.
- Gueñes.
- Zalla.

Ondorengo taulan, udal hauetan aurreikusiak dauden egoitz garapen berriak eta beraz, dagoen legedi sektorialarekin bat datorren babes publikoko arau baten menpe egongo diren egoitzentzako lurzoru zati bat gordetzera behartuta dauden gainazalak zenbatekotzen dira.

BABES PUBLIKOKO EDOZEIN ARAUREN MENPE DAUDEN EGOITZENTZAKO ERRESERBENGATIK AFEKTATURIKO EGOITZ GARAPEN BERRIEN GAINAZALEN ZENBATEKOTZEA.

	Egoitz garapenak (dentsitate altua)	Egoitz garapenak (erdi dentsitatea)	Guztira (Hak)
BALMASEDA	7,25	0	7,25
GÜEÑES	6,02	25,30	31,32
ZALLA	18,29	23,89	42,18
GUZTIRA	31,56	49,19	80,75

3.- Sopusertako udalerrria, 2.245 biztanle dituena, gaur egun ez da hiri-gune jarrai bat, horregatik aurreko irizpidetik kanpo geratzen da. Hala ere, LPP-ak gune hau indartu nahi du, Sopuserta, Eremu Funtzionalako azpi-buru batean bihurtuz. Ondorio bezala, populazioaren hazkunde nabarmena planteatzen da, Mercadillo eta La Balugaren arteko hiri-jarraipenean gauzatu behar dena. Horregatik, proposamen osagarri bezala, udal planeamenduan, edonolako babes publikoko erregimeneko etxebizitzentzako zoru erreserba azaltzea edo, Sustapen misto bat eginez, Alokairuko Etxebizitza

Sozial Babestua eta Jabetzeko Etxebizitza Babestuentzako zoruaren erreserba azaltzea, beharrezko ikusten da.

4.- Honela, planeamendu orokorrean definitu beharreko, udalerrri bakoitzeko etxebizitzaren zenbatekoaren kuantifikazioa, balio urkila bati egokituko zaio:

Planeamenduko bizileku ahalmenaren gehiengo balioa: Planeamenduari ematen zaion balioa, zoruaren gehiegizko neurketa bat dela eta, garapen urbanistiko nahasiak eman ez daitezten.

Planeamenduko bizileku ahalmenaren gutxieneko balioa: Planeamenduari ematen zaion balioa, neurtutako zoruaren urritasuna saihesteko.

Lurralde Plan Partzialaren indarraldi luzea dela eta, gehiengo eta gutxieneko balioen arteko tartea, planeamenduaren berrikuspenera idazteko garaian udalerritik ateratzen diren datu estatistikoen arabera aplikatuko da.

62. artikulua.- Bizileku zoruaren proposamena. Osagaiak.

1.- Udalerrri bakoitzean, hiri zoruaren bizileku ahalmena, urbanizagarri sektorizatua den zorua edo landa-guneen kalkulua errazteko egiten den bizilekuaren behararen kuantifikazioa, bost faktore edo osagaien ikerketan oinarritzen da:

C1 osagaia (Lurralde Ereduaren partaidetza edo inplikazioa). Lurralde Plan Partzialak definitzen ditu, Lurralde Ereduak etxebizitzaren parke hazkuntzan duen partaidetza eta Bilbo Metropolitanoko LAI eta LPP-en xedapenak kontutan hartuz. Eskualdeetako burukoaren erdigune izaera indartzeko joera duten lurralde berronkarako estrategietan oinarritua dagoen hazkunde selektiboa aipatzen dute inplikazio hauek.

Eratutako hierarkian oinarrituz, Balmaseda, Gueñes eta Zallako udalerrriak planteatzen dira eta udalerrriko gune ezberdinen arteko hirietako barne-loturen proposamenagatik ematen den barrutiaren haziera dela eta, Sopuerta ere planteatzen da. C1-erako ezarritako zenbaki balioak:

- Balmaseda: 100.
- Gueñes: 100.
- Sopuerta: 100.
- Zalla: 200.

C2 osagaia (Hazkuntza demografikoa). Eboluzio demografikoaren arabera aurreikusi beharreko bizileku ahalmena jasotzen du. Kalkulua gaurkotuta dago, azken datu estatistikoak hartu baitira kontuan. Ildo horretan, atzeranzko bilakaera duten udalerrietan 2 osagaia negatiboa dela hartu da kontuan, hau da, azken urteetako atzeranzko bilakaera zorrotz ezarri dagoen joeraren egoera

C3 osagaia (Familia egituraren aldakuntza): Eremuaren errealitate sozioekonomikoak, aldakuntza hipotesi bat eratzen uzten digu, udalerrri bakoitzerako familia tamainarentzako beheranzkoa dena, eta etxebizitza berrien beharrean itzultzen dena. Planeamenduaren indarraldiko zortzigarren urterako, familia tasaren 0,24-ko gutxiagotzea aintzakotzat hartzen da.

C4 osagaia (Eskaintzaren gogortasunaren zuzenketa). C4 balioa, LAI-en 1.3 eranskinean jasotzen da, LPP-aren modelo berrira egokitzen den arren: 0,35 Artzentales, Galdames, Karrantza Harana, Lanestosa, Sopuerta, Gordexola eta Trucios-Turtzioz udalerrietarako; eta 0,25 Balmaseda, Gordexola, Gueñes eta Zalla udalerrietarako.

Gogortasun koefizientearen balioa bere erdira zatituz kalkulatzen dira etxebizitzaren gutxieneko beharrak.

C5 osagaia (bigarren bizilekua). Hurrengo udalerrietarako joerako bigarren egoitza hartu da aintzat, 1,40 Artzentaleserako; 1,47 Galdameserako; 1,13 Sopueterako eta 1,44 Trucios-Turtziozerako. Eremu Funtzionaleko gainontzeko udalerrietarako ez da bigarren egoitzarik aurreikusten.

LAA-etako kalkulu orria, antolamendu arau hauetako I. eranskinean sartzen da.

2.- 8 eta 16 urte bitarteko bizileku eskaintza erlaziorako, irizpide bezala 1,33 faktorea aplikatu behar da.

3.- Udal planeamenduko berrikuspenean aurreikusitako zoru urbano eta urbanizagarri sektorizatuen bizileku ahalmenak, Artikulu honen aplikazioaren ondorioz sortzen diren gehienezko eta gutxieneko balioen artean onartua izan beharko du.

4.- Udal planeamenduaren berrikuspenak, dauden etxebizitza hutsen bizileku ahalmenean eragin beharko du, proposamenak egokitzeko asmoarekin.

IV. KAPITULUA

JARDUERA EKONOMIKOETARAKO ZORUA

I. ATALA

LURRALDEAREN BERROREKA

63. artikulua.- Lurraldearen berrorka.

1.- Jarduera ekonomikoen eta Lurralde Ereduko bizilekuen berrorka posible egitea LPP-aren helburu bat da. Honen bitartez, erabilera orokorreko egoitza garapen berri guztiek beren eremuaren % 15-a, jarduera ekonomiko osagarrientzako erreserbatu dezatela ziurtatzen da, bizileku berri eta lan eremuen arteko oreka bat lortuz.

2.- Hiri-gune eta udalerrien jardueraren suspertzeak, hiri barruak hirugarren sektoreko erabileren berreskurapena eskatzen du, erabilera osagarriak mantenduz. Adibidez: merkataritza txikia, bulegoak, tailerrak, etxebizitzarekin bateragarri den industria, etab., eta era guztietako erabilera hornitzaileak, hala nola: asistentziazkoa, soziokulturalak, etab.

3.- Perspektiba honetatik, etxebizitzarekin bateragarri diren industrialdeen okupazioa saihestu behar da, emaitza negatibo bezala zera ekartzen dute: puntu hauetarako populazioaren migrazio edo mugimenduz gain, merkantzien trafiko astunarentzako egokiago izanik, jarduera ekonomikoetarako zoru hedapen beharra bizileku zoruarekin bateragarri ez diren industrien kokapenerako.

4.- Jarduera ekonomikoen berrorka zehatzerako, hauek, lehenasunezko komunikabideetatik gertu kokatuko dira: Kadaguako bailara eta Malabrigoko gunerako, Kadaguako korridorea, BI-2701 errepidea eta BI-630 errepideen arteko lotura bezala.

5.- Proposamen hauek, «Kadaguako ardatzeko jarduera ekonomikoak», OE-04 eta «Mendebaldeko ardatzeko garapen ekonomikoa», OE-05 operazio estrategikoetan gauzatzen da, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta strategi egiteak» agertzen dena.

II. ATALA

EXISTITZEN DIREN ESTABLIMENDUETAN ESKU-HARTZEAK

64. artikulua.- Birmoldaketa lanak.

Ondorengo birmoldaketa-lanak planteatu dira:

- **Balmaseda (A-3 sektorea Virgen de Gracia):** Balmasedako hirigune historikotik Pandozaleseko landa-gunerako bidean kokatutako jarduera ekonomikoko zoru sektore honetako itxura urbanoaren birmoldaketa-lana da.
- **Balmaseda (A-5 hiri gasolindegia):** espazio honen itxura eta egokitzapena hobetzean datza, bere hiriguneari hobeto moldatuta egotea eskatzen du, Balmasedako hiriguneko sarreran kokatzen delako. Gasolindegia ordez, hiri ingurunearekin adostuago dagoen jarduera bat ezartzea proposatzen da. Proposamen zehatz hau ez da loteslea; gomendio bat da, Balmasedako Udalak kontuan har dezan egina.
- **Balmaseda-Zalla (Nocedal):** Finkatutako industriagunea (A-1 Tejera, UT-4 Nocedal, UI-5 La Tejera eta T-1 El Nocedal sektoreak). Bertarako, merkataritza tertziarioko ekipamendu handi bat proposatzen da, Ereku Funtzionaleko buruko erdigune izaera indartzen duena, Balmasedako sarreran aurkitzen den espazio honen itxura hobetuz.
- **Sopuerta (UEI-2, UEI-2-3, UEI-4, UEI-5 eta UEI-6 sektoreak):** Gaur egunean gaizki ezarriak dauden erabileren birmoldaketa bat proposatzen da, zoru hauek, gune horretarako aurreikusia dagoen kirol eta kulturako ekipamendu handian gehituz.
- **Gueñes (UE- Padura Industrial sektorea): Bertara iritsi dela eta** etxebizitza inguruneari hobeto egokitzeko, tailer historikoetako instalazioen tipologiaren integrazioan hobekuntza bat.
- **Gueñes (Sodupe kooperatiba):** Sodupeko guneko jarduera industrialeko tailerrak. Berauen tipologia eta jarduerak, kokatuak dauden hiri-inguruari egokitu behar dira.

65. artikulua.- Leheneratze-lanak.

1.- LPP-ak udal planeamendurako era loteslean azpimarratzen du ondoko zoruen leheneratzea:

- **Zalla (I-5 sektorea Ibarra):** Industriako lurzoru urbanizagarria, indarrean dauden 1999ko Arau Subsidiarioek hala sailkatuta. Haren ezarpenak ez du loturarik erabilera horri atxikitako jarduerekin. Zenbatespenen arabera, haren azalera lau eta berrogeita hamahiru (4,53) hektarea ingurukoa da, eta orain arte ez da garatu.

Hori gorabehera, udal-plangintzaren berrikuspenean, jarduera ekonomikoen sektore horri eusteko dagoen beharra justifikatu beharko da, Zallako udal-mugarteko egiturazko antolamenduaren ikuspegitik.

- **Karrantza Harana (La Cadena I-1 Harrobia):** Harrobiaren instalazioei dagokien zoru industrialia. Bere benetako izaerara egokitzearen eta momentuko jarduera amaitzean, industriagune baten ezarpena saihestearren, zoru hauen leheneratzea proposatzen da.
- **Galdames (La Aceña 2 Harrobia):** Harrobiaren instalazioei dagokien zoru industrialia. Bere benetako izaerara egokitzearen eta momentuko jarduera amaitzean, industriagune baten ezarpena saihestearren, zoru hauen leheneratzea proposatzen da.

2.- Aurreko puntuan adierazitakoa kaltetu gabe, LPP-ak zehazki esku-hartze modu hau aurreikusi ez duen udalerrietan, hauek, leheneratzea beharrezko ikusten duten espazioetan, eta helburu berdinak jarraituz, leheneratze jardueri ekin ahal izango diote.

III. ATALA

JARDUERA EKONOMIKOEN GARAPEN BERRIAK.

66. artikulua.- Garapen berriak.

Jarduera ekonomikoen, ondoko garapen berriak planteatu dira:

- **Karrantza (Las Torcachas):** Jarduera ekonomikoko eremu berria (mistoa industria-terziarioa) Torcachaseko gunearen ondoan, etorkizunean egingo diren Minda-Planta instalazioetatik gertu eta BI-630 errepideari lotuta.
- **Sopuerta-Zalla (Malabrigo):** Jarduera ekonomikoko eremu berria (mistoa industria-terziarioa) Malabrigoko bidegurutzean, Sopuerta eta Zalla udalerrien artean. Industrialde honen garapen egokirako, nahitaezko da Sopuerta eta Zallako udaletxeek era bateratuan jokatu dezatela.
- **Zalla (Allendelagua):** Gallardiko auzoa eta Kadaguako korridorearen artean, gaur egunean dauden jarduera ekonomikoen bi sektoreak zabaltzea, beste bi sektore berri gehituaz. Sektore berri hauek, momentuan dagoen jarduera zoruarekin, hirugarren mailako industria mistoko zoru jarrai bat osatuko lukete.
- **Zalla (Sollano):** Allendelaguako jarduera ekonomikoko eremu berriaren aurrean, Kadaguako korridorearen bestaldean, jarduera mistoko eremu bat proposatzen da, Sollanoko gunetik gertu.
- **Zalla (Nocedal):** Nocedaleko birmoldaketako jarduera ekonomikoen eremuaren osagarri gisa, Zallarekin, Balmasedak duen mugan, bere handipena proposatzen da, bi gune hauek komunikatzen dituen errepide ertzean.
- **Gueñes (Orbijana):** Jarduera ekonomikoko eremu berria (mistoa industria-terziarioa) Gueñeseko gunearen eta Kadaguako korridorearen hegoaldean, Orbijanako auzoan, Karts-eko zirkuituaren ondoan.
- **Gueñes (Santxosolo):** Jarduera ekonomikoko eremu berria (mistoa industria-terziarioa) Kadaguako korridorearen ondoan. Industriagune honek Kadaguako bailararen aurrean bere itxura bereziki zaindu behar du. Horretarako, Kadaguako Korridoreari buruzko eraikuntzen

atzeraemangune bat eginez industriagunearen ertzaren «tratamendu berde» bat posible egiten duena, ikuspegiaren talka txikiagotzeko. Zentzu honetan, parean, fatxada tratamendu zainduago bat izan dezaketen erabilerak kokatuko dira eta erabilera industrialeko eraikigarritasun handiena, Errekaldeko errekaetoaren bailararantz barneratzen den gunean kokatuko da.

- **Sopuerta (gasolindegia):** Merkatal-sektore tertziario bat proposatzen da Capetillo eta El Crucero guneen artean, gaur egunean gasolindegia dagoen kokalekuan, hiri osotasunari zerbitzua ematen dion establezimenduren bat kokatzeko asmoz.
- **Galdames (La Aceña):** Gaur egunean La Aceñan dagoen jarduera ekonomikoaren sektorearen hazkuntza, bi sektore txiki gehiagorekin.

IV. ATALA

JARDUERA EKONOMIKOETARAKO ZORU ESKAINTZEN KUANTIFIKAZIOA

67. artikulua.- Kuantifikazioa.

1.- LPP-ek, jarduera ekonomikoen zoruari buruz egindako proposamenak, Jarduera Ekonomikoei buruz, PTS-ek araututako xedapenen erantzun zuzenak dira, bai kuantifikazioaren aldetik eta baita industriagune berrien kokapenaren aldetik ere.

2.- Honi buruzko zehaztapen bat bakarrik sartu da, izan ere, Enkarterrietako problematika zehazki aztertu ondoren, zoruaren eskaintza, industriagune konpaktuagoetan birkokatu eta kontzentratzeko beharra planteatzen da.

3.- Jarduera ekonomikoei buruzko PTS-ko Udal Kategorizazioak, momentuko LPP-rekin lotura du eta indarraldi betean dago.

4.- PTS-aren, Antolamendu Arau hauen kontrako ez diren Jarduera ekonomiko eta Merkatal-ekipamenduen, sormen publikoari buruzko aspektuak (udal kategorizazioa, merkataritza ekipamenduen antolakuntza) aplikazio osokoak izango dira.

5.- Zortzi urterako jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren gehieneko eskaintzak ez du gaindituko LPP-k ezarritako eskaintza globalaren % 75.

V. ATALA

SUSTAPEN PUBLIKOKO JARDUERAK

68. artikulua.- Definizio eta mugaketa.

1.- Laguntzak edo administrazio publikoko inbertsioekin, sustapen publikoari lotu beharreko, zoru industrialaren sustapen publikora zuzendutako zoru jarduerak dira. Kasu konkretu honetan Malabrigoko industrialdea daukagu, Zalla eta Sopuertako udalerriei eragiten diena.

2.- Jarduera ekonomikoen zoruaren Sustapen publikorako erreserbatu beharreko zoru azaleraren kuantifikazioa, Malabrigoko industrialdeak dituen hamalau (14) hektareak dira.

VI. ATALA

SUSTAPEN EKONOMIKORAKO ETA ENPRESA-ARLOKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAREN GARAPENERAKO EKIPAMENDUAREN KUANTIFIKAZIOA

69. artikulua.- Definizio eta mugaketa.

1.- Jarduera ekonomikoari lotutako ekipamendu batzuk zehaztu dira, ingurumenak dituen balio naturalak sustatzeko eta ustiatzeko, betiere, lehen sektoreari eutsiz eta laguntza emanez, eta ingurunearekin lotura duten beste jarduera batzuekin batera biziz. LZP-ari begira, lehentasunezkoa da paisaia zainduko duten erabilera iraunkorren jarraipena bermatzea, hori babes eraginkorra baita arloak dituen balio naturalistikoak zaintzeko. Horretarako, ezinbestekoa da biztanleriak Enkarterriko mendebaldean bizitzen jarrai dezaten.

2.- Izaera estrategikoa duten landa-guneari lotutako proposamen hauek azal ditzakegu:

- a) Sustapen ekonomikorako eta enpresa-arloko nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenerako Otidesko (Karrantza Harana) ekipamendua «Nekazaritza eta abeltzaintzaren sustapena» izeneko OE-09 eragiketa estrategikoan sartuta dago. Ekipamendu horretarako aurreikusi den gehieneko azalera hamasei (16) hektareakoa da.
- b) Sustapen ekonomikorako eta enpresa-arloko nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenerako La Renejako (Artzentaletan) ekipamendua (Karrantza Harana) «Nekazaritza eta abeltzaintzaren sustapena» izeneko OE-09 eragiketa estrategikoan sartuta dago. Ekipamendu horretarako aurreikusi den gehieneko azalera hogeita hemezortzi (38) hektareakoa da.

3.- Zenbatespenen arabera, orientabide gisa, azaleraren % 60 zuzkidurako ekipamendurako erabiltzen da, eta gainerako % 40 jarduera ekonomikorako uzten da. Beraz, Otidesen sei eta berrogei (6,40) hektarea eta La Renejan hamabost eta hogeita (15,20) hektarea daude; eta gehieneko hogeita bat eta hirurogeita bi (21,62) hektarea hartzen ditu.

4.- Ez da inola ere ulertu behar, lehen sektoreari atxikitako proposamenek (Otides eta Artzentaletan) espazioa urbanizatutako duten ohiko industria-poligonoen izaera dutenik. Aitzitik, gehienbat egoera naturalari eutsiko diote, izaera biguneko urbanizazioen bat eta jarduera zehatzen bat egon arren.

5.- Ekipamendu hauek lurzoru urbanizaezinean daude, eta, indarreko legeriari jarraiki, haiek ezartzeko Plan Berezia eta Ingumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioari buruzko Azterketa egokia prestatu beharko dira.

BOSGARREN TITULUA

KOMUNIKAZIO AZPIEGITURAK

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

70. artikulua.- Komunikazioen antolamenduaren irizpide eta helburu orokorrak.

LPP-ko helburu orokorren arabera, Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Alderdi Funtzionalaren komunikazioen antolakuntzak, ondoko helburuak lortu nahi ditu:

- a) Lurralderako irisgarritasunaren hobekuntza, batez ere Kadaguako bailaratik barnealdeko mendebaldeko bailaretara.
- b) Eremu Funtzionaleko udalerriak eta Bilboko metropoli-eremuaren artean trenbidea, lehentasuneko garraiobide bezala indartzea.
- c) Zenbait eskualde-errepide eta errepide lokalak indartu hiri garapen bat proposatzen den guneetan, bide sistema, Lurralde Eredu berri honetara egokituz.
- d) Aktibo natural eta kulturalak hobeto aprobetxatzeko, landa izaerako espazioetan errepideen zenbait zati mantendu eta hobetu.
- e) Alderdi gatazkatsuak deuseztatuz eta hauek aukera berriekin konponduz, trazatua hobetzea, zirkulazio handieneko lekuetan plataformaren zabalera handituz, etab.
- f) Hiribideetan zenbait pasabideen birmoldaketa, populazio guneetatik pasatzen diren ibilgailuen igarotzea saihesteko.

II. KAPITULUA

ERREPIDE-SAREA

71. artikulua.- Errepideen hierarkia sistema.

1.- Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Lurralde Plan Partzialak adierazitako irizpide eta helburu orokorrak betetzeko, bideen harremaneratako sistema osatzen duten komunikazioak antolatzen ditu, errepide-sarearen hierarkia argi baten ezarpenean oinarritua:

- a) **Sare Egituragarria:** Lurraldea egituratzen duten eta sarrera ardatz printzipalak osatzen dituzten bideak dira. Lurralde-ate izaera dute. Hauen artean aurkitzen ditugu:
 - BI-630: Kadaguako bailarak Karrantzako ibarrarekin duen lotura-errepidea da, baita azken honetako irteera ere Asoneko bailararantz (Kantauri aldea).

- BI-2701: Muskiz eta Abanto-Zierbenako guneak, Sopuertatik Malabrigoko gunearekin lotura eratzen duen errepidea da.
- Kadaguako korridorea eta bere loturak: Bilbo Metropolitanoarekin eta Menako bailararekin komunikazioa sortzen duen autobia, sarbide printzipala izateaz gain, eremuko lehentasuneko guneen artean barne-lotura bat eratzen duena.
- N-629: Las Merindades eskualdea, Lanestosatik Asoneko bailararekin lotzen duen errepidea.

b) **Sare banatzailea:** Eremu Funtzionaleko gune ezberdinak beren artean erlazionatzen dituzten eskualdeen arteko lotura-errepideak, hiri-guneak, beren buruko eta azpi-burukoekin harremanduaz.

c) **Kapilar-sarea:** Gainontzeko bideak osatzen du. Bere funtzioa, lurraldeari sarrera zerbitzu zuzen bat ematea edo aurreko bide b duen bidea izatea da.

2.- «Komunikazioetako azpiegiturak» O-3 Planoak bideen sistema jasotzen du.

72. artikulua.- Harremanetarako sistema proposamenak.

1.- Sare horren eta errepide arteko garraioaren LPP-aren modeloaren hobekuntzarako proposamen gisa, ondoko proposamenak gehitzen dira:

- a) Ibilbidearen hobekuntza: Trafiko arinago bat errazten duten jarduerak, plataformaren zabaltzea, bihurgune eta kontra-peralteen zuzenketa, trafiko eta erabilgarritasunak hutsuneak azaltzen dituztenean, tarte horietan zerbitzu mailak hobetuz.
- b) Saihesbideak: Guneetatik pasatzen den trafikoarentzako ordezkoi-bideen gauzatzea. «Hiritar-Kale Integratu» deitzen dira, baina ez beti errepideen ibilbidearen ikuspuntutik. Lanestosa, Trucios-Turtzioz eta Sopuertako herrialdeetan saihesbideak planteatzen dira.
- c) Kale urbanoaren birmoldaketa: kale urbano gisa, beren funtzio berria bete dezaten ibilbide aldaketak izaten hasten diren zeharbide urbanoen modifikazioa, zirkulazio abiadura gutxiagotuz eta erabat urbanoak diren ezaugarriak sartuz (semaforoak, oinezkoentzako pasabideak, espaloiak, aparkaleku guneak, etab.). Sodupe, Gueñes, Aranguren, Mimetiz eta aurreko puntuan aipatutako hiri-guneetatik pasatzen diren momentuko errepideetan proposatzen da.
- d) Loturen hobekuntza: trafikoaren ezaugarrietara eta bere betebeharrak arazo handieneko loturak egokitzeko esku-hartzeak.

2.- Proposamen zehatzak hurrengo Jarduera Egituratzailaetan aurkituko ditugu, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta estrategi egiteak» agertzen direnak. Jarduera Egituratzaila hauek, eskema edo ibilbidearen lotura mailaz gain, hauetako bakoitzaren zehaztapen lotesleak ere mugatuko dituzte.

- a) AE-1 «Malabrigoko lotura».
- b) AE-2 «Iparraldeko ardatza».

- c) AE-3 «Mendebaldeko gunearen irisgarritasunaren hobekuntza».
- d) AE-4 «Kadaguako korridorearen desdoblamendua».
- e) AE-5 «Hiri-saihesbideak eta hiritar-Kaleen birmoldaketa».

3.- Antolamenduko planoetan agertzen diren bideen trazak orientatzeko baizik ez dira.

4.- Jabari Publiko Hidraulikoan edo zortasun-eremuan edota polizia-eremuan esku hartu ahal izateko, aurrez, arro horretako erakundearen administrazioko baimena lortu beharko da. Bestalde, baimen hori URA-Uraren Euskal Agentziaren Kantaurikoaren Ekialdeko Arroen Bulegoan izapidetu beharko da.

III. KAPITULUA TRENBIDE SAREA

73. artikulua.- Trenbide Sarea.

1.- Lurralde Plan Partzialeko trenbide sistema, hiru elementuren baitan giltzatzen da:

- a) Trenbide lineak: Lurralde Planak proposatutako ibilbide zabaltze eta modifikazioak sartuz.
- b) Tren geltokiak: Geltoki berrien edo momentuan daudenen kokapen berriak sartuz.
- c) Moduzko alda-geltokiak: Enkarterrietako herrialde txiki eta sakabanatuen ezaugarriak direla eta, Eremu Funtzionaleko gune guztietatik Bilbo Metropolitanorako sarrera erraztearren, tren geltoki garrantzitsuen ondoan kokatzen diren alda-geltokiak. Puntu intermodalak, ondoko geltokietan kokatzen dira:
 - Sodupe.
 - Aranguren.
 - Mimetiz (Zalla).
 - Balmaseda.
 - Ambasaguas (Karrantza Harana).

2.- «Komunikazioetako azpiegiturak» O-3 Planoak, trenbide sistema jasotzen du.

74. artikulua.- Trenbide Sarerako proposamenak.

Plan Partzial honetan, trenbide-sarerako bi proposamen mota azaltzen dira, batetik sarritasuna gehiagotzea eta denborak murriztea FEVE-ren Bilbao-Balmaseda lineako ibilbidean, eta bestetik, FEVE-ren geltokietan dagokien Jarduera Egituratzailleetan zehazten diren modifikazioak, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta strategi egiteak» agertzen direnak.

- a) AE-6 «Balmaseda-Zaramillo trenen banaketa»
- b) AE-7 «Mimetizeko trenbide sarearen tratamendua»
- c) AE-8 «Bilbao-Santander trenbide sarearen bultzada»
- d) AE-9 «Intermodalitate puntuak»

IV. KAPITULUA

GARRAIOAREN INGURUAN BESTE JARDUERA BATZUK

75. artikulua.- Garraio publiko eta intermodala.

1.- Lurralde Plan honek, garraio publikoan intermodalitatearen alde apustu egiten du, garraibide ezberdinak tartean sartuz. Hartu-eman hau erraztu ahal izateko, zoru erreserbak behar dira. Tren geltoki ezberdinetan, Tren-Bus-Kotxe intermodalitate puntuak proposatzen dira, Eremu Funtzionalaren barruan eta Bilbo Metropolitanera erabiltzaileen joan-etorriak erraztuz.

2.- Proposatutako intermodalitate zehatzeko nodo printzipalak, «Intermodalitate puntuak» AE-9 Jarduera Egituratzailan jasotzen dira, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta estrategi egiteak» agertzen direnak.

76. artikulua.- Hegazkin-sarea.

1.- Bilboko aireportutik desbideratuko diren eta Planifikazio sektorialean sartzen diren menpekotasun-aeronautiko eta sonikoen erasanei dagokienez, momentuko Plan Partzialaren lurralde eremua ez dute eragiten, ez bere egungo mugaketak ezta bere Plan Zuzentzailearen modifikazioaren ondorioz eman litezkeen zabaltze hipotetikoek ere. Horregatik lurraldearen okupazioaren baldintzatzaileetan ez dute eragiten.

2.- Enkarterrien LPP-ak, zerbitzu azkar eta eraginkor bat eskaintzeko ahalmena izatearren, Ambasaguasen (Karrantza Harana) eta Mimetizen (Zalla) heliportuen kokapena planteatzen du. Hauek, «Mendebaldeko guneko irisgarritasunaren hobekuntza» JE-3 Jarduera Egituratzaillean sartzen dira, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta estrategi egiteak» agertzen direnak.

77. artikulua.- Bide-azpiegituretarako sare alternatiboa.

1.- Lurralde Plan honek, eguneroko mobilizazioari zerbitzu bat ematearren, bizikletentzako bide eta ibilbide bigunak indartzearen alde apustu egiten du (Kadagua Balmaseda-Zalla-Gueñes-Sodupeko bizikleta-bidea). Proposamen honi esker, udalerrri barneko ibilbideen artean, komunikazio jasangarriago bat lortzen da.

2.- Bizikleta garraioei buruzko LPP-ko proposamen orokorrak, «Sare Berdea» JE-10 Jarduera Egituratzaillean aurkitzen dira, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta estrategi egiteak» agertzen direnak.

SEIGARREN TITULUA

ZERBITZUEN AZPIEGITURAK

78. artikulua.- Zerbitzu azpiegituren antolamenduaren irizpide eta helburu orokorrak.

LPP-en helburu orokorren arabera, Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Alderdi Funtzionaleko zerbitzuen azpiegituren antolakuntzak, helburu hauek lortu nahi ditu:

- a) Ur horniketa eta saneamendu sarea hobetu eremuko udalerrri guzietan zerbitzu bera izan dezaten. Zentzu honetan, Bilbo Bizkaiako Ur Partzuergozko partzuergo-sarean sartzen ez diren beste udalerrriak sartzea proposatzen da.
- b) Ingurune-inpaktuak gutxiagotuz, tentsio handieneko azpiegitura elektrikoak pasatu daitezten, ingurune aldetik egokiak diren korridoreak ezarriz, sare elektrikoaren zerbitzu eta antolakuntza hobetu.
- c) Zerbitzua egokitzeko asmoz, mugikortasuna gutxiagotuz eta bilketa selektiboa zentralizatzen duten beste gune batzuk sortuz «Puntu Garbien» edo Eremuko Garbiguneen sarea hobetzea.
- d) Telekomunikazio azpiegitura sistema baten garapena, enpresen lehiakortasunerako, elementu garrantzitsua da. Eremu Funtzionaleko pertsona, enpresa eta instituzio guzietan komunikazio eta informazio sistema berrietara hurbiltzeko aukera ematea helburu argi bat da, horregatik, Eremu Funtzionaleko errealitatearen arabera telekomunikazio-sare bat eratu behar da.

79. artikulua.- Banaketa energetikoaren azpiegiturak.

1.- Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Lurralde Plan Partzialetik eta banaketa energetikoko azpiegituren aldetik, ondoko proposamenak egiten dira:

- a) Enpresa banatzaileek, Artzentales, Trucios-Turtzioz eta Karrantza Harana bezalako udalerrietan, banaketa energetikoaren zerbitzua hobetu behar dute, populazioaren beharrak betetzen dituzten zerbitzu egokiak eskaini ahal izateko.
- b) Azpiegiturarentzako korridoreak egokitu, erabilitako paramenta elkartzeko eta ingurugiroaren gain emandako erasoak ahal den neurrian gutxiagotzeko. Azpiegitura hauek, LPP-ak proposatutako babes bereziko azpiegituretatik pasatzea saihestu behar da.
- c) Energia aldetik autohornikuntza bilatu, bertako baliabideen aprobetxamendu handiagoa eta hobia egiteko ahaleginak gehituz eta energiaren erabilera arrazional bat indartzuz.

2.- Espainiako Sare Elektrikoak, La Jara-Vallegón, 220 kV Tentsio Altuko aireko linea elektriko berriaren trazatua ezarri nahi du. Trazatu honek, Eremu Funtzionala gurutzatzen du eta LPP honek definitutako «Nekazaritza Sistema Paisajistikoa» gain eragina izan dezake Artzentales eta Sopuerta artean. Trazaturako, Espainiako Sare Elektrikoak egindako ikerketan azaltzen dituen korridore eta aukeren artean, LPP-ak xedatzen du, ekialderagoko aukera garatu behar dela, seinalatutako «Nekazaritza Sistema Paisajistikoa» saihestuz. Horrez gain, atxikipenak erabat txikiagotu beharko ditu, «Balio Estrategiko Handiko Nekazaritza eta Abeltzaintzako» kategorian sartuta.

3.- Energia sortzen eta banatzen jarduten duten guztiek nola edo hala saihestu behar dute aireko linea elektrikoek pertsonen edo ondasunen gainean duten eragin kaltegarria, otsailaren 15eko 223/2008 Errege Dekretuaren espirituari jarraiki. Izan ere, dekretu horrek onetsi zituen goi-tentsioko aireko lineetako baldintza teknikoei eta segurtasunerako bermeei buruzko Araudia eta haien jarraibide tekniko osagarriak (ITC-LAT 01etik 09ra).

80. artikulua.- Hornikuntzarako azpiegitura hidraulikoak.

1.- Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Lurralde Plan Partzialetik eta hornikuntzarako azpiegitura hidraulikoei dagokionez egiten diren sarea hobekuntza eta urmaelen eraikuntzarako proposamenak, «Uren Tratamendua» AE-12 Jarduera Egituratzailean jaso eta zehazten dira, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta estrategi egiteak» agertzen direnak.

2.- Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Eremu Funtzionaleko udalerrri guztiak, Bilbo Bizkaiko Ur Partzuergoan integra daitezen gomendatzen da, hornikuntzaren arazoari behin betiko aurre egiteko asmoz.

81. artikulua.- Saneamendu eta garbiketa azpiegiturak.

1.- Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Lurralde Plan Partzialetik, saneamendu eta garbiketa azpiegiturei buruz egiten diren proposamenak, «Uren tratamendua» JE-12 Jarduera Egituratzailean jasotzen dira, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta estrategi egiteak» agertzen direnak.

2.- Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Eremu Funtzionaleko udalerrri guztiak, Bilbo Bizkaiko Uren Partzuergoan sartu daitezen gomendatzen da, saneamenduaren arazoa, era bateratuan konpondu ahal izateko.

82. artikulua.- Minda Planta.

1.- Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Lurralde Plan Partzialetik, nekazaritza eta abeltzain sektorearen finkapena beharrezko ikusten da, momentuko populazio eta paisaiaren mantentzeko elementu estrategikoa bezala. Hala ere, baldintza naturalen mantenu eta berbalorizazioarekin, garapen ekonomiko eta sozialaren eskaerarekin eta Eremu Funtzionaleko populazioaren bizitza kalitatearen hobekuntzarekin bateragarri egin behar da.

2.- Horregatik, lurrazpiko baliabide hidrikoak babestu nahian, momentuko establimenduak, ezarritako landa erabilerekin bat egingo dituen jarduera bati aurre ematea planteatzen da. Ekimen hau, Minda tratamenduen Planta bat, Las Torcachaseko (Karrantza Harana) landa-gunetik gertu gauzatzean datza eta «Minda Planta» AE-14 Jarduera Egituratzailean aurkitzen da, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta estrategi egiteak» agertzen dena.

83. artikulua.- Telekomunikazio azpiegiturak.

1.- Momentuko Lurralde Plan Partzialetik lehentasuneko gune guztietan eta jarduera ekonomikoko esparruetan telekomunikazio-sarea indartu eta hobetzea bilatzen da. Gainera, Enkarterrietako mendebaldean telekomunikazioak hobetu behar dira, gune hau osatzen duten sakabanatutako landa-guneei zerbitzua emateko baliabide gokiak erabiliz.

2.- Sarearen ezarpena optimizatu beharko da, eraso posibleak saihestuz. Horretarako, beharrezko azpiegiturak kokatzeko joera egokiak kontutan hartu beharko dira. Adibidez: antenak, hargailuak, etab. Horregatik, eta enpresa pribatuak azpiegitura honen instalazio eta garapenerako beren planak gauzatzeko ari direnez, lurraldearen ikuspuntutik egokia izango litzateke, izaera ofizialeko aurreikuspenekin jardura hauek koordinatzea.

84. artikulua.- Hondakin solidoak.

1.- LZP-ak paper, beira eta plastikozko hondakin guzien birziklapenaren alde apustu egiten du, hondakinen bilketa selektiboa eta birziklatu gabeko hondakinen bilketarako zabortegi kontrolatuen erabilera indartu eta erraztu behar delarik. Horretarako, «Puntu Garbiak» edo Garbigune Sarearen zerbitzua hobetu behar da, mugikortasuna gutxiagotuz eta bilketa selektiboa biltzen duten beste gunek batzuk sortuz.

«Puntu Garbiak» edo Garbigune Sarea, gaur egun Karrantza, Zalla eta Sodupekoek osatzen dute; Sopuerta eta Zallan gunek berriak ezarri, azken hau, zabor industrialei lotua.

2.- Hondakin solidoen buruzko proposamen zehatzak «Zaborren Kudeaketa» AE-13 Jardura Egiturazaleetan jasotzen dira, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta estrategi egiteak» agertzen dena.

85. artikulua.- Energia alternatiboak.

1.- Energia elektrikoaren erabilera arrazionala indartzeko helburuarekin, LPP-ak ordezkotako energietara zuzendutako proposamenak egingo ditu (plaka fotovoltaikoak, industria eta nekazaritza kogenerazioa) eta hauek betetzeko, udalaren partaidetzaren beharra du, bere plan orokorrean ordezkotako energien ezarpenaren aurreikuspen bat jaso eta arautuz, hauek beharrezko eginez edo ogasun neurrien bitartez.

2.- Interes agerikoko zoruetan ez dira instalazioak edo eguzki fotovoltaikoko baratzak onartuko.

3.- LPP-aren erabilera industrialetarako aurreikusitako zoruaren barruan ulertu behar da kogenerazioa industrialak. Nekazaritza kogenerazioak, erabilera printzipala laguntzen duen jardura bat bezala jokatu behar du, instalazio hori optimizatzeko bide bezala.

4.- Enkarterrietan, basa-hondakinen tratamendurako, biomasa zentral baten ezarpena gomendatzen da, bere kokapena Balmasedako udalerrian proposatzen delarik.

5.- Energia Eolikoko Lurralde Plan Sektorialeko aurreikuspenen arabera eraman beharko da aurrera energia eolikoko parkeen instalazioa.

6.- Eremu Funtzionalean aurrez ikusitako kokalekuetariko bat ezabatzen bada, Energia Eolikoaren bigarren LAP-aren izapidearen eraginez, horren ondorio guztiak ere kenduko dira, LZP hau aldatu beharrik gabe.

ZAZPIGARREN TITULUA

OBRA HIDRAULIKOAK, KUTSATUTAKO ZORUAK ETA USTIAPEN JARDUERAK

86. artikulua.- Kadagua ibaia bideratzeko plana.

1.- Lurralde Plan Partzialak, Kadaguako ibaiaren Bideratze Planaren edukia eta proposamenak bere gain hartzen ditu, bere Zallako udalerrriaren eta Gueñeseko hiri-guneko pasabidean. Hauek, «Kadaguako Bideratze Plan»-ean, AE-11 Jarduera Egituratzailan biltzen dira, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta strategi egiteak» agertzen dena.

2.- Kadaguako ibaiaren bideratzeak eragiten dituen udalerrien hiri-planeamendua, Plan hau aurrera ematen den momentutik errebisatu beharko da. Eragiten duen lursail okupazioagatik eta momentuko Eremu Funtzionalen kokatutako beste eremuetan Bideratze Plana aurrera doan heinean, hiri-planeamenduak, lursail hauek gunearen hazkunde naturalen artean sailkatu ditzake, hiri-gunean bertan kokatutako orbainak diren guztietan, hiri-tramaren barruan hutsuneak edo interstizioak osatzen dituzten bitartean eta LPP-ko modifikazio puntual bezala kontutan hartu gabe.

87. artikulua.- Kutsatutako zoruak.

1.- Lurralde Plan Partzial honek, «Ingurumen Problematikak» I-07 Informazio Planoan, «EAE-ko zoruko potentzialki kutsagarriak diren kokalekuen Inbentario»-an sartzen diren zoru kutsatuak gehitzen ditu.

2.- Udal planeamenduak, beti ere Zorua Kutsaduraren Prebentzio eta Zuzenketari buruzko otsailak 4ko 1/2005 Legean jasotakoa errespetatuz, birsorkuntza eta berriztapen estrategiak definitzeko garaian, zoru kutsatuen arazoari aurre egiteko moduari buruzko atal zehatz bat eduki beharko du.

88. artikulua.- Ustiapen jarduerak.

1.- LPP-ak, Hiri Establimenduak I-06 Informazio Planoan, Eremu Funtzional barruko mehatze eskubideak, xedatutako ustiapen kontzesio eta proiektuak jasotzen ditu.

2.- Dagokion Lurralde Plan Sektorialaren bidez, ustiapen jardueraren erregulazio sektoriala garatu eta onesten den arte, LPP-ko proposamena, LAI-etako «Ingurune Fisikoaren Antolakuntzarako Matrizea»-zen arabera aurrera eramaten da. Matriz honen arabera, «Ustiapen Jardueren» barruan azaltzen diren harrobiak, «Babes Berezia» duten eremuen barruan eta «Naturgune Babestuetan» debekatuak egongo lirateke, momentuan existitzen direnak edo baimenduak daudenak ezik.

3.- Lurralde Antolakuntzaren Arauetan xedatutakoaren arabera, udal planeamenduak, ustiapen jarduerak eragindako eremuak mugatuko ditu.

4.- Erauzketa-jarduerak jartzeko, dagozkion sektoreko baimenak, Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren Banakako Azterketa, Plan Berezia eta udal-lizentzia behar dira.

5.- Babestutako natura-guneen atxikipeneko eremuen eta mugen barruan, ezin izango da meatze-ikerketarik egin, ez aire zabalean ez lurpean, martxoaren 11ko 1/2010 Legeari jarraiki. Izan ere, lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea aldatzen du, eta horren araudian (17.4 artikuluan) gai hau azaltzen da.

ZORTZIGARREN TITULUA

UDALEZ GAINDIKO EKIPAMENDUAK

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

89. artikulua.- Definizioa.

1.- Momentuko Lurralde Planaren arabera, Udalez gaindiko ekipamenduak, jarduera handien multzo bezala edo udalez kanpoko maila bezala definitzen dira. Duten tamaina eta Ereku Funtzionalerako garrantzia estrategikoa dela eta, beren garapenerako espazio zehatz baten erreserba behar dute.

2.- LPP-ak, Udal Ekipamenduen barruan, bi eratako jarduerak xedatzen ditu; bat «Ekipamendu Handi»-ei buruzkoa eta bestea, «Eskala Lokalean, Ekipamendu Proiektu Zehatz»-ei buruzkoa.

II. KAPITULUA

EKIPAMENDU HANDIAK

90. artikulua.- Definizio eta proposamena.

1.- Lurraldearen Zatik Planak «ekipamendu handiak» bezala ulertzen ditu, ekipamendu-osagaiak izateaz gain, jarduera ekonomiko osagaiak, heziketa osagaiak, etab., izan ditzaketen ekipamenduak, aldi berean errealitate ezberdinen zati direlarik.

2.- Udalez gaindiko ekipamendu handiei dagokienez, LPP-ak lau proposamen egiten ditu:

- a) Sustapen ekonomikorako eta enpresa-arloko nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenerako ekipamendua, Otidesen (Karrantza Harana).
- b) Sustapen ekonomikorako eta enpresa-arloko nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenerako ekipamendua, La Renejan (Artzentales).
- c) Kirol eta kultura ekipamendu handi bat Los Cotarrosen (Sopuerta).
- d) Ebazpen handiko ospitalea Mimetizen (Zalla).

91. artikulua.- Sustapen ekonomikorako eta enpresa-arloko nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenerako ekipamendua, Otidesen

1.- Otideseko (Karrantza Harana) gunearen ondoan, Llanorekin konexioa egiten duen errepidean, sustapen ekonomikorako eta enpresa-arloko nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenerako bideraturiko ekipamendu baterako jarduera eremu berri bat proposatzen da.

2.- Ekipamendua, «Nekazaritza eta Abeltzaintza Sustapena», JE-9 Jarduera Egituratzailan sartzen da, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta strategi egiteak» agertzen dena.

92. artikulua.- Sustapen ekonomikorako eta enpresa-arloko nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenerako ekipamendua, Otidesen La Renejan.

1.- Artzentalesen, La Reneja bezala ezagutzen den gunean, sustapen ekonomikorako eta enpresa-arloko nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenerako gune bat proposatzen da eta «Nekazaritza eta abeltzaintza sustapena», JE-9 Jarduera Egituratzailan sartzen da, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta estrategi egiteak» agertzen dena.

2.- Aipatutako ekipamendua eta berarekin lotutako erabilera eta jarduerak, «La Renejako Eremuko Erabileren Antolakuntzarako Plan Berezia»-an araututakoekin bateragarriak eta osagarriak kontsideratzen dira (urtarrilak 8ko 5/2008 Foru Araudian behin betiko onetsia).

93. artikulua.- Kirol eta turismoko ekipamendu handia.

Planeamenduko Gauzatze Industrialeko 2. unitatetik, 6. unitatera, Los Cotarroseko (Sopuerta) gunearen ondoan, kirol eta turismo ekipamendu handi baten inguruan kokatuko den jarduera eremu handi baten sorrera proposatzen da. Bertan, golf zelai baten instalazioa eta bere ingurunean azpiegitura turistiko bat kokatuko da. «Iparraldeko Atea. Sopuertako Gune Izaera Berria» OE-6 Operazio Egituratzailan jasotzen da, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta estrategi egiteak» agertzen dena.

94. artikulua.- Ebazpen handiko ospitalea.

Ebazpen handiko ospitalea, «El Carmen» bezala ezagutzen den gunean aurreikusia dago, Mimetizeko (Zalla) gunean bertan. Larrialdietarako, kontsulta espezializatuak, froga diagnostikoak eta kirurgia anbulatorio handietako zerbitzuak beteko ditu; Eremu Funtzionaleko udalerrri guzietarako, behar ez diren joan etorriak saihestuz. Hau, «Zalla Zerbitzuen Nodoa» OE-3 Jarduera Estrategikoan biltzen da, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta estrategi egiteak» agertzen dena.

III. KAPITULUA BESTE PROPOSAMEN BATZUK

95. artikulua.- Egun dauden ekipamenduetan hobekuntzak.

Lurralde Plan Partzial honetatik ekipamenduei zuzendutako eta espazio askeen proposamenak egiten dira. Ekipamenduei zuzendutako proposamenak, «Balmaseda Identitatea eta Aukera», OE-2 eta «Zalla Zerbitzuen Nodoa»-n OE-2 Egiturazko Operazioetan biltzen dira, eta Espazio askeen proposamenak, «Kadaguako Ibai-Parkea»-n OE-7 Operazio Estrategikoan eta «Sare Berdea»-n JE-10 Jarduera Egituratzailan, II. eranskinean «Egituraketa ekintzak eta estrategi egiteak» agertzen direnak.

96. artikulua.- Ekipamenduetarako proposamenak.

1.- Dauden ekipamenduen artean, ondoko hobekuntzak planteatzen dira:

- a) Landa-gune gutxietsien arteko olgetarako ekipamenduetan. Gainera, Karrantza Harana eta Artzentales bezalako udalerrietan, ekipamendu hauetan, funtsezko hobekuntzak egin behar dira.

- b) Momentuko merkataritza ekipamenduan, Zalla, Gueñes eta Sopuerta-ko kasuetan bezala.
- c) Kultur ekipamenduei dagokionez, Balmaseda eta Karrantza Harana-ko hornidurak hobetzea komeni da, baita eskaintza kulturala handitu eta bisitariak Enkarterrietara erakartzea ere, bere Kultur Ondare Zabalaren publizitatea eginez, eta baita egokitzamendua, mantenua eta instalazio eta eskaintzen diren zerbitzuen hornidura hobetuz ere.
- d) Sopuertako osasun horniduran, bertako biztanleen beharrak bete ditzan, inguruko udalerrien euskarri ere izanez.

2.- Planteatzen diren ekipamenduetarako proposamen berri bezala:

- a) Sopuertako udalerrian, Eguneko Gune bat txertatzen da, Galdames eta Artzentaless udalerrietan zerbitzua eman ahal izango duena.
- b) Inplementatu behar da osasun hornidura, Concha hirigunean (Karrantza Harana) dagoen Lehen-mailako Gizarte Arretako Oinarrizko Unitatea hobetuz osasun-asistentziarako ekipamenduren bat kokatzea komenigarria delarik, bai Karrantza Harana eta baita Trucios-Turtzioz eta Lanestosa bezalako gertuko udalerrietako hirugarren adineko populazioaren beharrak bete ditzan. Ildo horretan, Karrantza Harana-n urritu psikikoentzako laguntza-zentroa eraikitzea aztertu da, osasun-arloko zuzkiduraosatze aldera.
- c) Udalez gaindiko izaera duten kirol ekipamenduen sorrera proposatzen da, esaterako, Trucios-Turtzioz eta Lanestosa-ri zerbitzua eman ahal dien polikiroldegia Karrantza Harana-n eta beste bat Galdames-en Sopuerta-ri zerbitzua eman ahalko diona.
- d) Bizileku gisa, olgetarako ekipamendua indartzeko beharra planteatzen da, Balmaseda, Sopuerta eta Galdameseko udalerrietan, hirigune hauetako bakoitzean gauzatzen diren jardueren euskarri izan dadin.
- e) Bisitariantzako harrera gune bat indartzeko beharra planteatzen da. Gune hau, Karrantza Harana-ko Pozalagua leizearen ondoan planifikatzen da eta «Ingurugiro Landa-Parkea»-n, OE-1 Operazio Egituratzailan biltzen da.
- f) Karrantza Harana-n, Gordexola-ko udalerraren inguruan ibilbide kultural bat planteatzen da eta «Gordexolako Bide Kultural»-ean, JE-10 Jarduera Egituratzailan biltzen da.
- g) Kultur ekipamenduei dagokionez, Artzentaless udalerrian, kultur ekipamenduren bat sustatzea komeni da, gune honetara, bisitarien erakarpena bultzatuz. Proposamen honek, «Sare Berde»-ko, JE-10 Jarduera Egituratzailletako, bizikletentzako bide eta ibilbideekin lotura du.
- h) Artzentaless-en, balio anitzak izan ditzaketan ekipamendu bereziak inplementatzeko ideia proposatzen da. Honela, udalerrian honetan zenbaitetan egiten diren Nekazaritza eta Abeltzaintza Feriak jaso ahal izango dira bertan.
- i) Armañón-eko Parke Naturala eta Ordunteko LIC-aren gertutasuna dela eta, Karrantza Harana-n dauden ibilbideak, xendazaletasunerako, BTT edo zaldiz, moldatu egin behar dira.
- j) El Longar poligonoan (Zalla), Ibilgailuen Azterketa Teknikorako (IAT) Zentro bat jartzea jasotzen da.

- k) Gordexolan, ekimen pribatuarekin finantzatua izan daitekeen tiro-zelai baten sorrera proposatzen da, nagusiki, bazkideen kuoten bitartez finantzatuko litzatekeena. Club egitura izango luke, gunearen gehiengo errentagarritasuna lortzeko eta ahalik eta jende gehien erakartzeko.

Gordexolako zabortegei zaharrearantz jaurtiketa-zelai bat jarri ahal izateko, egokiak diren baimen sektorialak lortu, eta Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren Banakako Azterketa prestatu beharko da. Jaurtiketa -zelaiak Orduntetik Valderejora doan igarobide ekologikoaren moteltze-arloan sartuta dagoenez, neurri egokiak hartu beharko ditu, adierazi ditugun alderdietan eraginik egon ez dadin, horrez gain, Plan Berezi bat prestatu beharko da, indarrean dagoen legeari jarraiki idatzia.

- l) Karrantza Harana eta Artzentales bezalako hirigune nagusietatik urrun dauden gunetarako, telelanaren jardueraren garapenerako lokalen sorrera.
- m) Oinarrizko hornikuntza duten tamaina txikiagoko udalerrietarako, ekipamendu ibiltari bat proposatzen da, musika eta liburuentzako liburutegia, jokoak, interneterako sarbidea, etab., dituen.

97. artikulua.- Hirigune historikoak.

LPP-tik, Enkarterrietako turismo eta kultura aktiboen hobekuntza bultzatzea bilatzen da, hots, eraikin bitxiak, eraikuntza historikoak eta «Balmaseda, identitatea eta aukera» OE-2 eta «Lanestosa-ko Birsorpena» OE-11 Operazio Egituratzailletan zehazten diren jarduerak.

BEDERATZIGARREN TITULUA

LURRALDE PLAN PARTZIALEKO ZEHAZTAPENEN APLIKAZIO ARAUAK

98. artikulua.- Hiri antolakuntzak lurralde antolakuntzarekin duen lotura.

Lurralde Plan Partzialaren zehaztapen lotesleak txertatzeko beharrezkoak diren heinean, aginpidedun diren hiri administrazioek, bere planeamenduaren behin behineko aldaketa edo berrikuspen prozedurak hasiko dituzte. Hauek, ingurumen-eraginaren ebaluazio guztien prozedurapean jarriko dira, momentu bakoitzean aplikatu beharreko araudian oinarrituz.

99. artikulua.- Antolakuntza orokorra.

1.- Planeamendu orokorrak, udalerrri bakoitzean, proiektatutako Lurralde Eredua osatzen duten Plan honetako zehaztapen xedatuak garatu beharko ditu.

2.- Horretarako, lurraldea antolatzen duten bide eta trenbide proposamenak jasoko dira, bizileku eta jarduera ekonomikoetarako eskainitako zoruaren neurketa zehatza eta neurri honekin, ekipamendu, espazio aske eta beste azpiegiturretan xedatutako hornidurak, planeamendu maila honi dagozkion proposamen guztien definizio osagarriak eragotzi gabe.

I.ERANSKINA

UDALETAKO BIZILEKU ESKAINTZAREN

KUANTIFIKAZIORAKO KALKULU ORRIA

Ondoren, Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Eremu Funtzionaleko udalerrien bizileku eskaintzaren kuantifikaziorako era orokor eta koordinatuan xedatutako kalkulu orriaren eredu bat gehitzen da. Momentuko Lurralde Plan Partzialaren arabera eta Antolamendu Arau hauetako «Bizileku Zoruaren Proposamena. Osagaiak» 62. Artikuluko zehaztapenak kontutan izanik, Eremu Funtzionaleko udalerrri guzietan aplikatuko da.

I. ERANSKINA	
BIZILEKU ZORU ESKAINTZAREN KUANTIFIKAZIORAKO KALKULU ORRIA	
1 Osagaia. LURRALDE EREDUKO PARTE-HARTZEAK	
Hazkunde Hautakorra (HH) :	HD: Hazkunde Demografikoa
BBK(LAI) = Habitat Aldizkakoa (HA):	GK: Gogortasun koefizientea
BOO =	CRO: Eskaintzaren gogortasunaren zuzenketa
Ereduaren Inplikazioagatik Bigarren Bizilekua (BB):	HH: Hazkunde Hautakorra
Lurralde Ereduaren Inplikazioak: HH + HA + BB =	L.AI-etan proposatutako Bigarren Bizileku koefizientea
1 Osagaia Guztira	BBK (LAI)
2 Osagaia. HAZKUNDE DEMOGRAFIKOA	
PO = BFT(n) =	BKK: LPP-an proposatutako Bigarren Bizileku koefizientea
AEP= HUT (AE/AE-10)= ⁽⁻¹⁾	HAK.: Habitat Aldizkakoak
P(AE-10)= PA(n)=PO(1+HUT) ⁿ =	MT: Lurralde Eredua
Bizileku beharrak: HD/BFT(n) =	PO: Proiekzioaren oinarri-urteko Populazioa
2 Osagaia Guztira	AEP: Azken erroldako urteko Populazioa
3 Osagaia. FAMILIA EGITURAREN ALDAKETA	
Bizileku berrien beharrak:	P(AE-10): AEP baino 10 urte lehenagoko erroldako Populazioa
PO/BFT(n) -BOO =	PH: Proiekzio aukerako urteko Populazioa
3 Osagaia Guztira	BB: Bigarren Bizilekua
4 Osagaia. ESKAINTZAREN GOGORTASUNAREN ZUZENKETA	
GK =	HUT: Hazkunde Demografikoaren Ureko Tasa
(BOO+C2 +C3) GK =	BFT(n): Batez besteko Familia Tamaina
4 Osagaia Guztira	VEF: Familia egituran Bariazioa
5 Osagaia. BIGARREN BIZILEKUA	
BKK =	BOO: Proiekzioaren oinarri-urteko Bizileku Okupatuak
C2 + C3 + C4 =	
(C2 + C3 + C4) (BKK-1) 0,5 =	
5 Osagaia Guztira	
PLANEAMENDUAN ESKAINTZEKO DAUDEN BIZILEKUEN GEHIENGO KOPURUA	
C1 + C2 + C3 + C4 + C5 =	
GUZTIRA	

(-1) Eraitza negatiboa jasotzen bada, formularen kalkuluertarako balioa era negatiboan kontsideratuko da.

II. ERANSKINA

EGITURAKETA EKINTZAK ETA ESTRATEGI EGITEAK

1. AKZIO EGITURATZAILEAK

1.1 MALABRIGOKO LOTURA (AE-1)

1.1.1.- AKZIOAREN LOKALIZAZIO ETA EGUNGO EGOERAREN DESKRIBAPENA.

Eremu Funtzionaleko oinarrizko errepideen sarea osatuta dago BI-636 (Kadaguako Korridorea) eta BI-630gatik (Karrantzako korridorea), direla bidezko ertzak eta egituratzen dituztenak aipatutako eremuaren barruko komunikazioak. BI-636 errepidea pasatzen da Kadaguako eskumako eremutik. BI-630 bere lehenengo zatian (Balmaseda-Malabrigo) pasatzen da aipatutako ibaiaren ezkeraldeko malda erditik eta Kadagua korridorearen paraleloan. Bien arteko konexioa, egin behar da Balmasedako hiribarruko gunen baten bidez, puntu hori izanez ibaia zeharkatzen duena.

Eremuko hirugarren bide ardatza BI-2701 (Iparraldeko ardatza) eskualdeko errepidea da, komunikatzen duena Malabrigo Muskizekin Sopuertaren bidez eta osatzen duena bigarren sarrera Enkarterrietara Ezkeraldeko Aldetik.

Iparraldeko ardatz honek elkartzen du Karrantzako Korridorea Malabrigon, eta honen bidez Kadaguako Korridorearekin pasatzerakoan Balmasedako hiribarruko gunea.

1.1.2.- HELBURU ETA IRIZPIDE EGITURATZAILEAK AKZIOARENTZAT.

Beharrezkoa egiten da azpiegitura baten exekuzioa hobetzeko komunikazioa eremuaren hiru bideen artean eta bermatzen duena konexio on bat Mendebaldeko zonaldearekin, osatuta Lanestosa, Karrantza Haran, Trucios-Turtzioz eta Artzentalesengatik, murrizten ibilbideen denbora, lehenengo pausu bezala egungo desoreka hobetzeko. Kontsideratzen da egindako bide proposamenik garrantzitsuena, jasota egonda Bizkaiko Errepideen Planean.

1.1.3.- ANTOLAKUNTZARAKO HELBURUAK ETA IRIZPIDEAK.

Akzio honen helburua da egitea Kadaguako Korridorearen (BI-636) konexio zuzena Karrantzako Korridorearekin (BI-636) Malabrigon, bidezubi baten sorkuntzaren bidez La Herrera (Zallako lotura) auzoaren altueran, salbatzen Kadagua egiten duen harana, konektatzen zuzenean Kadagua eta Karrantzako Korridoreak pasatu behar gabe Balmasedako alde zaharretik. Azpiegitura hau aurkitzen da jasota O-3 planoan «Komunikazio Azpiegiturak».


Honekin lotuta, hobetu behar da egungo soluzioa Iparraldeko ardatzarekin (BI-2701), emanez soluzio unitario bat Eremu Funtzionaleko hiru ardatz egituratzaile gurutzapen puntuari.

Azpiegitura honen exekuzio ondorio bezala, desplazamendu denboraren murrizketaz gain, sortzen da funtsezko hobekuntza bat Balmasedako alde zaharrean, murrizten era nabargarrian zirkulazioa Enkarterrien mendebaldeko zonaldean.

1.1.4.- ERABAKI LOTESLEAK.

Konfiguraturako eskema bidea Egituratze akzio honetan, izaera arterial eta loteslea dauka, aurreiritzirik gabe jakiterakoan bidea moldagarria izan ahal dela antolamenduan.

Antolamenduko planoetan agertzen diren bideetako trazek orientatzeko balioa dutela jo behar da.



1.2.- IPARRALDEKO ARDATZA (AE-2)

1.2.1.- AKZIOAREN LOKALIZAZIOA ETA EGUNGO EGOERAREN DESKRIPZIOA.

Muskizetik Malabrigora Sopuertatik (Iparraldeko ardatza) BI-2701 errepidea, Balmaseda-Zalla Eremu Funtzionaleko bigarren «atea» da Bilbo Metropolitarretik, eguneroko 6 000 auto baino gehiagoko zirkulazio intentsitatearekin, Kadaguatik sartzen diren ia ia 20 000 autoen aurrean.

Hala eta guztiz ere, hurbiltasun fisikoa Nerbioi Ezkerraldeko Eremuarekin eta bere potentzialtasuna Eremuko ipar-mendebaldeko zonalde bide egituratzaile bezala, gutxituta ikusten da desplazamenduen astirotasunagatik, bide okertsua dela eta baldintzatuta bere adaptazioagatik Barbadun haranera, aurreratze bide gutxiegiekin.

Konexio puntuak errepide desberdinen artean narriotsuak dira, eragiten dituzte itzulerak eta norabide aldaketak, eta zeharbide batzuk baita ere, eragiten dituzte zirkulazio fluxu handiak interferentzia askorekin.

1.2.2.- HELBURU ETA IRIZPIDE EGITURATZAILEAK AKZIOARENTZAT.

Errepide honen hobekuntza izan daiteke Iparraldeko Eremu zonaldearen (Galdames, Sopuerta eta Artzentales) elementu dinamizatzaile bat, bultzatzen bigarren bide erlazio hau Ezkerraldeko Eremuaren iparraldeko udalerriekin, Bilbo Metropolitarr eta Bilboko Portuarekin aktibitate zonalde nagusia, errazten Enkarterriko zonaldearen biztanleriaren ailegaerraztasuna, horniduretara eta zerbitzuak metropolitarr eta herrialde mailan.

Iparraldeko Ardatz honen garapenak bilatzen du Sopuertaren bultzaera Eremu Funtzionaleko azpiburualde bezala, errektore funtzioekin Artzentales eta Galdamesen gainean, guneei mesede egingo die zentralitate berri honek.

1.2.3.- ANTOLAMENDUAREN HELBURUAK ETA IRIZPIDEAK.

- Funtsezko elementua da bultzatzeko Iparraldeko Ardatza, Sopuerta saihebidetaren sorkuntza, ekiditeko duena zirkulazioa Mercadillo eta Baluga guneean, non existitzen da errepidearen estuera, oso arriskutsua dena, egiten beste bide aukera bat ekialdetik, bide ezaugarri egokiekin Muskiz eta Malabrigo zirkulazio fluxuarentzat.


Gainera inplikatu du, gero egin behar den egungo zeharbidearen birmoldaketa hiri barruko kale batean, egokiagoa proposatzen diren egoitzazko hazkunde berriarentzat. Sopuerta saihebidetaren exekuzioaren atal bat islatuta dago Akzio egituratzailean AE-5ean «Hiri barruko saihebidetak eta hiri barruko kaleen birmoldaketa»

- Bide honen hobekuntza eskatzen du akzio multzo bat eta eragiten dutenak bihurguneen zuzenketak eta kontraperalteak, plataformaren zabalkuntza eta orokorrean, zirkulazio fluxua errazten dutenak, hobetzen zerbitzu mailak bat etortzen direnean bere zirkulazio eta funtzionalitatearekin, narrioak aurkezten dituzte zentzu honetan, jasota egonda Bizkaiko Errepide Planean.

Helburua da murriztea desplazamendu denborak eta areagotzea aurreratze zatiak.

- Beharrezkoa egiten da baita ere hobekuntza biribilgune eta gurutzeguneen bitartez, Iparraldeko artikulazioetan, hurrengo errepideekin:

- BI-3602 (Gueñesetik Malabrigora Zallatik) Erretola-Malabrigos, Zallarako sarbidea.
- BI-3632 (Umaranetik El Arenaora Galdamesetik) El Arenaoren, Galdameseko sarbidean.
- BI-3611 (El Carraletik La Herbosara) El Carralen, Herbosa sarbidean (Sopuerta).
- BI-3614 (Sopuertatik Traslaviñara) Mercadillon, Artzentalesko sarbidean.



- Egituratze akzio honekin lotuta dagoen beste aktuazio bat da BI-3632 errepidearen hobekuntza da, Galdames udalerraren sarbidean, hobetzeko udalerrri honen ailegaeraztasuna Iparraldeko Ardatzetik.
- Halaber, Iparraldeko Ardatzaren errefortzuak, bultzatuko ditu aktibitate posibleak erakarrita oso gertu dagoelako bide nagusitik, horregatik proposatzen da bai kirol turistiko hornidura handia bai, azpiegitura turistikoaren (gehituta dagoena OE-6 operazioaren barruan «Iparraldeko atea») sorkuntza, eta baita La Aceñan (Galdames) Existitzen den aktibitate ekonomikoaren zabalkuntza.

1.2.4.- ERABAKI LOTESLEAK.

Izaera zehaztuarekin udalerriangatik, lotesleak izango dira antolamendurako irizpideak eta erabakiak, agertzen direnak akzio honen 1.2.3 puntuan.

Antolamenduko planoetan agertzen diren bideetako trazek orientatzeko balioa dutela jo behar da.

1.3.- MENDEBALDEKO AILEGAERRAZTASUNAREN HOBEKUNTZA (AE-3)

1.3.1.- AKZIOAREN LOKALIZAZIOA ETA EGUNGO EGOERAREN DESKRIBAPENA.


Bi dira baldintzapen nagusiak orokorreko Eremu Funtzionaleko komunikazio bideen garapenerako eta batez mendebaldeko zonalderako (Karrantza Harana, Lanestosa eta Trucios-Turtzioz). Alde batetik, orografia topografikozko ezaugarriak, oso menditsua, baldintzatzen dute udalerrri eta guneen ailegaerraztasuna, mugatzen bere funtzionalitatea zonalde konexio bezala, ez bakarrik Eremu Funtzionaleko udalerrien artean, baizik eta, baita hauen artean eta beste autonomi erkidegoko lurraldeen artean. Beste alde batetik, biztanleriaren dentsitate baxuak desbideratu du lurraldearen beste zonalde batzuetara daukatenak eskaera sozial handiagoa azpiegituren inbertsioetan.

- Potentziaztea aisialdi hornidura, ostatu mailan laguntza bezala balio izateko hiribarruan egiten diren aktibitateentzako.

2.6.4.- ERABAKI LOTESLEAK.

- Izaera zehatzarekin udalerrionatik, lotesleak izango dira irizpide eta erabakiak antolamendurako, islatuak akzio honen 2.9.3 puntuan.
- Kirol hornidura turistiko handia, konpondu eta integratu beharko du hiribarruko saihasbide bat, ulertua «integratutako hiribarruko kaleak» bezala, ahalbidetzen Sopusueta erdiko BI-2701 errepideko trafikoa desbideratzea (El Crucero, Capetillo, La Baluga eta Mercadillo).
- Sopusueta udalerriko planteamenduak, egin beharko du partzialki, lurzoru erreserba bat destinatua edozein babes erregimen publikoko egoitzara edo ahalbidetzen promozio mistoa Egoitza Sozial Errendamendu Babestuan eta Egoitza Babestua Propietate Osoan.

2.7.- KADAGUAKO PARKE FLUBIALA (OE-7)

2.7.1.- AKTUAZIOAREN LOKALIZAZIOA ETA EGUNGO EGOERAREN DESKRIKAPENA.

Operazio estrategiko hau lokalizatzen da Kadaguako ertzen inguruan, Balmaseda, Zalla eta Gueñes udalerrietatik pasatzerakoan.

Gaur egun, osatuta dago bi espazio motengatik: aurkitzen direnak planteamenduagatik klasifikatutako lurzoruetan, daudenak eraldatuta edo eraldakuntza prozesuan, non aurreikusita dago balore altuko aktibitateen kokapena, hornidurak eta zonalde berdeak.

Baita ere daude espazioak urbanizagarri ez den lurzoruan, mantentzen dutenak bere egoera naturala, osatzen ortuak edo larre zonaldeak eta badaukatenak ibaiertz landaretza.

2.7.2.- HELBURU ETA IRIZPIDE EGITURATZAILEAK AKTUAZIOARENTZAT.

Operazio Estrategiko honen helburua da, lortzea eratzea benetako ardatz berde bat egituratzen duena Kadagua ibaiak bideratzen duen hiribarruko ibilbide zentrala, horrela protagonismoa daukaten espazio hauek izatea ingurumen balorea handitzeko hiribarruko irudiaren erakargarritasuna eta biztanleriaren bizitza kalitatea.

Parke honek gainera, ahalbidetuko du hiribarruko inguruaren komunikazioa inguru naturalarekin, bidezidor, bide gorri, etab. batzuen bidez, konektatuko direnak Kadagua Parke Flubialarekin. Horregatik Kadaguako Parke Flubiala da, Enkarterrien proposamenik handigurena, lotzen dena zuzenean AE-10 «Malla Berde» eta AE-11 «Kadaguaren Biderapen Plana» rekin.

2.7.3.- HELBURU ETA IRIZPIDEAK ANTOLAMENDURAKO.

Parke honek hiribarruko izaera handiagoa dauka, garatzen doa Kadagua ibaian zehar eta osatzen ditu hiribarruko hutsune batzuk, bat egiten dutenak Kadagua Biderapen Planak planteatu dituen hutsuneekin Zallatik pasatzerakoan eta amaitu arte Zallako alde zaharrean, eta puntu horretatik, ibaiaren zonalde uholdegarriekin.

Zehazki, proposatzen dira eremu batzuk ibaian zehar non kokatzen dira hurrengo erabilerak:

- **Aisialdiko zonaldea:** espazio hauetan, egon ahal dira aktibitate mota ezberdinak bai aisialdikoak, kirolezkoak edo kulturalak, beti ere eragiten ez badituzte eraikuntzak, bat egiten uholdagarri zonaldean dauden baldintzekin. Proposatzen dira hiru zonalde, bat Balmasedan, beste bat Soduperen ondoan eta bestea Zallan.

- **Lorategi botanikoa eta aisialdia:** kontserbazio, dibulgazioa eta flora ikasketa zentro bat izango zen. Proposatzen da Zalla eta Aranguren artean kokatuta dagoen zonalderako, zentzu batean balioko zuen gutxitzeko Arangurenak dauzkan gabeziak espazio hauetan, sustatzen aisialdia eta ingurumen sentsibilizazioa.


Komenigarria izango litzateke izatea eremu honetatik gertu, ingurumen heziketa zentro bat hesitzeko aktibitate eta ingurumen sentsibilizazioarekin, garatzeko espazio hauetan, bai ikastetxe eta erakundeei zuzenduta bai jendeari orokorrean, baita errestituzio eta aisialdi zonalde bat, eta bisitariak erakartzeko beste elementuak. Halaber, komenigarria izango litzateke lorategi botanikoa izatea espazio naturalaren ekosistemen errestituzioa, bere aleak identifikatuta egotea bere izen zientifikoarekin, arrunta eta banaketa eremua.

- **Esperimentu lantze zonaldeak:** ahalbidetu ahal dira ortu lantze zonalde batzuk edo aisialdikoak tutoretzatuak udaletxeengatik, aprobetxatuz ibaiaren gertutasuna, helburu didaktikoekin, esperimentazioekin, ekologikoekin, etab.

Espazio hauen moldapenak eskaintzen ditu aisialdi aukera berriak biztanleri sektore zabalentzat eta bereziki helduentzat, zeren eta espazio mota hauen hartzea oso baikorra izaten baita jubilatuentzat. Ezarri behar da moldapen bezala lantzea era ekologiko batean, ahalbidetzeko pasealariak erabiltzea ibilbideak eta bisitatu dezaketen, etab. Ezarri behar da erabilpen araudi bat azpi udalerrri erabilerarekin derrigorrezko betekizunarekin bertan lan egiten dutenentzat. Halaber, komenigarria izango litzateke lantze ekologikoarekin zerikusia daukaten kurtsu hezitzaileen inplementazioa.

- **Faunaren behatokia edo fauna basatiaren parkea:** ahalbidetu ahal dira zonalde batzuk izango dutenak informazio puntu minimo bat banatzeko materialarekin, portaera arauarekin, seinaleztatutako ibilbidearekin, interpretazio panelekin, etab.

2011ko azaroaren 25a, ostirala



Proposamen guzti hauetan, erraztu beharko ziren sarbideak eta barruko ibilbideak, ahalbidetu ahal izateko ere gidatutako bisitak.

Aisialdi zonalde hauek potentziatu nahi da, balio dutenak gozatzeko inguru giroaz, potentziazten espazio hauen erabilera arrazionala, bermatuz Kadagua ertzen balore naturalen babes eta hauen hobekuntza. Kadagua ibaiaren ertzetik ibilbide bat, egingo zuen ardatz konektore bat bezala eremu eta udalerrri desberdinen artean. Kadagua Parke Flubialaren garapenerako kontuan izango dira hurrengo irizpideak:

- Ekidituko dira hiribarruko parkeak edo lorategi-plaza zonalde bezalako garapen motak, birkreatzeko ahal den eta naturalagoa den habitata bat.
- Zainduko da ertzen babes banda bat parkean zehar, zeintzuk geratu behar dira edozein aktuaziotik libre.
- Sustatu behar dira berlandaretza aktuazioak zuhaitzik gabe dauden zonaldeetan.
- Ekidituko dira produktu kutsagarrien erabilera bai ibaiarentzat bat landaretzarentzat.

Parke honek azpi udalerrri izaera dauka eta bideratuta egongo zen ez bakarrik Enkarterrietan bizi direnentzako, baizik eta, Bilbao Metropolitan Eremua osatzen duen biztanleriaren osotasunera ere bai.

2.7.4.- ERABAKI LOTESLEAK.

- OE honen garapen planteamenduak izan beharko du kontuan 2.7.3 atalean aipatutako helburuak eta irizpideak; hala eta guztiz ere, elementuen marraketak edo proposatzen diren erabilpenak Parke Flubialentzat eta gehituta daudenak fitxa honen dokumentazio grafikoan, orientabide izaera daukate.
- OE-7ren esparrua, gehituta AE-11 «Kadagua Biderapen Plan»ean, eraginda egongo da honen erabakiengatik.
- Bermatu beharko da jarraitasuna eta Parke Flubialaren oinarrizko ezaugarriak eta integratzen duten beste elementuenak.

2.7.5.- BATERAGARRITASUNA.

Era integratuan bateragarri egin nahian Kadagua Parke Flubialaren esparru antolamendua, egokia kontsideratzen da Azpi udalerriko Plan Berezi bat egitea, bermatuko duena esparruaren antolamendu guztia erantzutea komuneko proiektu bati daukana arau orokorrak zehaztuak LPP-gatik.

2.8.- HAUTAZKO HAZKUNDE LANDA INGURUAN (OE-8)

2.8.1.- AKTUAZIOAREN LOKALIZAZIOA ETA EGUNGO EGOERAREN DESKRIBAPENA.

Bilbao Metropolitarreremutik gertuen aurkitzen diren landa guneak (Gordexola, Gueñes eta Zalla) edo Ezker Aldera (Sopuerta eta Galdames), dira presio gehien jasotzen dutenak, erakutsiz antzeko arazoak, baina maila txikiagoan, metropolitarreremuan dauden guneekin alderatuz.

Udalerrri hauetan, existitzen egoitzazko da benetako eskaera bat urbanizagarri ez den lurzoruan, baina materializatzen ez dena landa guneetan, baizik eta, etxebizitza unitario isolatu bezala, daukan erreperkusio ezkorrearekin inguru fisikoan.

Aldiz, okerrago komunikatuta dauden udalerrrietan dauden landa guneak (Artzentales, Trucios-Turtzioz eta Karrantza Harana), erakusten dute arazo oso desberdinak, «urruntasun» pertzepzioarekin biztanleriarentzat, eraginda dagoen bide egituragatik eta bere orografia baldintzengatik, mugatzen duena egoitzazko eskaera, hazkunde endogenoai.

Mendi zonaldean (Karrantza Harana eta Trucios-Turtzioz), biztanleria mantendu egiten da batez ere landa guneetan. Existitzen diren muga legeen aurrean gune hauen hazkunderako eta dauden arazoak identifikatzeko zabalkuntza eremu berriak hiribarruko eta urbanizagarri diren lurzoruentzat, aurkitzen gara hirigintza hazkunde muga arazo baten aurrean.

Landa guneek daukaten papera eremu honetan garrantzi handikoa da, bai bere berrogeita zazpi (47) zenbakiagatik, bai bere biztanleriaren finkatze funtzioagatik landa zonaldean eta bere paisai balore mantenimenduagatik. Eremu Funtzionalaren barruan dauden landa eta mendi zonaldearen indarberritze eta garapen politika guztiak, egin behar dira gune hauen indarberritzetik.

Karrantza Haranaren kasua bereziki korapilatsua da, ezaugarritzen delako bere guneen sakabanatzeagatik eta bere biztanleri eskasagatik, ahalbidetzen duena izaten landa irudia eta paisai kalitate ederra. Udalerrri oso zabala da, non biztanleri gehiena bizi da nekazal ustiapenetara lotuta, horrek azaltzen du zergatik berrogeita bost (45) biztanleri guneetatik, berrogeita hiru (43) landa guneak direla. Gune horiek, orokorrean ez dituzte hornidurak eta euren gaineko presioa oso txikia da. Komenigarria izango litzateke, potentziaztea garapena eta Ambasaguas eta Concha arteko lotura osatzeko gune homogeneo bakar bat bezala.

Nahiz eta guzti hori, udalerrri hauek aurkezten duten paisai kalitate eta ingurumen handiko kalitatea oso lotuta daudenak landa munduarekin, egiten dute izatea eremu oso posibleak izateko bigarren egoitza, landa turismoa, aktibitateak lotuta aisialdia eta naturarekin etab... horregatik, potentziaztea beharko zen asentamendu mota hau, sendotzen udalerrri bakoitzeko gune nagusia eta fabore egiten aukerako ekonomi aktibitateen sorkuntzari. Horretarako, neurri handi batean lagunduko zuen, puntu batzuen bide marraketaren hobekuntza.

2.8.2.- HELBURU ETA IRIZPIDE EGITURATZAILEAK AKTUAZIOARENTZAT.

LPP-etik ezartzea interbentzio zehatz modu bat Karrantza Haraneko mendi zonaldeentzat, non biztanleria mantendu egiten da gehien bat landa guneetan eta non ezin izan dira identifikatu hiribarruko eta urbanizagarriak diren lurzoru berrien zabalkuntza eremuak.

2.8.3.- HELBURU ETA IRIZPIDEAK ANTOLAMENDURAKO.


Planteatzen da eraldatzea landa gunea batzuk kokatuta daudenak hiribarruko lurzoruan hurrengo hastapenetan oinarritzen:

- Asentamendu historiko bezala konfiguratuta dagoen propietatearen egitura (partzela txikiak elkartuta existitzen diren guneetan tradizio luzeko biztanleriarekin).
- Gunearen hazkunde ahalmena, analizatzen inguruan dauden lurzoru gai eta erabilgarriak.
- Eraldaketa hau jasan ahal duten azpiegiturak.
- Garraio publikoaren hurbiltasuna.

LPP-etik, analizatu nahi izan dira aipatutako baldintza guztiak dituzten landa gune guztiak, Karrantza Haranean. Lurralde ikuspuntutik eta lotesle izaerarekin, honako hauek dira hazkunde berriak jasotzeko gunerik aiposenak, hau da, entitate erredensifikagarriak deitutakoak: hirigune ondoan dauden bi guneak, alegia, Soscaño eta La Tejera (Karrantza Harana). Gune horien zati handi bat barne hartu eta berriz trinkotuko da, Concha-Ambasaguas hirigunearen ondoan hazkunde jarraitua sortu ahal izateko.

Esku hartzeko egin den proposamenari jarraiki, Udalak ondo aztertu behar du Concha-Ambasaguas hirigunearen ondoan dauden bi gune horien zati bat hiri-lurzoru bihurtzeko dagoen aukera, eta, horretarako, oinarri hauek hartu beharko ditu kontuan:

- Concha-Ambasaguas guneak hazteko duen gaitasuna; hori jakiteko, gunearen ondoan dauden eta egokiak eta baliagarriak diren lurzoruak aztertu beharko dira.
- Eskatutako azalera doitu beharko da, behar-beharrezkoa den horretara mugatuta.
- Eraldatze-prozesua ondo jasateko egokiak diren azpiegiturak.
- Hazkundera murriztu dezakeen muga geografikorik ba ote den.
- Sortzen den hiri-egiturak jarraipena eman beharko dio hiri-bilbeari.



Entitate erredensifikagarri bezala identifikatutako guneek, eramaten dute betidanik egon den landa gune mugaren berrausnarketa bat, birdefinitzen eta murrizten bere mugaketa.

2.8.4.- ERABAKI LOTESLEAK.

- Izaera zehatzarekin udalerringatik, lotesleak izango dira irizpide eta erabakiak antolamendurako, islatuak akzio honen 2.8.3 puntuan.
- LPP honek proposatutako lurralde ereduarekin ados, hirigintza planteamenduak bakarrik ahalbidetu ahal izango du entitate erredensifikagarri gisa jasota dauden landa-guneak hiri-lurzoruan sartzeko aukera, baldin eta gune horien zati handi bat barne hartu eta berriz trinkotzen bada, hirigunearen ondoan hazkunde jarraitua sortu ahal izateko.
- Udalerriko planteamenduak bere berrikustean, aztertu behar du era zehatzean entitate erredensifikagarri bezala identifikatuta dauden guneak, egokitzeko ahal den eta gehien egindako proposamenenak lurzoruaren benetako beharizanetara. Ez da ulertu behar, betiko landa gunearen osotasuna bete behar dela hiribarruko eta urbanizagarri diren lurzoru zabalkuntza eremu berriez.

2.9.- NEKAZAL ABELTZAL PROMOZIOA (OE-9)

2.9.1.- AKTUAZIOAREN LOKALIZAZIOA ETA EGUNGO EGOERAREN DESKRIBAPENA.

Lehenengo sektoreak antzinako garrantzia galdu egin du era progresiboan, gero eta biztanleri portzentai txikiagoa dago sektore honetaz okupatzen dena, kasu askotan bermatuta egon gabe, belaunaldiko txandakaketa.

Enkarterrien mendebaldeko zonaldeak jasan du biztanleriaren galera garrantzitsua, izanda gainera biztanleriaren zahartze eremurik gehiago daukana. Biztanleriaren gehiengoa bizi zen lotuta nekazal-abeltzal ustiapenetera. Gizakiaren laborea eta ingurumen lana uzteak, badauzka ingurumen, paisai, kultura eta lurralde ondorio nahi ez izatekoak.

Lehenengo sektorearen aktibitatearen gutxiera, potentziatzen ari da baso ustiapen aurrerakada kontrapartidan nekazal-abeltzantza aktibitate edo baso naturalarekin, ekartzen duenarekin lurzorua balore galera, biodibertsitatea eta paisaia, Trucios-Turtzioz kasuan bezala, non eman da hazkunde oso garrantzitsua basogintza industrialean.

2.9.2.- HELBURU ETA IRIZPIDE EGITURATZAILEAK AKZIOARENTZAT.

LPP-ak kontsideratzen du aktibitate ekonomikoa Eremu Funtzionaleko mendebalde zonaldean eutsita egon behar dela tradizionalezko aktibitateengatik eta balore altuko beste batzuegatik, turismoa bezala, suposatu barik tradizionalezko izaeraren alterazioa zonalde honetan.

Horregatik, LPP-ak proposatzen ditu hornidura handiak bokazioarekin balore altuko aktibitate promozio ekonomikorantz, beti lotuta lurraldearen tradiziozko erabilerei eta turismoari.



Mantentzea tradiziozko lurzoruen erabilerak garatzen direnak orekan inguru naturalarekin eta bere espezieekin, eta bereziki, nekazal-abeltzantza erabilera estentsiboak bere lotura estuagatik habitatarekin eta paisai bereziekin.

2.9.3.- HELBURU ETA IRIZPIDEAK ANTOLAMENDURAKO.

LPPk argi jasotzen du sustapen ekonomikora eta enpresa-arloko nekazaritza eta abeltzaintza garatzera zuzendutako zerbitzuak sendotzeko aukera; horiek indar berezia izango dute Artzentalesen eta Karrantza Haranean, eta helburu hauek izango dituzte:

2011ko azaroaren 25a, ostirala

- Laguntza ematea nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueri eusteko eta hobetzeko, eta, era berean, landa-guneetako turismoa bultzatzeko - sortzen ari den jarduera berria baita Enkarterriko mendebaldean-. Ildo horretan, dinamizazioa, ikerketa eta prestakuntza bultzatuko du lehen aipatutako arloetan, eta garrantzi berezia emango die gazteen prestakuntzarako zerbitzuei, gazteak baitira, belaunaldi-txanda hartuta, sektore horretako jarduera bultzatuko dutenak.
- Bultzada ematea nekazaritza edo abeltzaintzari lotutako industriak, edota I+G arlokoak diren eta landa-gunearekin zerikusia duten industriak bertan koka daitezzen, betiere, industria horiek kutsatzen ez badute, sektore horretako jarduera indartzen badute, eta berritzaileak badira.
- Laguntza ematea enpresa berriak sor daitezzen, eta helburu hori lortzeko egiten diren hitzaldiak eta biltzarrek bideratzea.
- Enkarterriko mendebaldean eskaintzen diren zerbitzuak bideratzea eta indartzea, enpresa-mintegien antzera jarduten duten ereduak sortzeko, eta, era horretan, nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-arloko jarduerak sustatu eta garatu nahi dituzten sustatzaileak bertan koka daitezzen.
- Komunikazio eta sentsibilizazioko estrategia bat prestatzea eta garatzea, landa-gunea eta bertako jarduerak biztanle guztiei ezagutzera emateko eta haiengana hurbiltzeko.



Jasotako zerbitzuak sendotu eta hobetu ahal izateko, prozedura bat finkatu beharko da. Horren bidez, sustapen ekonomikoa eta enpresa-arloko nekazaritza eta abeltzaintza garatzera zuzendutako helburuak lortu nahian, eskualdean lan egiten duten erakunde eta eragile guztiak koordinatuta eta lankidetzan arituko dira.

Proposamen honekin lotura zuzena duen LPP-ren arabera, FEVEren trenbideak (Bilbo-Santander) Traslaviñan (Artzetales) duen geltokia hirigunetik hurbilago dagoen leku batera eraman beharko da. Era horretan, garraio publikoa eskuragarriago egongo da, hala Traslaviñan bizi diren lagunentzat, nola alderdi horretan etorkizunean egon daitezkeen horientzat –aurreko puntuetan zehaztutako helburuek hori bultzatzen baitute–. Bestalde, arlo horretan, Bizkaibus autobus-linearen geralekuak daude oso hurbil.

2.9.4.– ERABAKI LOTESLEAK.

Izaera zehatzarekin udalerrionatik, lotesleak izango dira irizpide eta erabakiak antolamendurako, islatuak akzio honen 2.9.3 puntuan.

2.9.5.– BATERAGARRITASUNA.

Artzetalesen egindako proposamenaren espazioaren barruan, existitzen da «Plan Berezia La Reneja Erabileren Antolamendua» urbanizagarria ez den lurzoruan, instalazio batzuekin (hotela, jatetxea, osasun zentroa, etab.) onartu zena behin betiko BASO AGINDU 5/2008, urtarrilaren 8, Plan Berezia La Reneja (Artzetales) Erabileren Antolamendua (EIA) Garraio eta Hirigintza Saila (Bizkaiko Foru Aldundia). Aktibitate hau ez da bateraezina LPP honek egiten duen proposamenarekin, horregatik, ulertzen da osagarritzkoa bezala.

2.10.- NEKAZAL PAISAI SISTEMAK (OE-10)


2.10.1.- AKTUAZIOAREN LOKALIZAZIOA ETA EGUNGO EGOERAREN DESKRIBAPENA.

Enkarterriko inguru naturalak badauka izaera berezi bat ahalbidetzen duenak hasia ingurumen egoera oso faboragarritik. Karrantza Harana, Artzentales eta mendebaldean dagoen Sopuerta, inguruarentzat hain hunkigarriak diren eraldaketa prozesuak jasan ez duten udalerrak dira, lurraldeko beste eremuak ez bezala. Lehenengo sektorearen kontserbazioa bitzta modua bezala, uzten digu aurkitzen gaur egun, inguru bat ingurumen kalitate paregabearekin. Horregatik badauka, dibertsitate biologiko balore handienetarikoa bat Bizkaiko Lurralde Historiko osoan.

Inguru hau kontsideratzen da zaindu behar den elementu bezala gaur egungo kontserbazio moduan, ulertuta zaindu behar dela gizakiaren lana orainarteko ustiapen baldintza berdinetan. Espazioaren aberastasuna eta biodibertsitatea eta beraz bere paisaiarena, konformatuta datoz gizakiaren lanagatik eta bere lanagatik landa inguruan.

Antzematen da Eremu Funtzionalean paisai dibertsitatearen gutxipena eta sinplifikazio desagerekin gure gertu dauden eremuetan mosaiko paisaiarekin edo landazabal atlantikoarekin, honekin lotuta doa abelur estentsibo aktibitatearen desagerekin.

Gainera, oraindik existitzen da nahikoa ez den eraldatuta dauden paisaien balorazioa baso-nekazal kulturengatik, Karrantza Haraneko zonaldean gertatzen den moduan edo lotuta daudenak meatze ustiapenekin Triano Mendietan, bi kasuek birbalorizatzen dituzte inguru hauek.



Kontrastaketan landazabalekin, paisaiaren zabalkuntza handietan nagusitzen da baso lantze berdinegatik aldapa eta haran ugarietan hirukoizten dutenak zabalkuntzan baso naturalei.

Nabarmendu diren paisaiaren beste arazo batzuk, egongo zen erripako landaretza desagerekin, etxolen ugarietan ibaien ibarretan, distortsioa paisaietan meatze ustiapen batzuen agerpenagatik sortzen ari direnak lurrazpiko ondarearen suntsipena (haitzulo eta egitura karstikoak), kareharri meatze ustiapen aktibitatea dela eta.

Aparteko aipaketa merezi du, Gueñeseko Azpiestazio Elektrikoaren presentzia, eskualdeko garrantziarekin, konektatuta tentsio handiko elektrizitate-hari ugariekin eragiten dituztenak begibistako eta paisai inpaktu handia.

2.10.2.- HELBURU ETA IRIZPIDE EGITURATZAILEAK AKZIOARENTZAT.

Balore natural gehien dituzten inguru eta paisaiak bermatuta daukate bere babes legala eta okupatzen dute gainazal garrantzitsu bat eremu honetan (Armañongo Pake Naturala, Triano Mendietan Biotopoa, Ordunteko LIC). Gainera, espazio hauen gehiengo kokatzen da, Mendi Publikoetan, menperatzen Erabilera Publiko Mendien figura, erraztuko duena bere baliabideen aprobetxamendu sostengarria eta mehatxatutako espezieen kontserbazioa.

Hala eta guztiz ere, ez dago bermatuta babes landazabal atlantiar paisaiarentzat, horregatik da LPP-ren lehentasunezko helburua, mantentzea paisaia era aktiboan nekazal-abeltzantza potentziala eta nekazal-abeltzantza tradizional erabilera dagoen eremuetan, bermatzen bere balore ekologikoen berrikuntza eta kontserbazioa, eta Eremu Funtzionalean, bat egiten dutela atlantiar landazabal paisaiekin, hauek lotuta daudelako biodibertsitate presentzia garrantzitsu batera.

Bai Paisaiaren Hitzarmen Europeoan bai Eusko Garapen Sostengarri Estrategian (2002-2006), aipatzen dute balore honen ingurumen babesaren beharra, hartzen dituela giza aktibitateak eta inguru fisikoa.

2.10.3 HELBURU ETA IRIZPIDEAK ANTOLAMENDURAKO.

Antolamendu O-1 planoan «Inguru Fisikoa. Zaindu eta hobetu behar diren elementu bereziak», LPP-ak definitu ditu esparru batzuk «Nekazal Sistemak Paisai balorearekin», hartzen dutela Karrantza eta Artzentales haranak aparte, beste batzuk potentzial handiarekin oraindik aurkitzen direla gutxi erabilia edo ez dira oso ezagunak, Sopuerta udalerriko mendebalde zonaldea bezala, Artzentalesen ondoan hartzen duela Zalla udalerraren ipar-ekialde zatia; Pico del Solar eta Peña del Mozo aldaparen ekialdea, Galdames udalerraren mendebaldearekin eta Gueñeseko zonalde txikiekin muga egiten, aurkitu ahal ditugunak San Pedro Goikouri eta Garain.

Esparru guzti hauentzat LPP-ak ezartzen ditu hurrengo helburu eta irizpideak antolamendurako:

- Kontziente izanda lurzorua balorea galdu egin dela baso ustiapen aurrerakada kontrapartidan nekazal-abeltzantza aktibitatearekin edo baso naturalarekin, ekiditu behar da udalerriko planteamendutik baso ustiapenak edo basogintza industrialak inbaditzea «Nekazal Sistemak Paisai balorearekin» mugatutako esparruak, horregatik debekatuko dira argi eta garbi baso ustiapenak esparru hauetan.
- Espazio hauek badaukate bere mugaketaren barruan, landa guneak eta existitzen diren eraikuntzak, osatuz elementu erabakigarriak eta oinarrizkoak, habitata hauen mantenimendurako bere egoera naturalean. Zentzu honetan, salbuespen bezala onartuko da ongi justifikatuta, eraikuntza edo proposamen berrien garapena, potentziatuz landa aktibitatearen mantenimendua eta garapena.
- Nekazal-abeltzantza aktibitatea mantentzen denean, bermatuko da erabilera sostengarrien jarraipena zaintzen dutena paisaiak, landazabal atlantiarra bezala, kontsideratzen direla balore

handiko nekazal paisaia eta eskaintzen duena presentzia garrantzitsua Eremu Funtzionalean. Zentzu honetan, Eremuan lantzearen berreskurapena txakolina ekoizteko, gehitu ahal du dibertsitate elementu bat landazabal atlantiar paisai hauei.

- Erakunde Publikoen inplantazioa laguntza ekonomikoen promozioan landa munduarentzat bere izaera estrategikoagatik eta bere balore ekologiko, paisai, sozial eta kulturalengatik. Laguntza hauek eman behar dira batez ere, mantentzera Nekazal Paisai Sistemak, laguntza ekonomikoekin nekazariarentzako edota abeltzainarentzat, mantentzeko, zaintzeko eta lantzeko aldiro landazabal eta mosaiko pasaiak edo landazabal atlantiar zabalkuntza handiak.
- Tentsio Handiko 220 kV lerro elektriko berria, La Jara-Vallegon, bere marraketa eguneratzen ari da Espainiar Sare Elektrikoa eta zeharkatuko duena Eremu Funtzionala, eragin ahal du «Nekazal Paisai Sistema» LPP honengatik zehaztua, Artzentales eta Sopuerta artean. Horregatik islatutako aukerak do karrejuak marraketarako, Espainiar Sare Elektriko azterketan, garatu behar da ekialderantz dagoen aukera, ekiditzen markatutako «Nekazal Paisai Sistema».
- Landa izaera daukaten errepide batzuetan mantenimendua eta hobekuntza lagunduko du, zalantzarik gabe, bizitza tradizionaleko moduari eta landazabal paisaiei, aldi berean balio izaten, bere oinarritzko baloreen garapenerako, aktibo naturalen eta kulturalen aprobetxamendua.

2.10.4.- ERABAKI LOTESLEAK.

Izaera zehatzarekin udalerrientatik, lotesleak izango dira irizpide eta erabakiak antolamendurako, islatuak akzio honen 2.10.3 puntuan.

«Nekazal Sistema Paisai balorearekin» esparruak mugatzea loteslea da udalerriko planteamenduarentzat.

2.11.- LANESTOSAKO BIRSORKUNTZA (OE-11)

2.11.1.- AKTUAZIOAREN LOKALIZAZIOA ETA EGUNGO EGOERAREN DESKRIBAPENA.

Lanestosak badauka Alde Zahar bat oso ederra, eta bere potentzial turistikoa esplotatu gabe dago, aprobetxatu barik aukera bikaina, birsorkuntza soziala eta hiri-ehuna, eta baita potentziaztea daukan erakargarritasuna eredu ekonomikorako, proposatzen dena eremuan.

2.11.2.- HELBURU ETA IRIZPIDE EGITURATZAILEAK AKZIOARENTZAT.

Lanestosako Alde Zaharra birsortu eta potentziatu behar da, hiribarruko saihesbidea izanda ezinbesteko elementua helburu hau lortzeko. Halaber, birbaloratu behar da eraikitako ondarea, ahalbidetzen katalogatutako elementuen azpimailaketa, birgaikuntza suspertzeko formula bezala, horrela katalogazioa, ulertuko da era baikorreetan balore ezarpena bezala eta ez zama bezala.

2.11.3.- HELBURU ETA IRIZPIDEAK ANTOLAMENDURAKO.

Proposamenak potentziazteko dinamismoa Lanestosan eta bere Alde Zaharrean, babesten definitzen duen izaera, hurrengo hauek dira:

- Sustatu Alde Zaharraren aktibo turistikoa eta kulturalen hobekuntzak, eraikuntza bereziak, eraikuntza historikoak, etab. Publizitatu behar da kanpainen bidez, Lanestosako Erdi Aroko Alde Zaharraren balore kulturalak, eta baita ebentuek erakartzeko bisitariak zonalde hauetara. Horretarako, funtsezkoa da ezartzea erakunde publikoak laguntza ekonomikoen promozioan destinatuek efektu honi.
- Sustatzea Alde Zaharreko eraikuntzen birgaikuntza, hobekuntza kaleen galtzadatzetan eta azpiegituretan orokorrean, etab.
- Faboratzea ondareen berrerabilpena. Eraikuntza hauetatik batzuk, berrerabili ahal dira antzokiak edo hotelak bezala hiribarruko zentroaren barruan, potentziazteko turismoa eremu honetan. Zentzu honetan, errefortzu proposamen hau Eremurako, suposatuta ahal du bizkar ematea bere behin betiko berreskurapenari.
- Gehitza Alde Zaharreko hiribarruko eta ingurumen kalitatea, erakargarriagoa izango da familia unitate berri batentzat, aukeratzeko momentuan egoitza. Alde Zaharraren hobekuntzak, izan ahal du dei efektua biztanleriarentzat, onurekin ez bakarrik zerbitzu sektorearentzat eta turismoarentzat, baizik eta, determinatzailea izan ahal da biztanleria hazteko.
- Ugaritzea ondare kulturalaren seinalizazioan hobetzea eta jartzea dibulgazio panelak Alde Zaharrean eta lurraldearen beste puntu batzuetan.

- Funtsezko da bultzatzea erabileren nahasketa Alde Zaharrean, bat egiten egoitzazko lurzoruak zerbitzu edo aktibitate tertziarioekin, balorean jarriz eraikita dagoena. Faboratzea erabilera nahasketa hau, era bat da potentziatzeko hiribarruko gunek eta Alde Zaharreko aktibitatea, bizitza emanaz hiribarruko inguruari. Gainera proposamen honek, ekiditzen du lurzoruaren artificalizazioa eta lurzoru industrialen okupazioa, egoitzazko erabilerarekin bat egiten duten aktibitateekin.
- Lanestosaren gunek Kalera ibaiarekiko, EAEko Ekologi Korridoreen Sarearen garrantzi bereziko lotura zatia, duen hurbiltasuna dela eta; hiri birsortzezko ekintzetan elkartze funtzioa arriskuan ez jartzeko kontuak handitu beharko dira:
 - Kalera ibaiko erriberako landaretzaren jarraitasuna mantendu. EAEko Ekologi Korridoreen Sarearen irizpideen arabera, landaretza hau, alde bakoitzean 15 metroko babesa izango du.
 - Esparru honetakoak diren zuhaixka eta zuhaitz espeziekin, erribera habitataren hobekuntza eta landaretza zaharberritze ekintzen sustatzea.
 - Ur jabetza publikoa eta sortasun gunea errespetatu.
 - Uhaskan zehar, ekiditu Kamioi eta makinaren mugimendua.
 - Hormigoi defentsak edo erriberako lorategi zonaldeak bezalako medioa artificalizatzen duten ekintzak ekidatu.
 - Aurreikusitako azpiegituretan eta animaliak tarte ziurretara eramaten dituzten hesietan, animalientzako iragaite egokiak prestatu.
 - Ibaiaren gainetik aurreikusiko diren zubietan, bide azpiko animalien iragatea ahalbideratu eta honela babesturiko espezieen kolpaketak ekidatuko dituen, bi metro gutxienezko erribera zonalde baten mantentzea ziurtatuko da. Alboko zero hauetan, lurzoruaren hobekuntza eta landaretza ezarketa lanak egingo dira.
 - Europar bisoiaren kudeaketa planaren determinazioen betetzea, batez ere, lanen egite datak eta espeziarentzako aldi arriskutsuei dagokienez.

2.11.4.- ERABAKI LOTESLEAK.

Lotesleak izango dira irizpideak eta erabakiak antolamendurako, islatuak operazio honen 2.11.3 puntuan.



2.12.- BIDE KULTURALA GORDEXOLAN (OE-12)

2.12.1.- Aktuazioaren lokalizazioa eta egungo egoeraren deskribapena.

Gordexola udalerrriaren ezaugarri nagusia da dituen interes elementuak: jauregiak eta indiano etxeak, baserriak, dorreak, uriak, elizak eta ermitak, etab. guzti hori inguratuta kalitate eta ondo kontserbatutako paisaiaz. Jauregi, ermita eta eliza asko ordaindu egin ziren Ameriketatik etorritako diruarekin, horregatik nabarmendu ahal da udalerrian indiano estilo bat etxebizitzetan, jauregietan eta hauen lorategietan baita ere.

Gordexolak badauka gainera, burdinola eta aixerrota batzuk kokatuta Herrerias edo Ibalzibar ibaietatik zehar, bazelako haran bat lotuta zegoena burdinaren ekoizpenarekin burdinoletan eta ogiaren ekoizpenarekin. Elementu hauekin batera, nabarmentzen da nekazal, abeltzaintza eta baso ustiapen paisaia.

Hala eta guztiz ere, aspektu guzti hauek gaur egun ez daude oso aprobetxatuak ikuspuntu turistikotik, ez delako existitzen elementu konektore bat lotzeko eta indarra emateko.

2.12.2.- HELBURU ETA IRIZPIDE EGITURATZAILEAK AKTUAZIOARENTZAT.

Sustatzea era askotako eta dibertsifikatutako eskaintza kulturala, potentziatzeko aprobetxamendu turistiko aukerak Gordexolan, badaukana ondare kultural handia eta harana natural bat paisai balorearekin. Izan ere, Kultura sailburuak 2002ko urtarrilaren 14an emandako Aginduan agertzen diren eta Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean kultura-ondasun gisa jasota -eta monumentu gisa sailkatuta- dauden dorretxeetako asko udalerrri honetan daude kokatuta.

Gainera, sartzan bada aisialdi faktorea, faboratzen aisialdi aktibitatearen bat, sortzen da gehitutako erakargarritasun bat balore kulturei, ze hornidura kulturalak oso lotuta daude aisialdiko aktibitateekin.

Ibilbide kultural bat Gordexola haranetik zehar, determinatzailea izan ahal da aisialdiko eta kultural aktibitateak potentziatzeko orduan, konbinatuz aspektu kulturalak aisialdikoekin, eta gehikuntzan, hornidura kultural hauek jokatzen dute hiribarruko kalifikazio faktore determinatzaile bezala, hobetzen gune baten hiribarruko irudia.

2.12.3.- Helburu eta irizpideak antolamendurako.

Sortzen da erakargarritasun turistiko foku bat, hurrengo interbentzioen bidez:

- Planteatzen da ibilbide kultural bat Gordexola udalerritik zehar, non bisitatu eta ikusi ahal dira elementu batzuk, elkartzen direla ibilbide edo bide gorri batzuen bidez, planteatzen dena AE-10 «Malla verde» akzio egituratzailearen barruan. Ibilbide kulturala Gordexola haranetik zehar osatuta dago hurrengo elementuengatik:

2011ko azaroaren 25a, ostirala

- Zubiete bezalako gune interesgarriak, non aurkitzen dira Zabalburu eta Zubiete dorreak, Nuestra Señora de Isusi ermita, burdinola, etab.
 - Sandamendi edo El Molinar bezalako gunea, gainera indiano etxeak, Oxirando etxe dorrea, San Juan eliza; Santa Isabel komentua, Ibarra aixerrota, Hurtado de Iburguren jauregia, etab.
 - Artekona gunea, La Inmaculada ermitarekin, Artekona burdinola, Largacha dorre etxea, etab.
 - Existitzen diren egoitzak indiano estiloarekin Villa Carmen bezala- gaur egungo udaletxea; Arechabaleta Uria, Jose Uria, Florita Uria, Aldai Uria, Cuba Uria, Bilbao Uria, etab.
 - Beste burdinola eta aixerrota batzuk Azkarain, Sologuren, De la Presa, Gordogana, eta abarren. aurkitzen dira.
 - Pico Ilso gailurrera eramaten duen ibilbidea, konektatzen dela San Juan de Berbikez elizarekin eta alboan dagoen aisialdi eremuarekin.
- Lehen adierazitako kultura-ibilbideari zuzen lotuta, Gordexolan dagoen bidezidor edo galtzada zahar bat sendotu behar da; Oxirando eta Albitxu auzoen artetik doa bidezidorraren ibilbidea. Bidezidor hori zabaldu behar da, eta adar berria egin behar da Zaldu ibaiaren paretik Zaballa auzoraino doan galtzada zaharretik. Gero, aurreko bi ibilbideak lotu behar dira, Azkaraitik Zubiete auzora doan Arraziko bidetik.
 - Seinale egokiak jarri behar dira kulturako ibilbideak zehazteko. Seinaleetan, Gordexolan dauden dorretxe guztien deskribapen labur bat jasoko da, eta dorretxeak aurkitzeko modua azalduko da, eremu horretan bizi ez diren herritarrek eta turistek errazago aurkitu ditzaten.
 - Aisialdi osagarri bezala, proposatzen da tiro zelai baten sorkuntza Gordexolan, kokatzen dela lehen Gordexolako zaborteia kokatzen zen lurzoruan, gaur egun estalita eta birlandatuta dago. Zonalde hau, hiribarruko gunetik urrunago dagoen zonaldea da, horregatik zarata oso txikia izango da.
- Esparruak izan ahal ditu hiru tiro zonalde: lehenengoa skeet, tiro pitxon eta beste modalitateentzat destinatua haize zabalean: bigarren zonaldea barrukoa izango da prezisio tiro frogentzat, eta hirugarren bat arku tirorentzat. Halaber, bere funtzionamendua izango da tiro eskola bezala. Egokia izango litzateke egotea taberna-jatetxe bat, aldagelak eta denda bat akzesorioekin (kartutxo, platerak, etab) eta armen alokairua.
- Jaurtiketa-zelaian sortutako zaratak eragina izan dezake migrazioetan, Orduntetik Valderejora doan igarobide ekologikoaren moteltze-arloan sartuta baitago. Hortaz, Gordexolako zaborteia zaharrean jaurtiketa-zelai bat jarri ahal izateko, egokiak diren baimen sektorialak lortu, eta Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren Banakako Azterketa prestatu beharko da. Hor, neurri egokiak hartu beharko dira, adierazi ditugun alderdietan eraginik egon ez dadin, eta, horrez gain, plan berezi bat prestatu beharko da, indarrean dagoen legeri jarraiki idatzia.
- Iragarkien bidez, Gordexolako turismoaren garapena sustatu eta bultzatu behar da: kultura, aisialdia eta josteta, ostalaritzako ekipamenduak, SPA, etab.

2011ko azaroaren 25a, ostirala

2.12.4.- ERABAKI LOTESLEAK.

Lotesleak izango dira irizpide eta erabakiak antolamendurako, islatuak operazio honen 2.12.3 puntuan.



II. ERANSKINA, URRIAREN 26KO 226/2011 DEKREUARENA

UZTAILAREN 22KO 183/2003 DEKREUAREN 15.ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERAKO ADIERAZPENA, BALMASEDA-ZALLAKO (ENKARTERRIAK) EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANAREN GAINEKO INGURUMEN INPAKTUAREN AZTERKETA BATERATUAREN PROZEDURA ARAUTZEN DUENA

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek mugatzen dituzten udalaz gaineko eremu edo zonaldeak Lurraldearen Zatik Planak garatuak dira, haietako bakoitzarako Artezpideek ezarririko antolamendurako berariazko irizpideak zehazten dituztela. Europako Parlamentuaren 2001/42 CE Zuzentarauarekin Europar Batasunak plangintzaren ingurumen azterketa eta antolamendurako programen garrantzia aitortu zuen, ingurumenean ematen diren Plan eta Programa jakin batzuen Ondorioen Azterketari buruzkoa.

Programa eta plan hauen azterketa funtsezkoa da, hauetan proiektu eta azpiegitura handien kokapena erabakitzeke irizpide estrategikoak ezartzen baitira. Proiektu handi hauen ingurumen inpaktua, udal edo udalaz gaineko eremuen barruan, garrantzitsuagoa auresuposatzen da, 183/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, Ingurumen Inpaktuaren Azterketa Bateratuaren Prozedura finkatzen duenaren arabera.

Balmaseda-Zallako (Enkarterriak) Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatik Plana-k (LZP) lau euskarrietan oinarritutako lurralde-eredua proposatzen du: ingurune fisikoa, azpiegiturak (garraio eta bide azpiegiturak eta oinarritzkoak), ekipamenduak eta gunek libreak; eta hiri-kokalekuak. Oinarritzko irizpide moduan daude, alde batetik, eskualde egitura eta hurbileko lurraldearen arteko osagarritasunaren alde egitea, bestetik despopulazte prozesuak eta ekipamendu ezak gehien eragiten dituzten eremuetara jarduketara publikoak bideratzea. Irizpide hauek LZP-an azaldutako proposamenetan gauzatzen dira, hauek leku osoko garapena bilatzen dute, hazkunde, azpiegitura eta zerbitzuei dagozkien aurkitu arazoak konpontzearekin batera.

Ingurumenaren babesaren ikuspuntutik, LZP-ak lurraldean bertan dauden baliabide naturalen iraupena eta baliabide andetuenak hobetzea bermatzen du. Idazte prozesu osoan zehar ingurumenaren aldeak gogoan hartu dira eta naturguneen tratamendu kontserbazionista garatzen du, beren babeserako naturaren aldetik garrantzia duten tokiak identifikatzearen eta mugatzearen bidez (batzuk katalogatuak eta beste batzuk LZP-ak berak proposatuak).

LZP-an proposatzen den ingurune fisikorako antolamendua LAA-ek ezarrutako irizpideekin bat dator, baita Ingurugiro Estrategiaren Agiriaren ingurumen helburu estrategikoekin ere, zeren eta:

- Eskualde Egituran aurkitzen diren eremu eta elementu interesgarrien zaintza eraginkorra bermatzen duen.
- Natura balore handiko baso masak zaintzen dituen.
- Paisai balioa duten nekazal sistemak eta nekazaritza-abeltzaintza eta landazabal zonalde interesgarriak gordetzen dituen.
- Gainazaleko urak eta lurrazpikoak babesten dituen, baita intereseko ibaiertzak, zonalde hezeak eta uholdagarri diren lekuak ere.
- Gune degradatuen birsorkuntza, berreskuratze eta hobekuntza errazten dituen.

Beste alde batetik, beste izaerako proposamenak, bere etorkizuneko garapena eragin ahal duela lurzoru urbanizaezin honetan eta existitzen diren beste intereseko elementuetan, badute norabide adostuak LAA-ren irizpideekin, horrela bermatzen da afekzio minimoa eremuan dauden interes naturaleko loturetan, planteatzen irizpide, norabide eta neurri batzuk bere ezarketarako, beti kontuan izanda inguru giroarekiko errespetua.

LZP-ak jarduera ekonomiko eta egoitzaren arteko aldea berriro orekatzeko aukera ematen du, baina zeharo ezberdinak diren Eremu Funtzionaleko alderdi bakoitzari erantzun egokia emango dio: Ekialdekoak, izaera antropizatuagoa dauka, Balmaseda, Zalla, Gueñes, Sopuerta, Galdames, eta Gordexolaz osatua, alderdi hau Kadaguako korridoreak, trenbideak eta Bilbao metropolitarraren eremu hurbiltasunaren eraginak nabarmenki markatu dute eta Mendebaldekoa landa-izaera handiarekin, Lanestosa, Karrantza Harana, Trucios-Turtzioz eta Artzentalesez osatua, alderdi hau naturguneei eta lehen sektoreko jarduerari oso lotuta dago. Horregatik, LZP-ak ez ditu egoitza, azpiegitura, eta abarreko banaketarako era bereko konponbideak proposatzen, baizik eta alderdi bakoitzarako erantzun ezberdina eskaintzen du, haren berezko ezaugarrietara moldatuta, hau da:

- Ekialdeko alderdian, Kadaguako korridoreari eta egungo trenbide azpiegiturari loturiko egoitza eta lurzoru industrialen pilaketa, garraio publikoa optimizatzeko asmoz, ahal den biztanle gehiagori sarrera erraz dezan.
- Alabaina, mendebaldeko alderdian; egoitzarako proposamen jasangarriagoak azaltzen ditu eta lehen sektoreko jardueraren zaintza eta garapenerako ekipamenduak kokatzen ditu, bestalde, biodibertsitatea eta paisaiaren kalitatea mantentzen duena dela esan beharra dago, baita aurrekoarekin bateragarria diren beste jarduera batzuk sortzea ere, gaur egungo orekarik eza zuzentzeko asmoz.

Hori dela eta, LZP-ean, oro har, aurreikusitako proposamenak ingurugiroa babeserako politikekin begirunetsuak eta bateragarriak dira, arrazoi hauengatik:

- Naturguneetako zaintza, babesa eta berreskurapena bermatzen ditu, horretaz gain, paisaia eta zientzia-kultura balioak ere, babespeko maila handiena ematen baitie.
- Alderdian garatzeko jardueren kokapenaren proposamena LAA eta Arloko Planekin adostutako moduan gauzatu du.
- Azpiegituren hobekuntza, edukiera handiko (trenbidea) garraio publikoaren bultzada eta etxebizitza bakartua mugaketaren bitartez biztanleriaren mugikortasuna hobetzen da zerbitzu eta jarduera ekonomikoak gerturatzen baitira.
- Nekazalguneak nekazal ekoizpenerako gunea bezala aintzakotzat hartu ditu, botere handiko lurzoruak erabilera hauetarako gordez. Nekazal erabilera eta biztanleak mantentzeak landazabal paisaien babesa bermatzen ditu.
- Ingurune aisialdirako guneak eta natura ibilbideen eskaintza hobetzen ditu, horrela biztanleriaren eskaria beteko du.

183/2003 Dekretuak eta 9/2006 Legeak ezarritakoaren arabera, LZP-a Ingurumen Inpaktuaren Azterketa Bateratuaren prozedura jaso du. Prozedura horretan kontsulta publikoen prozesua sartu da, lurraldearen osagai ezberdinen kudeaketan inplikaturako eragile desberdinen ekarpenarekin,

baita Eremu Funtzionaleko bertako erakunde eta herritarrekin ere. Hurrengo prozedura garatu dela:

- 2007ko urtarrilaren 22an prozeduraren hasierarako eskaera. 9/2006 Legearen 9. artikuluan aurrez ikusiriko administrazioei eta publiko interesatuari identifikazio eta kontsultaren izapidea burutu ondoren, Ingurumen Sailburuordetzak, 2007ko irailaren 3ko ebazpenaren bitartez, dagokion erreferentzia txostena adierazi zuen.
- IIAB idazten da, LZP-aren aurrerapenari buruzkoa, bai 183/2003 Dekretuaren zehaztapenetara bai Ingurumen Sailburuordetzak emandako erreferentzia txostenekoetara egokitzen dena. Azterketa honek derrigorrezko analisi eta alderdiaren balorazioa eta Planaren proposamenen ondoriozko inpaktuen balorazioa barne hartzen ditu; era berean Planak zuzenketa eta orekarako neurriak eta Planaren proposamenak garatzen dituen planen diseinu eta ebaluaketarako irizpideak ezartzen ditu.
- 2008ko otsailaren 12an Ingurumen Inpaktuaren Azterketa Bateratua igortzea eskatzen da. Ingurumen Sailburuordetzak Aurretxostena azaltzen du, 2008ko urriaren 10eko Ebazpenaren bitartez.
- LZP-aren Aurrerapena IIAB-arekin batera erakusketa publikoaren izapidea pasatzen dute (2008ko martxoaren 3ko EHAO), prozedura hartan erakunde eta entitate ezberdinen 27 iradokizun bildu ziren, behar bezala baloratuak izan zirenak.
- LZP-aren Irizpide, Helburu eta Irtenbide Orokorrak onartu eta gero, 2008ko urriaren 30eko Foru Aginduaren bitartez, hasierako onespenerako txostena idazten hasten da.
- IIAB eraldatzen da, bai hasierako onespenerako dokumentuan sarturiko aldaketetara bai Ingurumen Inpaktuaren Aurretxostenaren zehaztapenetara moldatzeko asmoz.
- Hasierako Onespenerako dokumentuaren informazio publiko eta Administrazio publikoei harreraren izapidean, guztira 30 iradokizun aurkeztu ziren: erakundeek eta partikularrek 21 egin zituzten eta Lurraldeko Administrazio Publikoek 9 egin zituzten (Eremu Funtzionaleko Udalek 7 eta Eusko Jaurlaritzako Departamentuek 2). Aipaturiko iradokizunen balioztapen partzialak eragindako aldaketak, 2010eko azaroaren hiruko Aginduaren eranskinean jaso dira, Agindu horrek behin-behinean LZP-a onartzen duelarik. Aipatu alegazioak ingurune fisiko, garraio azpiegitura, bide azpiegitura, zerbitzu, ekipamendu, kultura ondare, egoitza lurzoru eta jarduera ekonomikoen lurzoruei buruzkoak dira.
- Azkenik, Ingurumen Sailburuordetzak, 2011ko martxoaren 29ko Ebazpenaren bitartez, Ingurumen Inpaktuaren behin betiko txostena azaldu zuen, 183/2003 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoarekin adostua. Txosten horretan ingurugiroaren arloko zenbait zehaztapen eta gogoeta bildu ziren, LZP-aren behin betiko txostenean eta IIAB-an sartu zirenak, hauek honi buruzkoak dira:
 - LZP-aren behin behineko onespenerako Aginduan azaldutako aldaketei IIAB moldatzearen beharra.
 - LZP-aren garapenerako tresnek ingurugirorako artezpide osagarriak kontuan hartzeak.
 - LZP-aren garapena gainbegiratzeko neurri osagarriak.

Txostenean sartu diren ingurugirorako zehaztapenak hurrengo puntuetan laburbildu daiteke:

1.- IIAB LZP-aren izapidean zehar emandako aldaketetara moldatzen da eta behin behineko Aginduan adierazitako aldakuntza jasotzen ditu.

2.- Gune karstikoen ikerketa sustatzeko eta egun dagoen interpretazio zentroa osatzeko proposamenak ez duela ingurugirorako ondoriorik izango ulertzen da. Plangintzak, honen inguruko ekintzaren bat zehaztuz gero, ingurugirorako eragin posibleen balorazioa mahaigaineratu beharko da. Zentzu horretan, IIAB-aren 6.2.3 «Udalgaindiko hornidura eta sareberdearen proposamenerako irizpideak» atala hurrengo irizpidearekin osatu da:

«Espeleologia-turismoari lotutako edozein ekintzaren garapena Natura Sarea 2000-ari eragin behar bezalako ebaluaketaren -zehazki, bertako mehatxupeko kiroptero espeziei- baldintzapean egongo da».

3.- La Aceña Sur-en (Galdames) proposaturiko jarduera ekonomikoen sektorekoari buruz, IIAB-k 6.2.5 atalean honako hau dio:

«La Aceña proposatutako jarduera ekonomikoen sektorearen inguruan, bere garapenerako plangintza eta ingurumen azterketak bertako landareriari eragin maila eta (bereiziki hegoaldean) ibaiko ekosistemari oro har eragindakoa zehaztu beharko dituzte. Hauek, garapen honen aukera edo onura aztertuko dute eta aurkituriko inpaktu larriak ekiditeko okupazio eta antolaketarako alternatibak proposatuko dituzte, eta hala bada, ibaiko ekosistema eta bertako landareriaren oraingo ezaugarriak mantentzea bermatzen dituzten beharrezko neurriak xedatuko dituzte».

4.- Estrategia Balio Handiko Nekazaritza-Abeltzaintza bezala kalifikatutako lekuetan bide azpiegiturarako erabilera ontzat hartuko da, baina alternatibek azterketa sakonaren baldintzapean, Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko LAP-ak agintzen duen moduan eta erabilera arautzeko matrizean zehazten den bezala.

5.- LZP-aren garapenerako baliabideek Nekazaritzarako Balio Handiko lurzoruei eragin posiblea aintzat hartzeko asmoz, IIAB-ren 6.1 atalean bildutako irizpidea horrela aldatu da:

«Balore agrologiko altua duten lurzoruen gainean ahal den eta eraginik txikiena eta osabidezko neurrien ezarketa. Alternatibak aztertzea».

6.- Higadura duten lekuetan azpiegituren kokapena ekiditeko, IIAB-aren 6.2 atalean bildutako irizpidea horrela osatu da:

«Nekazaritza eta Basoak antolatzeko LAP eta EAE-ko Lurzoruetako Higadura Mapan seinalatutako higadura-arriskua duten eremuei eragin diezaiekeen proposamenera, eta eraginak identifikatzen badira, azalduriko inpaktuak ekiditeko edo txikiagotzeko alternatibak aztertu beharko dira».

7.- Gordexolako lehengo zabortegean tiro zelaia sortzeko proposamenari buruz, loturarako interesa duten elementuetara gertutasuna dela eta, IIAB-ren 6. kapituluak bere 6.2.3 atalean hurrengo zehaztapena jaso du:

«Gordexolako tiro zelaiaren kasuan, garapenerako plangintzak korridore ekologikoen sareari eragin posiblea aztertuko du, hala bada, loturako funtzioa bermatzeko beharrezko neurriak ezarriko ditu».

8.- Planifikatutako ekintzek atmosferari sortu ahal dioten eragineen gainean, IIAB-ren 6.1 atalak hurrengo gomendioa sartu du:

«Arloko legeriek ezarritako kalitate akustiko eta airearen kalitatearen helburuak betetzea».

9.- LZP-ean jasotako irizpide jasangarriekiko proposamenak garatzeko artezpideak osatzeko, IIAB-ak 6.2.4. atalean hurrengo puntua sartu da:

- Irizpide bioklimatiko eta eraginkortasun energetiko duten eraikuntza jasangarria sustatzea.

10.- IIAB-ren 7. kapitulua hurrengo 7.3 atalarekin osatu da, honek LZP-aren garapenean ingurumen alderdi garrantzitsuenetariko batzuen jarraipena baimentzen duten adierazleak jasotzen ditu.

«7.3.- Jarraipen adierazleak.

Aurreko atalean azaldutako parametroen jarraipena burutzeko erabili behar diren zenbait adierazle ezartzen dira.

- Eremu Funtzionaleko bertako zuhaitz masaren bilakaera.
- Ibaiko ekosistemen bilakaera (ibaiertzeko landareien azalera).
- Babez beriziko lurzoruaren azalera.
- Eremu Funtzionaleko eremu katalogatuen bilakaera.
- Nekazaritzarako Balio Handiko lurzoruen azalera eta eragindako esplotazioen bilakaera.
- Korridore ekologikoen azalera eta egoera.
- Urbanizazio eta azpiegiturek artifizial bihurtu duten lurzoruaren azalera.
- Birgaitutako lurzoruen azalera.
- Berreskuraturiko lurzoru kutsatuaren azalera.
- Mehatxupeko espezien populazioaren bilakaera, bereziki bisoi eta kiropteroak.
- Proposamenek eragindako jabari hidrauliko publikoaren azalera.
- Ibaietako uren kalitatea.
- Ur kontsumoa eta ur baliabide erabilgarrien arteko harremana.
- Energia kontsumoaren bilakaera.
- Paisaiaren aldetik balioa duten eremuetako ekintzak. LZP-aren proposamenen ekintzen paisai egokitzapenaren maila.
- Bisitariak Sare Berdeko elementuen inguruan sortutako gaitzak.
- Ingurumen azterketaren prozeduran analizaturiko planen zenbakia.
- Planak eta programak ingurugiroaren irizpideei egokitzapenaren maila.

Ingurumenaren Zaintza Programaren Autoritate Arduraduna Eusko Jaurlaritza izango da, LZP-aren onespeneren Administrazio arduraduna baita».

Egindako Ingurumen Inpaktuaren Azterketa Ebaluaketaren prozesuaren ondorioz, bere izapidean zehar, LZP-ak bere zehaztapenatariko batzuk aldatu ditu eta eraginak ekiditeko edo txikiagotzeko zenbait garapen berri ere definitu ditu, Planak badituen inguruarekiko gogoeta handiagotzeko neurriak barne hartzen dituela.

Horrela, LZP-ak inguruarekiko iritzi estrategikoak eta ingurumen organoak adierazi dituen ingurumen informeetan seinalatutako zehaztapenak osatu ditu. IIAB-ak LZP-aren proposamenen garapenenean erantsiko diren zaintze neurri-multzoa ezartzen du.